



Mancomunidad
Comarca de Pamplona

Iruñerriko Mankomunitatea

MEMORIA 2010 Mancomunidad de la Comarca de Pamplona 2010 Iruñerriko Mankomunitatea

Entitatearen profila

Gobernu egitura

2010ko kudeaketa txostena

Ekonomia adierazleak

Ingurumena

Giza taldea

Urteko kontuak

ENTITATEA

Iruñerriko Mankomunitatea toki erakunde bat da, 1982an sortua. Egun 50 udalerrik osatzen dute, biztanleria, lurralde eta, honenbestez, egiturari dagokienez, oso desberdinak diren udalerriak.

Honako zerbitzu publiko hauen tituluduna da Mankomunitatea: edateko urez hornitzea, estolderia eta hondakin urak sanotze eta araztea; hiri hondakinak biltzea, tratatzea eta ustiatzea; bidaiariak hirian garraiatzea; Iruñerrian taxi zerbitzua batera emateko lurralde gunean taxi zerbitzua ematea; eta, 2007ko martxoaz geroztik, Iruñerriko Ibai Parkea kudeatzea. Egun, ia 350.000 herritarrek erabiltzen dituzte zerbitzu horiek.

Ingurumenaren gainera ardura eta sentiberatzea mankomunitatearen jardueraren funtsezko alderdiak izan dira.

ENTITATEA

Legezko egitura

Legez merkataritza sozietate baten bidez kudeatze zuzen gisa definitutakoa hartu zuen Mankomunitateak, bai urez hornitzeko eta ura sanotzeko zerbitzua, bai hondakinak kudeatzeko zerbitzuak kudeatzeko modu bezala. Merkataritza sozietate horrek "Iruñerriko Zerbitzuak, Sozietate Anonimoa" izena du, eta horren kapitala osorik Mankomunitateari dagokio. Sozietate horren beraren bidez, Iruñerriko Ibai Parkea kudeatzen du.

Hiri garraio kolektiboa zeharka kudeatzen da, kontzesio bidez; taxi zerbitzua, berriz, Mankomunitateak berak zuzenean antolatzen eta kudeatzen du.

Beraz, legez desberdinak diren bi erakunde dira. Mankomunitatearen funtzionamenduaren arau oinarriak (Iruñerriko Mankomunitatea) eta horren sozietatearenak (Iruñerriko Zerbitzuak SA) dagozkien estatutuetan bilduta daude, eta bien arteko harremanak Iruñerriko Mankomunitatea eta Iruñerriko Zerbitzuak SA erakundeen arteko harremanen araudiak arautzen ditu.

ENTITATEA

Lurralde esparrua

Zerbitzu bakoitza emateko esparrua honako modu honetan zehazten da:

- Uraren Ziklo Integrala (40 udalerri). Nafarroako Gobernuak Nafarroa Hornitzeko Plan Zuzentzailean emandako lurralde mugapeak zehazten du zerbitzu hori emateko esparrua.
- Hiri hondakinak (48 udalerri). Nafarroako Hiri Hondakinen Plan Zuzentzaileak zehazten du zerbitzu hori emateko esparrua.
- Hiri garraioa (17 udalerri). Iruñerrian bidaiariak garraiatzeko zerbitzu erregularra arautzen duen 8/1998 Foru Legeak, ekainaren 1ekoak, zehazten du horren esparrua. 2007an zerbitzu horretan parte hartu duten udalerriak 17 izan ziren.
- Taxi zerbitzua (19 udalerri). Taxiei buruzko 9/2005 Foru Legeak, uztailaren 6koak, zehazten du horren esparrua. 2007an zerbitzu horretan parte hartu duten udalerriak 19 izan ziren.
- Ibai Parkea. 2000. urtean NILSA eta Nafarroako Gobernuarekin partzuergoa osatu zuen 8 udalerrik osatzen dute esparrua. 2007an partzuergo hori deuseztatu egin zen, eta Iruñerriko Mankomunitateak hartu du kudeatzeko ardura.



ENTITATEA

Araubide ekonomikoa

Mankomunitatea osatzen duten udalerriek agintzen dizkioten zerbitzuak ahalik eta modu eraginkorrean ematera bideratuta dago Mankomunitatearen jarduna. Ikuspegi ekonomikoa ez dago bideratuta etekinak lortzera, baizik eta baliabideak egoki kudeatzera, zerbitzuan kalitate gorena lortzeko helburua bermatu ahal izateko. Baliabideak arrazoizko moduan erabilia eta kostuak kontrolatuta, bezeroentzat egokiak diren tarifak ezarri ahal dira, kudeaketa ereduaren etorkizuneko bideragarritasuna ziurtatu ahal izateko.

Ekitaldi bakoitzean lortzen diren emaitza ekonomikoak berriro inbertitzen dira azpiegiturak eta baliabideak hobetzeko. Erkidetutako udalek eta kontzejuek egiten dituzten ekarpenek osatzen dute gizarte funtsa. Eskudiru, ibilgetu, eta beste kontu-sail zordun eta hartzekodun batzuen bidez egiten dute. 2010eko abenduaren 31n, ekitaldiko emaitzak kanpo, diru-kopurua 52.049.763,47 eurokoa da.

ENTITATEA

Kudeatutako zerbitzuak

URAREN ZIKLO INTEGRALA

Edateko urez hornitzea eta hondakin urak sanotzea dira Mankomunitatea sortu zenetik, hau da, 1982tik ematen dituen bi zerbitzuak.

> hornidura

Egun, urez hornitzeko hiru iturri nagusi ditugu: Artetako iturburua, Eugiko urtegia eta Itoizko urtegia, Nafarroako ubidearen bidez. Iturri horietako bakoitzetik heltzen den ura, edateko uren araztegi batean tratatzen dute, gizakiok edan ahal izateko:

- Artetako iturburua – Egillorko Edateko Uren Araztegia
- Eugiko urtegia – Urtaungo Edateko Uren Araztegia
- Itoitz-Nafarroako ubidea – Tiebasko Edateko Uren Araztegia

Herritarrak urez hornitzeko sistema honek oinarri du hornitzeko sare bilbe konplexua: 1.508 kilometro hodi eta 136 biltegi ditu. Hartara, ziurtatuta dute ura izatea, bai kopuruari eta bai kalitateari dagokionez, Iruñerriko herriek.

> sanotzea eta araztea

Iruñerriko biztanleen %95ek sortzen dituzten hondakin-urak Arazuriko Hondakin-urak Arazteko Plantara bideratzen dira (Iruñetik 3 kilometrora), 1.622 kilometro dituen bilgailu sare baten bidez.

Araztegi hori 1990ean jarri zuten martxan, eta 1999an handitu egin zuten. Han, hondakin urak araztu egiten dituzte, tratamendu fisikoa eta biologikoa eginda. Era berean, arazte prozesuan sortzen diren lohiak tratatu egiten dira, gero nekazaritzan eta lorezaintzan erabili ahal izateko; eta lohi horien digestio prozesuan sortzen den biogasa energia termiko eta elektrikoki bihurtzen da.

Uraren Ziklo Integralari dagokion jarduerak zuzenean egiten dituzte Mankomunitateko langileek berek.

> bilketa

Birzikla daitezkeen materia bizigabea ahalik eta gehiena balioztatzea eta berreskuratzea etxean modu eraginkorrean sailkatzearen mende dago. Horretarako, gertutasun, erosotasun eta eskuragarritasun errazaren printzipioei jarraituz jarri dira edukiontzia.

Kaleetan hondakinak biltzeko dauden puntu guztiek hiru edukiontzi mota hauek dituzte: ontziak biltzekoa, papera-kartoiak biltzekoa, eta materia organikoa eta gainerakoak biltzekoa. Gainera, biltzeko bi puntutatik batek beira botatzeko iglu erako edukiontzi espezifiko bat du.

Etxean sortzen diren hondakin bereziak gaika biltzeko helburua duten instalazioak dira garbiguneak. Bi mota daude: finkoak (2 dira), hipermerkatuetako aparkalekuetan daude; eta mugikorak, aurretik ezarrita dagoen maiztasunarekin eta etengabe hainbat herri eta auzotara joaten diren 2 ibilgailu dira.

Zerbitzu hau osatzeko, bestelako bilketak ere egiten dira: tamaina handikoak, pilak, inauste-hondarrak... Bestalde, "atez ateko" zerbitzua dago Iruñeko Alde Zaharreko saltegietan kartoia eta beira biltzeko.

Bilketen plangintza, zerbitzuaren kontrola, ikuskatzea, ibilgailuak eta edukiontziak erostea, eta biltze berezien diseinua Iruñerriko Zerbitzuak SAko langileek berek egiten dute, eta gauzatzen duen enpresa Fomento de Construcciones y Contratas da, Iruñerriko Zerbitzuak SAekin sinatua duen kontratuaren ondorioz.

> tratamendua

Dagokion edukiontzian sartu eta gero, hondakinak Gongorako Hiri Hondakinak Tratatze Zentrora eramaten dira. 1992ko ekainean jarri zuten martxan zentro hori, eta hondakinak tratatzeko bi eremu ezberdin ditu: gaikako planta eta zabortege kontrolatua.

Gaikako plantak birzikla daitezkeen produktuak hartzen ditu, eta gero multzoka sailkatzen dira. Hartara, gaika bereizita daudenean, enpresetara bideratzen dira, Ecoembesek eta Ecovidriok izendatutakoetara, eta han produktu berriak sortzeko lehengai moduan aprobetxatzen dituzte.

Birziklatu ezin diren hondakinak eramaten dira zabortegira, edukiontzi berdeetan bota direnak. Han, aldian behin lurperatu egiten dira, materia organikoaren hartzidura anaerobioa errazteko. Sortzen diren gasak, ateratze eta bideratze sistema baten bidez, energetikoki erabilgarriak izan daitezke egiten dute.

ESKUALDEKO HIRI GARRAIOA

Iruñerriko 17 udalerrien artean zeuden mugikortasun arazoak konpontzeko asmoarekin, Mankomunitateak eskualdeko hiri garraioa kudeatzeko ardura hartu zuen.

Zerbitzu berriaren oinarritzko xedea izan da hiri eta hiriarteko lineetan zeuden gainjartzeak bateratzea. Horren ondorioz, Iruñerriko auzoen eta udalerrien arteko lotura hobetu ahal izan da, eguneko 21 lineen eta gaueko zerbitzuko 9 lineen bidez, eta tarifen sistema homogeneoa finkatu ahal izan da.

2009an, eskualdeko hiri garraiorako sareak 349 kilometro ditu. Eta 491 geraleku ditu. Autobus flota 141 ibilgailuk osatzen dute (horien %96 erraz sartzeko modukoak dira, "zoru baxukoak"). Autobus horiek batez beste 5,7 urte eta 117 bidaiari hartzeko edukiera dituzte.

Zerbitzu hau emateko zeharkako kudeaketaren formula erabiltzen da. Mankomunitateak zerbitzuaren plangintza eta kontrola egiten ditu, eta La Montañesa

SLU enpresak zerbitzua ematen du, dagokion kontzesio kontratuan ezarrita dauden baldintzen arabera.

TAXI ZERBITZUA

Iruñean eta Iruñerrian taxi zerbitzua hobetzeko eta legedia testuinguru berrira egokitzeko asmoz, 2005ean, Nafarroako Parlamentuak taxiaren gaineko foru legea onartu zuen (9/2005 Foru Legea, uztailaren 6koa). Lege horren bidez, zerbitzua batera emateko eremu bat sortzea bultzatu zen (eremu horrek Iruñerriko 19 udalerrri hartzen ditu), eta zerbitzua kudeatzeko ardura Iruñerriko Mankomunitateak hartu zuen. Legeak finkatzen zituen beste neurrietako bat taxi-gidaria izateko baimen gehiago sortzea zen: 2006an Mankomunitateak deialdia egin zuen, eta horren bidez beste 90 baimen gehiago eman ziren, lehendik zeuden 223ei gehituta.

IRUÑERRIKO IBAI PARKEA

2000. urteko urtarrilean, Iruñerriko zenbait udalek, Nafarroako Gobernuarekin eta NILSA sozietate publikoarekin batera, Iruñerriko Ibai Parkearen Partzuergoa sortu zuten. Beren ibaien uberkak lehengoratzeko eta, hartara, gure ibai inguruen natura-balioa berreskuratzean aurrera egitea izan zen helburua. 2003ko udaberrian parkea inauguratu zuten eta Partzuergoak kudeatzea onartu zuen. Kudeatze horrek lan osagarriak egitea eta azpiegiturak konpontzea ere hartu zuen.

2006an, Uraren Ziklo Integralarekin bat zetorren ikuspegia emateko asmoz, Partzuergoak ibai parkearen kudeaketa 2007tik aurrera Iruñerriko Mankomunitatera eskualdatzea erabaki zuen. Erabaki hori Partzuergoa desegitearekin batera etorri zen. Korridore berde bat da, naturari babes ematen diona, hiriak ibai inguruari egiten dion presiotik babesten duena, Iruñerriaren paisaia pertzepzioa hobetzen duena, eta komunikatzeko bide garrantzitsua ematen duena, oinez edo bizikletaz erabiltzeko.

ENTITATEA

Datu orokorrak

	2009	2010
Langile kopurua	485	481
Kide diren udalerriak	50	50
Zerbitzua hartutako biztanleria	345.537	349.914
Hornituta	340.303	344.562
Hiri hondakinak biltzea	344.872	349.227
Eskualdeko hiri garraioa	324.814	324.540
Taxia	334.688	338.626
Negozio zifra (€)	55.046.669	55.541.253
Egindako inbertsioak (mila eurotan)	13.163.699	24.682.097
Aktiboak guztira (€)	177.877.586	183.680.757
Lortutako emaitza (€)	-487.718	-344.249

GOBERNU EGITURA

Iruñerriko Mankomunitatea

BILTZAR OROKORRA

Iruñerriko Mankomunitatea/Iruñerriko Zerbitzuak sozietatearen gobernu organo gorena Batzar Nagusia da. Batzar Nagusi horretan erkidetu dauden udal guztiak ordezkariak dituzte. Egun 54 kidek osatzen dute: horietatik 27 Iruñeko Udalaren ordezkariak dira, eta beste 27ak, Iruñerriko gainerako udaletako ordezkariak. Batzarreko batzordekide guztiak beren udaletako kide hautetsiak dira.

> batzarreko kideak, udalaren arabera sailkatuak

ANTSOAINGO UDALERRIA

Esteban Láinez, Jesús María

ARANGURENGO UDALERRIA

Romero Pardo, Manuel

BARAÑAINGO UDALERRIA

López Zubicaray, José Ignacio
Mendive Rodríguez, José Antonio
Salvo Gracia, María Dolores

BERIAINGO UDALERRIA

Marcos Lorenzo, Santiago

BERRIOZARKO UDALERRIA

Jiménez Díaz, Laura

BURLATAKO UDALERRIA

Alzórriz Goñi, Ramón
Muñoz Arias, José
Villanueva Sada, María Teresa

EGUESKO UDALERRIA

Andía García de Olalla, José Anastasio

ESTERIBARKO UDALERRIA

Borda Garde, Francisco Javier

UHARTEKO UDALERRIA

Basterra Basterra, Francisco Javier

NOAIN-ELORTZIBARKO UDALERRIA

Elizari Reta, Miguel José

ORKOIENGO UDALERRIA

Larrea Ruiz, Casimiro Juan

IRUÑEKO UDALERRIA

Alonso Ibarra, Fermín
Alzina De Aguilar, Valentín
Aramburu Bergua, Isabel
Ayesa Dianda, Francisco Javier
Barcina Angulo, Yolanda
Barcos Berruezo, Uxue
Cabasés Hita, Ignacio
Elizalde Urmeneta, Ana María
Esporrín Lasheras, María Teresa
Gastesi Zabaleta, Mikel
Gómez López, Itziar
Iribas Sánchez De Boado, José
López Rodríguez, José Javier
Lorente Pérez, Francisco Javier
Mauleón Echeverría, José María
Mori Igoa, Jorge Agustín
Navarro Izco, Rosa Anastasia
Palacios Sureda, Eduardo
Pineda Abel De La Cruz, Ana

Polo Guilabert, Ignacio
Prieto Sáenz De Tejada, Paz
Pueyo Danso, Marina
Romeo Ruiz, Aritz
Sánchez De Muniáin Lacasia, Juan Luis
Sanz Barrios, Cristina
Torrens Alzu, Francisco Javier
Vall Viñuela, Eduardo

ATARRABIAKO UDALERRIA

Gurbindo Jiménez, Pello
Larraia Aristu, Ángel María

ZIZUR NAGUSIKO UDALERRIA

Bermejo López, José Miguel

ADIOS-AÑORBE-ENERITZ-LEGARDA-MURUZABAL-TIRAPU-UKAR-UTERGA EREMUA

Pérez Sanz, Eduardo

ANUE-EZKABARTE-LANTZ-OLAIBAR-ULTZAMA EREMUA

Lezáun Esparza, Pedro María

ATETZ-BASABURUA-BERRIOBEITI-IMOTZ-TXULAPAIN-ODIETA EREMUA

López Lista, José Miguel

BERASKOAIN-ZIRITZA-ETXARRI-ETXAURI-GIRGILLAO-BIDAURRETA-ZABALTZA EREMUA

Arbizu Lumbier, María Aránzazu

BIURRUN-OLKOTZ / TIEBAS-MURU ARTEDERRETA EREMUA

Astráin zaratiegui, Jesús Ignacio

ZIZUR / GALAR EREMUA

Áriz Imízcoz, Ricardo

GOÑI / OLLO EREMUA

Preboste Goñi, Jesús Ignacio

IBARGOITI / ELO EREMUA

Tirapu Iguelz, Rosario

ITZA / OLTZA EREMUA

Cuende Vallejo, José María

PRESIDENTEA

Batzar Nagusiko kideen arteko bat hautatzen da, udal legegintzaldi bakoitzeko osatzeko saioan. Presidenteak erakundearen gobernua eta administrazioa zuzentzen ditu.

Javier Torrens Alzu da Iruñerriko Mankomunitateko presidente 2007ko irailaren 12az geroztik.

BATZORDE IRAUNKORRA

Presidenteak eta Batzar Nagusiko kideen artean berak hautatzen dituen batzordekideek osatzen dute. Bai Batzar Nagusian ordezkakuta dauden udalen artean eta bai aipatutako gobernu organoaren barnean dauden talde politikoen artean dagoen proportzionaltasunari egokitzen zaio osaera. Batzorde Iraunkorrek presidenteari laguntzen dio, eta Batzar Nagusiak edo presidenteak berak bere esku uzten dituen eskudantziak gauzatzen ditu.

> batzorde iraunkorreko kideak


Áriz Imízcoz, Ricardo
Ayesa Dianda, Francisco Javier
Cuende Vallejo, José María
Elizalde Urmeneta, Ana María
Elizari Reta, Miguel José
Esporrín Lasheras, María Teresa
Gastesi Zabaleta, Mikel
Gómez López, Itziar
Larraia Aristu, Ángel María

Marcos Lorenzo, Santiago
Mauleón Echeverría, José María
Mendive Rodríguez, José Antonio
Polo Guilabert, Ignacio

Romero Pardo, Manuel
Sánchez de Muniáin Lacasia, Juan Luis (Presidenteordea)
Torrens Alzu, Francisco Javier (Presidentea)

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA (IRUÑERRIKO ZERBITZUAK SOZIEATEKO PLANTILLA ORGANIKOA)

Funtzio publikoari dagokion araudiaren arabera arautzen dira Iruñerriko Mankomunitateko langile zerrenda organikoko kideen lan harremanak, eta zuzenean presidentearen mende dauden honako bost lanpostuk osatzen dute langile zerrenda organiko hori:



GOBERNU EGITURA

Iruñerriko Zerbitzuak, SA

Sozietatea zuzentzea eta administratzea honako organo hauen esku dago:

BATZAR NAGUSIA

Zuzendaritza eta administrazio organo gorena da. Batzar Nagusiko kide guztiek eta berberak osatzen dute.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Sozietatea administratzeaz arduratzen den organoa da, Batzar Nagusiari espresuki gordetako kasuetan izan ezik. Gutxienez, bederatzi administrarik, eta, gehienez, hamaseik osatzen dute. Batzar Nagusiak erabakitzen du kopuru hori.

Kideen artean, kontsumitzaileen elkarreterako ordezkari batek eta langileen bi ordezkari egon behar dute.

> administrazio kontseiluko kideak

Andía García de Olalla, José Anastasio
Biurrun Salanueva, María Asunción
Borda Garde, Francisco Javier
Cabasés Hita, Ignacio
Fernández Garcés, Arturo
Iribas Sánchez de Boado, José
Jiménez Díaz, Laura
Larrea Ruiz, Casimiro Juan
Lezáun Esparza, Pedro María
López Rodríguez, José Javier (Presidenteordea)
López Zubicaray, José Ignacio
Moreno Merelo, José Luis
Mori Igoa, Jorge Agustín
Muñoz Trigo, Pablo
Salvo Gracia, María Dolores
Torrens Alzu, Francisco Javier (Presidentea)

Zuzendari-kudeatzailea

María Teresa Donázar Pascal.

Teknika eta administrazio zerbitzu guztien zuzendari izan da. Batzar Nagusiak izendatzen du kargu hau.

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Uraren ziklo integrala

lazkoaren aldean, uraren ekoizpena %2,8 gutxitu da, baita dagokion fakturazioa ere. "Bezeroak" atalean azaltzen da hori.

Emandako uraren kalitateari dagokionez, adierazle guztiek (kloro kontzentrazioa, uhertasuna eta kalitate bakteriologikoa) erakusten dute emandako urak kalitate maila handia duela eta, indarrean dagoen legedia kontuan harturik, urte honetarako aurreikusita dauden helburuak bete direla.

Saneamenduari eta arazteari dagokionez, berriz, adierazle bilakaerak (uretan esekita dauden solidoak kanporatzea eta oxigeno-eskari biokimikoa kentzea) erakusten digu arazte maila handia izaten jarraitzen dela eta urte honetarako aurreikusita zeuden helburuak bete direla.

	2008		2009		2010	
Ur ekoizpena guztira	32.482.624		33.830.808		32.865.667	
Analisi bidezko kontrola	Laginak Parametroak		Laginak Parametroak		Laginak Parametroak	
Hornitzeko iturriak	1.779	6.663	1.692	7.225	552	4.699
Edateko ur bihurtzeko prozesua					3.514	9.358
Edateko ura tratatzea	3.014	15.451	2.841	15.820	552	12.284
Ibilgura isuriak	106	530	104	520	104	520
Banatzeko sarea	1.127	18.563	1.093	18.552	1.115	21.055
Eskaerak					255	1.928
Analisi bidezko kontrolak guztira	6.026	41.207	5.730	43.117	6.092	49.845
Kontrolen emaitzak						
Edateko uren araztegiak						
Uhertasuna (laginen%<NTU1)	99,9%		100%		100%	
Mikrobiologia (Escherichia colirik, Enterococcus, Clostridium perfringens eta koloniarik ez dago 22 gradutan<100 ucf/ml)	100%		100%		100%	
Banatzeko sarea						
Kloroa (laginen%<1mg.c12/2)	99,5%		99,5%		99,5%	
Uhertasuna (laginen%<5NTU)	99,5%		99,5%		100%	
Mikrobiologia (Escherichia colirik, Enterococcus, Clostridium perfringens eta koloniarik ez dago 22 gradutan<100 ucf/ml)	100%		100%		100%	

KONTSUMOA (M³)

	2008	2009	2010
Etxebizitzak	12.862.489	12.782.700	12.599.997
Administrazio publikoak	342.140	341.601	348.207
Interes soziala	994.543	1.022.951	1.000.310
Merkataritza-industria	7.559.261	7.120.239	7.037.204
Ureztatze pribatua	616.312	841.085	705.023
Konbinatuak	2.435.205	2.770.856	2.723.629
Udal zerbitzuak	932.833	894.856	958.998
Iturriak	99.423	107.018	76.393
Ureztatze publikoa	2.636.195	3.533.377	3.172.727
Lanak	405.464	375.022	298.267
Kontsumoaren emaitzak guztira	28.883.865	29.839.705	28.930.755

KONTSUMOA (LITRO/BIZTANLE/EGUN)

	2008	2009	2010
Etxebizitzak	126	126	122
Industria	65	62	59
Ureztatzeak	28	36	31
Kontsumoaren emaitzak guztira	237	242	230

SANOTZEA ETA ARAZTEA

	2008		2009		2010	
Arazuriko plantan araztutakoaren kontrola (m ³)	39.577.680		39.703.680		87.653.984	
Analisi bidezko kontrola	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak
Arazuriko Hondakin-urak Arazteko Planta	2.630	7.878	2.405	7.602	2.584	7.997
Industria isurketak	837	11.395	795	10.874	751	10.165
Kolektoreetan	684	11.602	701	11.385	738	11.422
Hobi septikoetan	48	277	68	878	61	732
Ibilguen kontrola	54	1.353	62	1.558	81	1.991
Lohiak eta konposta	34	34.701	65	1.304	62	1.086
Analisi bidezko barne kontrolak guztira	4.287	33.206	4.096	33.601	4.277	33.393
Kanpoko analisiak	3.706	42.477	4.029	42.309	4.083	47.688
Laborategian egindako analisiak guztira	7.993	75.683	8.125	75.910	8.360	81.081
Industria isurketen kontrola						
Bisitak enpresetara	69		67		42	
Sailkatutako jardueren txostenak	410		263		266	
Beste txosten batzuk	72		98		50	
Arazuriko araztegiko errendimenduak						
Uretan esekita dauden solidoak	97,3%		97,4%		97,7%	
Oxigeno-eskari kimikoa	94,9%		95,0%		95,4%	
Oxigeno-eskari biologikoa	97,6%		97,5%		97,9%	
Nitrogenoa	86,9%		88,2%		88,6%	
Fosforoa	86,1%		83,5%		87,7%	

HORNITZE ITURRIAK

> Artetako iturburua

Udarbe ibaiaren buruan.

- Biltzeko azalera: 100 km²
- Iturburuaren batez besteko emaria: 3.000 l/s
- Hornitzeko baliatutako batez besteko emaria: 529 l/s
- Energia hidroelektrikoa ekoizteko baliatutako batez besteko emaria: 1.796 l/s
- Udarbe ibaira isuritako batez besteko emaria: 637 l/s

> Eugiko urtegia

Arga ibaiaren buruan.

- Oinplano makotua duen grabitate-presa.
- Ibai mailaren gaineko garaiera: 44,3 m.
- Luzera: 252 m.
- Presaren bolumena: 21 Hm³
- Garaiera handiena: 628 m.
- Azalera: 123 Has.

- Batez besteko sakonera: 18 m.
- Bertan ura zenbat denboran dagoen: 2-5 hilabete.

> Itoizko urtegia

- Kokapena: Irati ibaia. Longida ibarra.
- Presa mota: grabitatekoa, betoi arruntarekin egina.
- Zimenduen gaineko garaiera handiena: 122 m.
- Bururatze luzera: 525 m.
- Bururatze garaiera: 592 m.
- Gehieneko maila normalean estalita dagoen azalera: 1.100 Ha
- Ur-maila normalean gehienez duen edukiera: 418 hm³

> iturri eta kontzesio osagarriak

Subitzako iturburua

- Batez besteko ekarpena: 6 l/s

EDATEKO URA TRATATZEA

- Edateko Uren Urtasungo Araztegia. Tratatzeko ahalmena: 1.050 l/s
- Edateko Uren Egillorko Araztegia Tratatzeko ahalmena: 800 l/s
- Edateko Uren Tiebasko Araztegia Tratatzeko ahalmena: 1.000 l/s
- Subitzako desinfekzio sistema: 7 l/s artekoa

> hornitze sarea

- Luzera, 1.551 km.
- Lotuneak, 42.567
- Biltegiak, 136 unitate. Edukiera, 262.995 m²
- Ponpatzeak, 54. Potentzia 2.9531 kW
- Emari-neurgailuak 642

> sanotze sarea

- Luzera, 1.673 km.
- Lotuneak, 51.792
- Ponpatzeak, 10. Potentzia, 75 kW

> ekaitz ura biltzeko andelak

- Txantreako ekaitz ura biltzeko andela
- V=3.000 m³ C2 bilgailura

HONDAKIN URETARAKO HORNIKUNTZAK

	ezaugarriak	kop.	zerbitzatutako herritarrak
Arazuriko Hondakin-urak Arazteko Planta	Tratatze osoa: lehen mailakoa + biologikoa (nitrifikazio desfosforizazioarekin)	1	313.746
Bakterio irazkiak	Araztegi txikiak Etxaurin eta Iberon	2	900
Hobi septikoak	Irazki biologikoa dutenak	135, 96 herritan	5.000

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Edateko uren araztegiak

EGILLORKO EDATEKO UREN ARAZTEGIA

Hornitzeko iturritik 7 kilometrora, Egillorko araztegiak Artetako iturburutik datorren ura tratatzen du etengabeko prozesuan.

> araztegiaren ezaugarriak

- Kokapena: Egillor (Goñi ibarra)
- Noiz eraiki zen: 1992
- Azalera guztira: 44.000 m²
- Tratatze ahalmena: 800 l/s. 2010an tratatutako batez besteko emaria: 502 l/s

Tratatze lineak:

- ura tratatzea: helmugako obra eta banatzea, dekantatzeko 2 unitate, eta arazteko 6.
- lohiak tratatzea: batez besteko ekoizpena 0,35 t/egun.

Lohiak, ekoiztiko 1.000 m³-ko kopuru bakoitzeko: 7,9 kg.

TIEBASKO EDATEKO UREN ARAZTEGIA

> araztegiaren ezaugarriak

- Kokapena: Tiebas udal barrutia. Alaitz mendiaren behealdean.
- Noiz eraiki zen: 2004-2005
- Azalera guztira: 44.454,78 m²
- Tratatze ahalmena: 1.000 l/s, 1. fasean 1.500 l/s-ra handitu ahal da, eta 2. fasean, 3.000 l/s-raino.
- Tratatutako batez besteko emaria:
 - 44 l/s urteko batezbestekoa
 - 199 l/s lan egindako egunetako batezbestekoa

Tratatze lineak:

- Sartzeko ubidea. Zati handienak basalantzeko burdin sareak eta solido meharretarako bahea. 2 linea, bakoitza 500 l/s-koa: emaria neurtzea, nahaste eta malutatze ganbera, flotazioa, ozonoztatzea, hondar bidez iraztea eta kloro bidez desinfektatzea.
- Lohien tratamendua: flotazio bidez lohiak loditzea eta irazkiak garbitzeko ura lehengoratzeko, loditutako lohiak homogeneizatzeko andela, zentrifugagailuetan deshidratatzea, lohiak edukiontzietan metatzea.
 - Lohien batez besteko ekoizpena: 0,19 t/egun
 - Lan egindako egunetako batez besteko ekoizpena 0,87 eguneko
 - Ekoiztiko 1.000 m³-ko kopuru bakoitzeko lohiak: 50,9 kg.

URTASUNGO EDATEKO UREN ARAZTEGIA

Eguzki urtegiko ura Urtasungo araztegiara bideratzen da, eta han malutatze, koagulazio, dekantatze eta irazte prozesuak egiten dira, gizakiok edan ahal izateko modukoa gera dadin.

> araztegiaren ezaugarriak

- Kokapena: Urtasun (Esteribar).
- Noiz eraiki zen: 1976
- Azalera guztira: 15.000 m²
- Tratatze ahalmena: 1.050 l/s. 2010an tratatutako batez besteko emaria: 486 l/s

Tratatze lineak:

- Ura tratatzea: helmuga obra eta banatzea, dekantatzeko 2 unitate, eta arazteko 6.
- Lohien tratamendua: batez besteko ekoizpena 2,24 t/eguneko.
 - Lohiak, ekoiztiko 1.000 m³-ko kopuru bakoitzeko: 43,9 kg

ZENTRAL HIDROELEKTRIKOAK

> Egillorko zentral hidroelektrikoa

Arakil ibaiaren eskuineko ertzean dago, Egillorko Edateko Uren Araztegiaren oinetan. Artetako iturburutik datozen urak eta soberan gelditzen direnak aprobetxatzen dira, 3.750 l/s arte.

- Instalatutako potentzia: 3.850 kW.
- Kontzesioa: 3.750 l/s

- Batez besteko emari turbinatua: 1.697 l/s
- Ekoizpena: 15,16 GWh.
- Iberdrolarekin partekatua.

>Eugiko zentral hidroelektrikoa

Presaren oinean dago, Arga ibaiaren eskuineko ertzean.

- Instalaturako potentzia: 1.890 kW.
- Kontzesioa: 5.250 l/s
- Batez besteko emari turbinatua: 1.550 l/s
- Ekoizpena: 4,28 GWh.

> Urtasungo zentral hidroelektrikoa

Urtasungo Edateko Uren Araztegiaren sarreran dago.

- Instalaturako potentzia: 196 kW.
- Kontzesioa: 1.673,72 l/s
- Batez besteko emari turbinatua: 572 l/s
- Ekoizpena: 0,86 GWh.

2010EKO ERRENDIMENDUA

	egillor	urtasun	tiebas	
Tratatutako ura	15.956.674 m ³	15.324.089 m ³	1.392.968 m ³	
> Análisi kontrola				
Lagin kopurua	249	248	55	
Parametro kopurua	5.541	5.519	1.224	
Emaitzak				Araudian zehaztutako maila
Kloroaren analisi bidezko kontrola	%100	%100	%100	>0,5 ppm eta >1 ppm
Uhartasunaren analisi bidezko kontrola	%100	%100	%100	< NTU 1
Mikrobiologiako analisi bidezko kontrola	%100	%100	%100	Ez dago E.Coli eta estreptokoko batere

KONTSUMITUTAKO LEHENGAIK

	egillorko araztegia	urtasungo araztegia	tiebasko araztegia
Erreaktiboak (kg)			
Polielektrolitoa	1.550	1.650	400
Soda kaustikoa	-	166.526	-
Kloroa	22.191	43.000	3.047
Aluminio polikloruroa	263.109	311.417	20.647
Oxigenoa	-	-	-
Almidoia	5.672	6.220	-

SORTUTAKO HONDAKINAK

	egillorko araztegia	urtasungo araztegia	tiebasko araztegia
Edateko uren araztegiko lohiak (kg.)	126.240	672.900	70.860

ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOA

	egillorko araztegia	urtasungo araztegia	tiebasko araztegia
Kontsumitutako energia (kWh)	453.856	531.633	382.633

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Arazuriko hondakin-urak arazteko planta

Hodi biltzaileen sareen bidez, Iruñerrian sortzen diren hondakin urak Arazuriko plantara heltzen dira, han arazteko prozesu bat egin ondotik, Arga ibaira baldintza hobeetan itzuli ahal izateko.

PLANTAREN EZAUGARRIAK

- Noiz eraiki zen: lehen mailako tratamendua: 1990 / tratamendu biologikoa: 1999
- Kokapena: Arazuri (Oltza Zendea-Nafarroa)
- Azalera: 40 Ha.
- Hartzen dituen herritarak: 344.562
- Hartzen dituen herritar baliokideak: 715.535 biztanle
- Batez besteko emaria: 1.235 l/s

> ezaugarriak

- Hondakin-urak tratatzea: lehen mailako tratatzea: aurretik tratatzea eta 6 dekantatze unitate / tratatze biologikoa: egurasteko lau putzu eta bigarren mailako dekantatzerako sei unitate.
- Lohiak tratatzea: 2 flotagailu, 3 lodigarri eta 5 digestore anaerobio. Deshidratatzea: 2 birziklagailu
- Biogasa aprobeztatzea: gasometroa, esfera eta konpresoreak. Kogenerazio planta (4 motor – 1,1 Mw eta 3 turbokonpresore – 1,5 Mw).
- Lohiak birziklatzea (biosolidoak): konposta egitea eta nekazaritzan zuzenean erabiltzea.

> 2010eko errendimenduak

- Tratatutako emaria 37.653.984 m³
- Kanpoko lohiak, Mankomunitateak tratatuak 26.024 m³
(hondakin uren araztegiaren jasotako kargaren % 8,3)

Analisi bidezko kontrola	2009		2010	
	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak
Hondakin-urak tratatzea	2.405	7.602	2.548	7.997
Biosolidoak tratatzea	65	1.034	62	1.086
Biltzaileen kontrola	701	11.385	738	11.422
Analisi bidezko barne kontrolak guztira	3.171	20.291	3.384	20.505

> SORTUTAKO BIOGASA ETA ENERGIA EKOIZTEA

- Biogasa sortzea: 6.444.660 (16.849 m³/egun)
- Autoaskitasun energetikoa: %88,0
- Prozesuan kontsumitutako energia: 24.843.188 kwh
- Ekoiztako energia: 21.855.652 kwh

KONTSUMITUTAKO LEHENGAIK KONPOSTA EGITEKO

Kontsumitutako lehengaiak konposta egiteko	2009	2010
Pinu azal birziklatua	1.080 m ³	---
Zur birrindua	831 Tn	653 Tn
Landare-hondakinak	10.171 Tn	9.094 Tn
Biosolidoak	10.332 Tn	10.629 Tn
Hondar silizeduna	1.862 Tn	1.591 Tn
Zohikatz gorria	151 m ³	115,2 m ³
Arazteko prozesuan sortutako hondakinak	2009	2010
Hondakin Uren Araztegiako hondakinak (aurretiko tratamenduaren galbaheak...)	2.112 Tn	2.219 Tn
BIOSOLIDOAK		
Laborantza estentsiboko biosolidoak	26.172 Tn	36.644 Tn

Konposta egitean sortutako biosolidoak	10.332 Tn	10.629 Tn	
Landare-hondakinak baztertzea	197 Tn	181 Tn	
Biosolidoen helmuga	2009	2010	
Miranda-Argako eremua	39%	51%	
Zangozako eremua	23%	10%	
Estellerriko eremua	6%	8%	
Orbaibar, Izarbeibar eta Iruñerriko eremua	32%	31%	
Biosolidoen kalitatea	Legezko muga (mg/kgMS)	2009	2010
Zinka (mg/Kg MS)	4.000	851	875
Beruna (mg/Kg MS)	1.200	58	51
Kobrea (mg/Kg MS)	1.750	241	223
Kromoa (mg/Kg MS)	1.500	66	48
Nikela (mg/Kg MS)	400	34	28
Merkurioa (mg/Kg MS)	25	--	1
Kadmioa (mg/Kg MS)	40	<3	<3
Kospotaren kalitatea	Legezko muga (mg/kgMS)	2009	2010
Zinka (mg/Kg MS)	1.000	450	455
Beruna (mg/Kg MS)	200	49	57
Kobrea (mg/Kg MS)	400	131	138
Kromoa (mg/Kg MS)	300	50	46
Nikela (mg/Kg MS)	100	21	21
Merkurioa (mg/Kg MS)	205	0,6	0,58
Kamioa (mg/Kg MS)	3	<3	<3
Merkaturatutako produktuak(Arazuriko konposta)	2009	2010	
Konposta saltzea	11.094 m ³	12.416 m ³	
Ontziratu gabe	90%	85%	
Xeheka	10%	15%	

URETARA ISURIAK

kopurua (m ³ /urte)	37.638.271
emaria (l/s)	1.194
Karga kutsatzailea	tona/urte
Uretan esekita dauden solidoak	%97,7
Nitrogenoa	%88,6
Fosforoa	%89,7
OEB5	%97,9
OEK	%95,4

LOHIEN ERABILERA (BIOSOLIDOAK) ETA LOHI-KONPOSTAREN KALITATEA

Biosolidoen erabilera	
Miranda-Argako esparrua	%51
Zangozako esparrua	%10
Estellerriko esparrua	%8

Orbaibar, Izarbeibar eta Iruñerriko esparrua %31

Biosolidoen kalitatea.

Biosolidoetan dauden metal kopuruen konparazioa (mg/kg/MS)

Zinka (legezko muga, 4.000)	875
Berua (legezko muga, 1.200)	51
Kobrea (legezko muga, 1.750)	223
Kromoa (legezko muga, 1.500)	48
Nikela (legezko muga, 400)	28
Merkurioa (legezko muga, 25)	1
Kadmioa (legezko muga, 40)	<3

Konpostaren kalitatea.

Ekotzitako konpostean dauden metal kopuruak (mg/kg/MS)

Zinka (legezko muga, 1.000)	455
Beruna (legezko muga, 200)	57
Kobrea (legezko muga, 400)	138
Kromoa (legezko muga, 300)	46
Nikela (legezko muga, 100)	21
Merkurioa (legezko muga, 205)	0,58
Kadmioa (legezko muga,3)	<3

MERKATURATUTAKO PRODUKTUAK (KONPOSTA-ARAZURI)

Salmentak	12.416 m ³
Ontziratu gabe	%91
Xeheka	%9

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Hiri hondakinak

Hondakinen sorrera %1,60 murriztu da aldi honetan, aurreko urtean hasitako beherazko joerari jarraituta –orduan %2,18 murriztu zen–.

Aurtengo hondakinen osaketa aztertzeko analisisiek erakusten dute papera izan dela gehien murriztu den osagarria. Nahiz eta paper-kartoi kopurua ia %6,02 gutxitu den (19.673 T. 2010ean, eta 20.934 T. 2009an), material horren berreskuratze portzentajea kasik %70 batean dago, aurreko urteekin bat eta EBK finkatutako helburuaren gainetik (%60).

Bilketa espezifikoak edo material bakar batekoak murriztu dira, %2,82 (40.420 tona aurten, eta 41.594 tona iaz), eta beira eta egurra soilik izan dira gehiago bildu direnak.

Sortutako hondakinen murrizketarekin bat, berreskuratutako materialen kopurua murriztu da iaz berreskuratutako tonekin alderatuta (%2,36); datu horien barne daude lantegian berreskuratutako eta material bakarreko bilketetan berreskuratutako materialak.

EKOIZPENA

	2007	2008	2009	2010
Sortutako hondakinen kopuru osoa	153.109	153.277	150.614	148.209
Kg/biztanle/urtea	465,5	466	436,7	424,2

OSAKETA

	2007		2008		2009		2010	
Papera-kartoa	31.879	%20,80	32.009	%20,79	29.772	%19,77	28.525	%19,3
Brikak	1.685	%1,10	1.788	%1,16	1.832	%1,22	1.407	%0,9
Plastikoa	10.060	%6,56	9.422	%6,12	11.459	%7,61	10.298	%7,0
Beira	14.519	%9,47	14.983	%9,73	14.807	%9,83	13.103	%8,9
Metalak	3.725	%2,43	3.612	%2,35	3.777	%2,51	4.044	%2,8
Ehunak	3.245	%2,12	3.162	%2,05	3.909	%2,60	4.673	%3,2
Tamaina handiko objektuak	6.344	%4,14	5.627	%3,65	5.204	%3,46	5.502	%3,7
Beste produktu batzuk	13.283	%8,67	19.079	%12,39	19.452	%12,91	16.864	%11,4
Gai organikoak	68.535	%44,71	64.287	%41,75	60.404	%40,10	63.794	%43,0
Guztira	153.277	%100	153.968	%100	150.616	%100	148.209	%100

SORTUTAKO HONDAKINAK BILKETA MOTAREN ARABERA (T)

	2007	2008	2009	2010
Gai organikoen eta gainerakoen edukiontzietan	105.685	103.606	100.782	99.903
Ontzien edukiontzietan	8.034	8.221	8.289	7.920
Material bakarrekoen bilketak	39.558	42.142	41.545	40.386

BERRESKURATUTAKOAK, PRODUKTUAREN ARABERA (T)

	2007	2008	2009	2010
Berreskuratutako papera/kartoa guztira	21.738	22.063	21.162	19.893
Beira guztira	7.034	7.762	8.170	8.553
Plastikoa guztira	1.273	1.889	2.346	2.494
Brika guztira	363	473	624	658

Metalak guztira	939	999	1.040	1.002
Tamaina handiko objektuak guztira	2.407	2.329	2.272	2.279
Inausketa	5.558	6.152	5.440	4.625
Egurra	884	1.666	2.569	3.089
Berreskuratutako produktuak guztira	40.196	43.333	43.623	42.593
Berreskuratutako kg/biz/urtea	123,6	127,1	126,5	121,9
berreskuratze indizea ontziak guztira (%)	46,1	51,1	50,9	55,8

ZABORTEGIRA BIDERATZEA

	2007	2008	2009	2010
Zabortegeira bideratua (%)				
(Zabortegeira ez doan bildutako zabor osoaren %)	42,5	45,9	45,11	47,62

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Hiri hondakinak biltzea eta tratatzea

BILKETA ZERBITZUA 2010EAN

> edukiontzi kopurua

- Gai organikoak: 2.365 atzetik / 3.661 albotik
- Ontziak: 1.061 atzetik / 2.301 albotik
- Papera-kartoa 223 atzetik / 3.076 albotik / 7.38 edukiontzi espezifiko
- Beira: 2.363
- Egurra: 162
- Inauste hondarrak: 147

> kamioi flota

- Bilketa arrunta: Atzetik kargatzeko 21 kamioi + albotik kargatzeko 32 kamioi + bilketa aurreko 16 kamioi
- Besoa duten kamioiak: 4
- Hidrogarbigailua: 3
- Edukiontziak garbitzekoak: 3
- Papera biltzekoak: besoa duten 2 kamioi + (alboko karga duen baten bat ere erabiltzen da)
- Beira biltzekoak: biltzeko 2 + garbitzeko 1 (Ecovidriok kudeatuta 2010eko ekainetik)
- Inauste-hondarrak biltzekoak: 2 (kontratutako enpresa)
- Tamaina handikoak biltzekoak: 10 (kontratutako enpresa)
- Garbigune mugikorak: 4
- Elikagaien bankua: 3 hozkailu-kamioi (zerbitzua 2010eko abendutik)

> zerbitzuko instalazioak

Garaje habeartea

- Kokalekua: Garraioaren hiria
- Azalera: 6.000 m²
- Sailak: bulegoak, zerbitzu nagusiak, garajea eta edukiontziak garbitzeko gunea.

HIRI HONDAKINAK TRATATZEKO ZENTROA, 2010

> Gongozko zentroan tratatutako hondakinak (t)

	2008	2009	2010
Hiri hondakinak	120.662	100.782	107.823
Beste hondakin batzuk, hiri hondakinen atzekoak	82.131	55.578	54.586
Beste toki entitate batzuetako hiri hondakinak	11.182	14.274	12.200
Hondakinak guztira	213.975	170.634	174.629

> garbigunea

	bisitak guztira			botatakoak guztira		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010
Eroski	31.676	37.864	38.459	57.293	71.890	72.121
Leclerc	27.363	31.799	34.962	49.153	55.157	59.483
Garbigune mugikorak	62.790	73.647	83.415	104.720	116.140	121.788
Guztira	121.829	143.310	156.836	211.166	243.187	253.392

4 zerbitzuan: Hiper Iruña, Hiper Leclerc eta 2 garbigune mugikor goizean eta 1 arratsaldean

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Eskualdeko hiri garraioa

36.591.990 bidaiari garraiatu ziren 2010ean. Zertxobait jaitsi zen kopurua iazko aldi berberaren aldean, %0,91, zehazki esanda. Dena dela, horretan eragina izan dute greba orokorra izandako bi egunek (bata ekainean, eta bestea irailean) eta TCC enpresa kontzesiodunaren langileek sanferminetan izandako bi greba-egunak kontaktzen badira. Beraz, esan daiteke beherapena %0,35ekoa izan dela zerbitzua eragina izan duten gertakari bereziak alde batera uzten badira.

Berrikuntza nagusi gisa, Zizur Nagusiko Ardoi urbanizaziora doan zerbitzua sortu zen apirilaren 26an; horretarako, 15 eta 18 lineak aldatu ziren, eta 24 linea sortu zen. Bestalde, saiatu ginen aireporturako linea Ubarmin Klinikaraino luzatzen, baina ohartu ginen ez zela posible egitea hiri garraioaren ezaugarriak mantenduta, ezta behar diren segurtasun neurriak izanda ere. Horregatik, Garraio Planean aurreikusitako ekintza hori baztertu zen; gainera, kontuan hartu zen badagoela hiriarteko zerbitzu bat ospitale alde hori estaltzen duena. Bestalde, esparrua ez zen zabaldu Elkano eta Altzuzako hiriguneetara. Azkenik, Arangurengo Udalaren, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñerriko Mankomunitatearen arteko hitzarmena sinatuta, zerbitzu pilotu berria sortu zen Mutiloako zerbitzugunera eta Taxoareko Berroa zerbitzu-industrialdera joateko. Zerbitzu berri hori 2010eko irailaren 6an hasi zen funtzionatzen, 11 lineatik (Ezkaba – Sario eraikina) egindako luzapen berri baten bitartez.

Inbertsioei dagokionez, 2010eko Planak ez zuen aurreikusten flota berritzea 2010ean, nahiz eta bai onartu den 2011. eta 2012. urteetan hasi behar den flota-berritzea, eta horren lizitazioa abiatu da.

Ordaintzeko moduari dagokionez, 2010ean bukatu da kontakturik gabeko txartelaren bidez ordaintzeko sistema ezartzeko prozesua. Hilabete batzuetan bi sistemek batera funtzionatu ondoren, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera kontakturik gabeko garraio-txartela erabiltzen ahal zen Eskualdeko Hiri Garraioa ordaintzeko. 2010. urtean, herritarrek emandako txartel zaharren saldoak itzuli dira, eta txartel zaharrak dohaintza gisa emateko aukera eman zitzaizen herritarrei, Mankomunitateak txartel horien saldoak gizarte helburuetara bidera zitzaizkien.

Ustiatzerako Laguntza eta Informazio Sistema (SAEI) ezartzeari dagokionez, apirilean sistema proba gisa hasi zen funtzionatzen, eta lineak iragateko kalkulatu diren denbora errealean berri ematen hasi zen, geralekuetan jarritako informazio tauletan Era berean, datu horiek abiapuntu dira beste bitarteko batzuen bidez informazioa eskaintzeko, esaterako, garraio publikoaren ibilbideak planifikatzeko tresnaren bidez (Google Transit).

Bestalde, 130 metro inguru dituen bus-erreia egin zen Iruñeko udalerrian, Gipuzkoako etorbidearen eta iparraldeko ingurabidea gurutzatzen diren aldean, Iruña eta Berriozar arteko mugan.

Azkenik, Iruñerriko Hiri Garraioaren 2011-2012 plana onartu da.

INFORMAZIO OROKORRA

	2009	2010	gehikuntza
Arreta esparrua	9.159,92 Ha.	9.159,92 Ha.	%0,00
Arreta jaso duen biztanleria	324.814 biz.	328.540 biz.	%1,15

ZERBITZUAREN ESKAINTZA

Garraio sarearen ezaugarriak	2009	2010	gehikuntza
Lineak (eguneko/gaueko)	23 / 10	23 / 10	%0 / %0
Eguneko sarearen azalera (km)	222,03	235,47	%6,05
Gaueko sarearen azalera (km)	127,41	129,36	%1,53
Eguneko zerbitzuaren ordu tartea	06:30 - 22:30	06:30 - 22:30	-
Gaueko zerbitzuaren ordu tartea	22:30 - 00:30 (ig,al,ar,az,og)	22:30 - 00:30 (ig,al,ar,az,og)	-
	22:30 - 04:30 (ostiralak)	22:30 - 04:30 (ostiralak)	-
	22:30 - 06:30 (larunbatak)	22:30 - 06:30 (larunbatak)	-

Flota	2009	2010	gehikuntza
Autobus kop.	141	141	0
Estandarrak (12 m)	78	78	0
Artikulatuak (18 m)	60	60	0
Minibusak (9 m)	3	3	0
Biodiesela	50	141	%182,00
Egokitua (zoru baxua)	136	136	0
Batezbesteko adina (urteak)	5,7 urte	6,7 urte	%17,54


Azpiegitura	2009	2010	gehikuntza
Geraleku kopurua	491 (ohiko EHGan 490 + NUP kanpoaldeko 1)	503	%2,44
Markesina eta zutoina dituztenak	2	2	0
Markesina besterik ez dutenak	264 (262 finko + 2 behin behineko)	282	%6,82
Zutoina besterik ez dutenak	221 (204 finko + 7 behin behineko berri + 10 behin behineko obregatik)	215	%-2,71
Altzaririk gabe	4	4	0
Instalazioak	10.000 m ² (Ezkaba)	10.000 m ² (Ezkaba)	0

Zerbitzu maila	2009	2010	gehikuntza
Egindako km kop.	7.832.919	8.058.737	%2,88

Eguneko zerbitzuan	7.536.71	7.764.307	%3,02
Gaueko zerbitzuan	296.204	267.496	%-0,56
Ibilgailuen zerbitzu-orduak	601.027	614.766	%2,29
Eguneko zerbitzuan	579.702	593.682	%2,41
Gaueko zerbitzuan	21.324	19.081	%-1,04

Zerbitzu eskaera	2009	2010	gehikuntza
Autobusean igota	36.927.280	36.591.990	%-0,91
Eguneko zerbitzuan	36.225.743	35.891.516	%-0,92
Gaueko zerbitzuan	701.537	700.474	%-0,15
Sarean egindako bidaiak	33.907.492	33.139.269	%-0,72

TXARTELEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA



Kudeaketa adierazleak	2009	2010	gehikuntza
Per capita erabilpena (ig/hab)	113,69	111,38	%-2,03
Aldaketarik gabeko bidaiak, per capita (bid/bizt)	104,39	100,87	%-1,85
Egindako km-en kopurua, per capita	24,12	24,53	%1,72
Zerbitzu orduak, per capita	1,85	1,87	%1,13
Batez besteko lastertasun komertziala (km/h)	13,03	13,11	%0,58
Ibilaldiak betetzea	%100,00	%100,00	0
Puntualtasun indizea	%90,84	%91,22	%0,42

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Taxi zerbitzua

2010ean, taxi-zerbitzuaren tarifa berriak onetsi ziren 2011. urterako. 2010eko egoera ekonomiko berezia zela eta, eta horrek zerbitzuan izandako eragina kontuan hartuta, Iruñerriko Mankomunitateak erabaki zuen ekainera aurreratu behar zuela taxi zerbitzuari buruzko eskariaren eta gogobetetzearen inguruko ikerketa, zerbitzuaren egoerari buruzko datu eguneratuak izate aldera. Aurreko urteetan tarifetarako dagoeneko erabilia zen kostu-egituratik abiatuta, baita aurreko azterketan lortutako datuetatik ere, tarifa egituraren proposamen berria egin zen Iruñerriko baterako taxi zerbitzua emateko lurralde eremuan; honako bi kontuei buruzkoak izan ziren erabilitako irizpideak berrikuntzak egiteko: finantza gastuak kalkulatzeko sistema eta zerbitzuaren eskaera nola hartu kontuan. Horrela, tarifetarako ezarri zen batez besteko igoera %3,8koa izan zen (taxi sektoreak %8,87ko igoera eskatzen zuen hasieran, eta tramitazio prozesuan zehar %6,52ra murriztu zuen). Taxi elkarteekin hala adostuta, batez besteko igoera hori tarifen egituran sartu zen; horrela, gehienbat ibilitako kilometroaren prezioan eta 1. tarifako itxaron-orduaren prezioan kontzentratu ziren (gainerako kontzeptuak –bandera jaitsiera eta telefonoz hitzartzeagatik gehigarria– bere hartan gelditu ziren. Neurri txikiago batean 2. tarifaren kontzeptuetan eragin zuen igoerak, eta gainerakoa tren geltokiko gehigarriaren handitze nabarmen batean gauzatu zen.

Taxiaren sektoreko elkarteak zein kontsumitzaileen elkarteei horren berri eman ea haiei entzun ondoren, aurkeztutakoa legazioak aztertu ziren, eta 2011ko tarifa proposamena aurkeztu zen, Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak abenduaren 16an onetsi zuena; 2011ko urtarrilaren 10ean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Bestalde, baimena eman da taxi zerbitzua eskaintzen duten ibilgailuetan publizitatea jartzeko. Era berean, sektoreko profesionalekin aztertu da mugikortasun urriko erabiltzaileendako laguntzen kudeaketa hobetzeko aukera (bono-taxia). Bestalde, 2010eko apirilean “Berdintasunean garraiatzen” prestakuntza jardunaldia egin zen. Jardunaldian, hainbat jarraibide proposatu zitzaizkien sektoreko profesionalei, tratu txarrak pairatu eta garraioaren zerbitzua erabili duten emakumei laguntzeko.

ZERBITZUAREN ESKAINTZA

LIZENTZIA KOP.: 315

313 titular eta ordezkari 2 ibilgailu.

313 ibilgailuetatik:

- 252 estandarrak dira
- 26 eurotaxiak dira (egokituak)
- 9 leku dituzten 7 ibilgailu.
- 28 hibrido (gasolina + elektrikoa)

2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

Iruñerriko ibai parkea

2010ean 22 kilometrokoa zen parkeak hartzen zuen eremua, eta Ultzama, Arga eta Elortz ibaietan barna, luzetarako banaketa honekin bat, udalerrien arabera:

Burlata	2.008 m
Uharte	4.891 m
Barañain	2.312 m
Eguesibar	165 m
Esteribar	3.262 m
Ezkabarte	6.186 m
Atarrabia	1.234 m
Zizur Nagusia	2.033 m

Jolaserako 20 eremu daude ibilbide osoan. Hiri altzariak dituzte, eta, hartara, erripa gunehorietatik gozatzeko aukera ematen dute.

Kudeatzeko alorrak honako hauek dira:

- Berdeguneek, altzariak eta kale-argiak behar duten mantentze-lana.
- Atarrabiako Pilategian dagoen Ibai Parkeko Ingurumen Informazio eta Heziketarako Zentroan herritarrek hartzea. Iruñerriko ibaiei buruzko heziketarako jarduerak egitea.
- Kultura jarduerak egitea eta ibaiei lotutako ondarea kontserbatzea (Erdi Aroko zubiak).
- Uholdeen eta haize gogorren ondorioz egin beharreko aparteko lanak egitea.

Parkearen kudeaketa

Iruñerriko Mankomunitateak parkea kudeatzen duen laugarren urtea izan da 2010. urtea, eta Nafarroako Gobernuak NILSA sozietate publikoaren bitartez finantzatu ez duen lehenbizikoa.

Urtean zehar bi egintza egin dira kudeaketa zerbitzua hobetzeko. Alde batetik, inbentario kartografiko bat egin da, funtsezkoa baita kontserbatzeko eta mantentzeko lanak egiteko, baita tokian tokiko urbanizazio planak koordinatzeko ere; bestetik, zerbitzuari buruzko konpromiso batzuk erakusten zaizkie herritarrei, "zerbitzuen karta" baten bidez.

Kartografia – inbentarioa

Parkearen kartografia-inbentario bat egin da GIS formatuan, horren elementu guztiak islatuta: PSIS planaren mugak, ibai parkearen luzera eta bideak, aisiarako eremuak eta hiri altzarien elementu guztien inbentarioa. Horrela, zerbitzu hori Mankomunitatearen GIS korporatiboaren barnean gelditu da.

Zerbitzuen karta

Ibai parkearen "zerbitzu karta" egin da; horretan, Mankomunitateak herritarren aurrean hartutako konpromisoak ageri dira. Karta horrekin zerbitzua gainbegiratzea errazten da horren jarraipena eta analisisa egiteko ezarritako adierazleak oinarri hartuta.

Mantentze-lana

Mantentze-lana normaltasun osoz egin da. Ez da uholde handirik izan eskualdeko ibaietan azken urtean zehar. Otsailaren 27an izandako ziklogenesi lehergarriaren (Xynthia) fenomenoak azpimarra daiteke; kalte handiak eragin zituen zuhaitzetan eta hiri-altzarietan. Azkenik, 2010ean zehar hiri-altzarietan egindako kalte bandalikoak eta lapurretak nabarmendu daitezke; izan ere, jauzi kualitatiboa gertatu da aldi horretan. Kalte horien balio ekonomikoa 19.454 eurokoa izan da, gehi BEZA.

ALDERDI EKONOMIKOAK

2010eko aurrekontua 377.843,66 eurokoa izan zen. Hori izan da Nafarroako Gobernuak NILSA enpresa filialaren bitartez Ibai Parkea finantzatu ez duen lehenbiziko urtea.

2009ko irailaren 28an Parkearen Batzordeak egindako batzarrean adostu zenez –horretan 2010eko aurrekontuak onetsi ziren–, Mankomunitateak bere gain hartu zituen parkearen kudeaketatik eratorritako gastu hauek: Atarrabiako pilategiaren mantentze-lana, parkearen ingurumen-hezkuntza, kolektiboekin izandako ekintzak, baita parkearen kudeaketatik eratorritako langileen gastu guztiak ere.

Modu berean, inbertsio gastu guztiak zuzenean egin ditu Iruñerriko Mankomunitateak, edo horren bitartez egin dira, Nafarroako Gobernuak edo Ingurumen Ministerioak ordaindu dituztenean gastuak.

Proiektu estrategikoak

Inbertsio garrantzitsuenak bi proiektu hauen ingurukoak izan dira: San Andres errota zaharberritzea (Atarrabia-Uharte), parkeko informazio zentro gisa; eta Iruñerriko Ibai Parkea handitzea.

San Andres errota zaharberritzeko proiektua

San Andres errota zaharberritzeko obrak egin dira urtean zehar; 2011ko maiatzean inauguratuko da hori. Honako hauek izan dira obraren bi lan handienak: estaldura sendotzeko proiektua, 2004. eta 2005. urteen artean egin, 219.000 euroko zenbatekoa izan zuena –%50 diruz lagundu zuen EBK, FEDER funtsen bitartez–; eta erakusketa eta arretarako gunehorietatik gozatzeko, 2010ean hasita, eta, aurreikusten denez, 1.200.000 euroko zenbatekoa

izanen duena (Nafarroako Gobernuak diruz lagundurik).

Ibai Parkea zabaltzeko proiektua

2010ean Iruñerriko Ibai Parkea handitzeko PSIS planaren tramitazioa bukatu zen, Nafarroako Gobernuak onetsi eta gero. Gobernuaren diru-laguntza batetik abiatuta idatzi ziren obra-proiektuak. Proiektu horiek idaztearen kostua 370.995 eurokoa izan zen. Iruñerriko Mankomunitatearen Batzorde Iraunkorrak onetsi zituen proiektu horiek.

Lehen fase batean Argako korridoreari ekiteko ideiarekin, Nafarroako Gobernuaren eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aurrean tramitatu ziren Arga beheko aldeari (Barañain-Etxauri) eta Arga garaiko aldeari zegozkien proiektuak, eta beharrezkoak ziren baimenak lortu dira.

Honako hauek dira orain arte egindako obrak:

- Bideak Arga beheko tartean hartu behar dituzten lurak hartzea (Barañain-Etxauri); Nafarroako Gobernuak ordainduko du 236.883 euroko gastua, eta, horren osagarri, beste 50.000 euro ordainduko ditu entitate honek desjabetze horrek behar duen balio justuaren bitartez.
- Arazuriko zubia zaharbertzeko obra egitea, Ingurumen Ministerioak egina (500.000 euroko zenbatekoa).

2010eko ekitaldiaren barnean Barañain-Arazuri tarteko lanak hasteko zain geunden, 4 km-koa; proiektu hori, Ingurumen Ministerioak hala eskatuta, horri eman zitzaion udazkenean.

HANDITZEAREN TARTEAK

Tarteak	Metro
Arga behekoa	17.705
Arga garaia	8.604
Ultzama	7.045
Sadar	6.620
Urbi	9.019
Elorz	15.856
Guztira	64.849



2010EKO KUDEAKETA TXOSTENA

2010ean zehar egindako lanak

2010eko ekitaldiaren barnean egindako edo hasitako lanen zerrenda.

> sare nagusiko hornikuntza

- Hornidura Irure eta Akerreta herrietara
- Erreniega mendiaren hegoaldeko biltegien telekontrola (Adios, Tirapu, Añorbe, Ukar eta Eneritz)

> hornidurako eta saneamenduko sareak berritzea

- Alde Zaharreko sareak; 2. etapa-2.fasea (Curia, Navarrería, Mañueta, Carmen kaleak, San Jose plaza)
- Alde Zaharreko sareak; 4. etapa -2. eta 4. faseak (Campana eta Ansoleaga kaleak)
- Muru Arterderretako sareak (II. fasea)
- Gipuzkoako etorbideko hornidura sarea berritzea
- San Kristobal kaleko hornidura sarea berritzea
- Zabaltzako hornidura sareko zati bat berritzea
- Eloko sareak (Las Eras aldean)
- Sorauengo Larzabal kaleko saneamendu sareak (II. fasea)
- Txantreako hornidurako eta saneamenduko sareak (Milagro kaletik Irunberri kalera)
- Erreginaren aldapako hornidurako tutua berritzea
- Erreginaren aldapako kolektorea berritzea
- Erregistro-putzu Aretako industrialdeko zubian

> sare nagusiko saneamendua

- Larunbeko araztea
- Berriozarko eta Berriobeitiko kolektoreak

> hondakinak

- Iruñeko Alde Zaharreko bilketa pneumatikoa
- 16. gelaxka eta sarbideak egokitzea Gongorako zentroan
- 14. gelaxka egokitzea Gongorako zentroan
- 13. gelaxkaren estaldura Gongorako zentroan
- 15. gelaxkatik gasa ateratzea Gongorako zentroan
- 13. gelaxkan biogasa hartzea eta badauden lineak aldatzea Gongorako zentroan

> beste zenbait lan

- San Andrés errota zaharberritzea
- Artetako iturburuko etxean igogailua instalatzea
- Gela egokitzea eta irisgarritasuna hobetzea Urtasungo araztegian
- Suteen alarmaren errefortzua Arazuriko hondakin-uren araztegian
- Mendillorriko biltegiatako estaldurak konpontzea
- Gongorako araztegiaren hegoaldeko errepideko argiteria handitzea

ADIERAZLE EKONOMIKOAK

Sarrera

Ekonomia adierazleei eskainitako atalean nabarmendu behar da Iruñerriko Mankomunitateak emandako zerbitzuen gizarte eragina (hemen azaldutako azterketan espresuki adierazita gelditzen da). Hala eta guztiz ere, txosten honetan Urteko Kontuak eta Auditoria txostena ageri dira, eta horiek ematen dute emandako zerbitzuen eta Iruñerriko Mankomunitatearen eta horren sozietate kudeatzailearen ekonomia eta finantza egoeraren gaineko informazio osoa.

Iruñerriko Mankomunitatearen helburuak hori osatzen duten erakundeek agindutako zerbitzuak ematera bideratuta daude. Ahalik eta modurik eraginkorrenean eman behar ditu, baliabideak erabilia, ahalik eta gutxiena gastatuta, baina aldi berean horien kalitate gorenari eutsita. Lan hori guztia ekonomia orekaren barnean egin behar da, epe luzerako bideragarritasuna ziurtatzeko moduan. Agindutako zerbitzuetan kalitate maila handia lortzeko eta zerbitzu publiko berrien kudeaketa onartzeko gaitasuna izateko bidea ematen du horrek. Txosten honetan ageri diren zenbait parametroren arabera neurtzen dira maila horiek. Izan ere, parametro horietan nabarmentzen da erakundeak ahalegina egin duela kalitatean eta bezeroak askietsita uztean, eta aipatutako helburuak lortuko dituzten inbertsioetara bideratzen dituela aukerak.

2010eko ekitaldian zehar, 344 mila euroko emaitza negatiboa gertatu da.

ADIERAZLE EKONOMIKOAK

Adierazle ekonomikoak

SALMENTA GARBIAK (MILAKA EUROTAN)

	2009	2010
Uraren ziklo integrala		
Hornitzea	18.143,01	18.018,38
Sanotzea	5.813,17	6.002,50
Lotuneak	1.407,49	1.268,23
Hondakinak		
Zaborren tasak	22.863,89	25.056,62
Botatzea eta azpiproduktuak	3.911,79	4.487,40
Elektrizitatea	2.514,76	2.528,33
Bestelakoak	392,56	179,78
	55.046,67	57.541,25

KOBRANTZA URTEAN FAKTURATUTAKO ZENBATEKO OSOAREN GAINEAN ALDIAN BEHINGO ZERBITZUETAN

Kobranten indizea (%)	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Kobranta urtean fakturatutako zenbateko osoaren gainean aldiari behingo zerbitzuetan	97,24	97,68	97,74	97,62	98,08	98,78

HORNIKUNTZAK (MILAKA EUROTAN)

	2009	2010
Beste enpresa batzuek egindako lanak	15.431,36	15.460,02
Ura erostea	1.060,92	1.246,40
Gainerako erosketak	2.680,13	2.804,69
Guztira	19.172,41	19.511,11

LANGILEEKIN LOTUTAKO GASTUAK (MILAKA EUROTAN)

	2009	2010
Soldata gastuak		
Lansariak eta soldatak	17.007,51	16.782,56
Gizarte kargak eta hornidurak	6.785,42	6.186,18
Guztira	23.792,94	22.968,75

Ustiatze gastuen estaltze maila (1)

	2009	2010
	%88,53	%89,73

(1) Adierazle hau kalkulatzeko, ez dira sartu ez diru laguntzak ez hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak, nahiz eta kontabilitate plan berrian (1514/2007 Errege Dekretua) ustiatze sarrera gisa hartuak izan.

ZORPETZEA (%)

	2009	2010

ZERGAK (MILAKA EUROTAN)

	2009	2010
Zergak		
BEZ	-900,74	-1.002,89
PFEZ	2.971,68	2.945,30
Sozietateen gaineko zerga	145,75	129,92
Zergak guztira	2.162,69	2.072,33

JASOTAKO INBERTSIOAK ETA DIRU-LAGUNTZAK (MILAKA EUROTAN)

	2009	2010
Inbertsioak		
Uraren ziklo integrala		
Sare nagusiko hornidura	1.908,48	462,76
Sare nagusiko saneamendua	814,86	1.042,41
Tokiko sareak	5.135,83	3.881,85
Hondakinak		
Bilketa	2.629,92	11.728,78
Tratamendua	1.469,00	599,75
Ibai parkea		1.004,67
Beste inbertsio batzuk	1.238,91	5.961,87
Inbertsioak guztira	13.197,00	24.682,10
Diru-laguntzak		
Sare nagusiko hornidura	907,06	792,72
Sare nagusiko saneamendua	842,35	181,46
Tokiko sareak	2.256,93	1.359,19
Hondakinen tratamendua	330,64	4.745,14
Ibai parkea	47,86	373,56
Beste inbertsio batzuk	227,01	714,83
Jasotako diru-laguntzak guztira	4.611,84	8.166,90

	2009	2010
Diru laguntzen zatia inbertsioak finantzatzean %	%58,25	%56,55

INGURUMENA

Ingurumenaren aldeko neurriak

INGURUMEN KUDEAKETAKO SISTEMA EZARTZEA

2006. urtean, SCPSAko zentro desberdinetan ingurumena kudeatzeko sistema ezartzen hasi zen. Hain zuzen ere, egiten diren jarduerak ingurumenean izandako eragina ahalik eta gehiena murriztea zen sistema horren xedea.

Hasteko, edateko uren araztegietan, hiruretan, ezarri zuten sistema, eta, 2007an, Arazuriko Hondakin Uren Araztegiari. 2008an, Gongorako Hiri Hondakinak Tratatzeko Zentroko hasierako ebaluazioa egin zen. Agustindarren Lantegiko hasierako ebaluazioa 2009an bukatuko da.

SCPSA sozietatean ingurumena kudeatzeko sistema ezartzeak antzeko eskema bati jarraitzen dio zentro guztietan:

1. Hasierako diagnostikoa egitea eta ingurumen adierazle adierazgarrienak zehaztea
2. Ekintza plana / Lan-kronograma
3. Beharrezkoak diren dokumentuak egitea
4. Zuzentzeko neurriak ezartzea
5. Sistema gainbegiratzea eta horren jarraipena egitea, eta langileei prestakuntza ematea
6. Zentro bakoitzari dagokion urteko ingurumen txostena egitea

2010ean, adierazlerik nabarmenenen jarraipena egin da zentro bakoitzean.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK EKOIZTEA

Energia berriztagarriak ekoizteko ditugun iturrien errendimendua, ustiatze hidraulikoa (Urtasun, Egillor eta Eugi) eta hondakinetatik sortutako biogasa (Arazuriko Hondakin Uren Araztegia eta Gongorako Hiri Hondakinak Tratatzeko Zentroa) biltzen ditu atal honek.

Ura ustiatzea

Bi zentral hidroelektrikok, Eugik eta Egillorrek, energia ekoizten dute Eugiko urtegiko eta Artetako iturburuko ur soberakinetatik, hurrenez hurren. Hirugarrenak, Urtasungoak, tratatzeko plantara ura sartzea baliatzen du, hau da, turbinak eragiten die lehen, eta, gero, tratatu egiten da kontsumitu ahal izateko.

Ondoko taulan, sortze hidroelektrikoaren bilakaerak 2005etik izan duen bilakaera erakusten da:

Datuak (GWh)	2005		2006		2007		2008		2009		2010	
Eugiko ZH	4,2		2,4		4,0		5,2		4,1		4,3	
Urtasungo ZH	1,1	21,5	0,95	14,9	0,95	18,3	1,5	24,0	0,92	20,2	0,87	21,1
Egillorko ZH	16,2		11,5		13,3		17,8		15,2		16,0	

Egillorko zentralak sortutako energia hidroelektriko guztiaren %76 ekoiztu du.

Hondakinak ustiatzea

Arazurin hondakin-urak araztuta sortzen diren lohien digestio anaerobioak eta Gongorako zabortegian utzitako hiri

hondakinen materia organikoaren deskonposizioak sortzen dute biogasa.

Biogas horrek %50-60 arteko metano kopurua du, batez beste, eta adierazitako tokietan dauden kogenerazio plantetan elektrizitatea eta beroa sortzeko erabiltzen dute.

Ekoiztutako energia GWh	2009	2010
Hondakin Uren Araztegia. Arazuri.	20,8	21,9
Hiri Hondakinak Tratatzeko Zentroa. Gongora	5,2	5,8
GUZTIRA	26,0	27,7


Energia berriztagarrien ekoizpena, guztira:

Azaldutakoaren arabera, 2010ean 48,8 Gwh sortu dira energia berriztagarrietatik abiatuta, %57 hondakinetatik abiatuta (Gongorako lohiak eta hondakin organikoa), eta %43 jatorri hidraulikotik.

Ondorengo taulan erakusten da Iruñerriko Zerbitzuak SA enpresan egondako energia berriztagarrien bilakaera 2005etik.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Zentral hidroelektrikoak	21,5	14,9	18,3	24,0	20,2	21,1
Hondakinak	22,5	22,1	23,7	26,0	26,0	27,7
GUZTIRA Gwh	44,0	37,0	42,0	50,0	46,2	48,8

Jarraian, grafikoki erakusten da bilakaera hori:



ARAZTEGIKO LOHIAK ETA LOREZAINZAKO HONDARRAK BIRZIKLATZEA ARAZURIKO HONDAKIN UREN ARAZTEGIKO KONPOSTAJE PLANTAN

Arazurin sortutako lohi kopurua 45.273 tona izan da 2010ean. Horietatik, 10.629 tona konposta egitera bideratu dira, araztegia jasotako lorezaintzako 9.094 tona hondarrekin batera. Zuzenean nekazaritzan erabiltzeko 36.644 tonak nekazaritzako ongarri moduan banatu dira Iruñerrikan kanpo dauden 1.669 hektareatan, nabarmenki nekazaritzakoak diren lurretan botatzeko (Tafalla, Izarbeibar, Miranda-Arga, Zangoza...).


Arazuriko Esperimentu Lursailean egindako saioak eta Miranda-Argako zein Ledeko Udaletako lursail batean egindako

aplikazioen jarraipenak oinarri hartuta egin dira nekazaritzari buruzko gomendioak. Horien emaitzak nekazarientzat antolatutako prestakuntza saio batean azaldu ziren. Nafarroako Gobernuako Nekazaritza Institutu Teknikoak antolatu zuen saioa, eta Irunberriko Coop. Sierra Leyre-n egin zen. Maiatzaren 18an egin zen, eta eskualde eremu horietako 20 nekazari laguntzailek eta nekazaritza agentek parte hartu zuten.

Konposta egiteko, lorezaintzako hondarrak erabili dira, hondar hautatuak eta birrinduak. Compost-Arazuri produktuaren 12.416 m³ (7.450 tona) merkaturatu dira, Nafarroako paisaia eta lorezaintza alorretarako. Produktu horren zati bat berrelikatzeko merkaturatu da (hondar silizedunarekin nahasia) eta bai landatzeetarako substratu moduan ere (konposta+turba).

Nabarmendu behar da xeheka saldu den konposta, ontziratuta, araztegi bertan. Hain zuzen ere, 20 kilogramoko 29.135 zaku merkaturatu dira (2009an baino %10 gutxiago). Hartara, esan liteke urteko goiz guztietan herritarrentzat irekia dagoen saltegi moduan funtzionatu duela zentro honek.

Konpost salmentaren bilakaera Arazuriko Hondakin Uren Araztegiaren (m³):



Nekazaritza Institutu Teknikoaren (ITGA S.A.) eta Iruñerriko Mankomunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu da, hiriko hondakin uren araztegi lohiak nekazaritzako laboreetan aplikatzeko gida bat egiteko. Proiektuak Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioaren laguntza izan du, eta Lohien II. Plan Nazionalaren barnean dago. Lanean bi urte eman ondoren, Ministerioari eman zaio gidaren zirriborroa, berrikus dezan.

Era berean, nabarmendu behar da entitate horrek parte hartu duela 359/2010 Foru Agindua, uztailaren 26koa, sortzeko kontsultetan eta alde zuzeneko eztabaidan. Izan ere, agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritzan lohiak erabiltzea arautzen du.

Azkenik esan behar dugu ikerketa batean parte hartu dugula Labaqua S.A. enpresarekin "CENIT: Teknologia Garapenak Ur Autoiraunkorraren Hiriko Ziklorantz (SOSTAQUA)" proiektuan ingurumen eta osasun arriskua ebaluatzeko, Hondakin urak arazteko zentroko lohien kudeaketari dagokionez. Horretarako, Arazuriko instalazioko lohien laginak hartu eta analizatu dira. Aurten jarraitu dute zenbait urte iraunen duen proiektu horretan (2007-2010) aurreikusitako lanek.

HONDAKINEN EKOIZPENARI AURRE EGITEA: ETXEKO KONPOSTAJEA

> 2006. urtea

2006ko ekainean, etxeako konposta egiten hasi zen Iruñerriko Mankomunitatean, Ingurumen Ministerioarekin sinatutako hitzarmen baten bidez.

Deialdia egin zen, ekainean, 8 hilabeteko esperientzia pilotua egiteko. Ondorioz, 200 boluntariok eman zuten izena, eta horietako 80 udalerrri hauetatik hautatu ziren: Zizur Nagusia, Noain-Elortzibar, Egues, Beriain eta Aranguren.

Interesa erakutsi zuten gainerako pertsonak Iruñerriko Mankomunitateak etxeko konposta egiteko antolatzen duen kanpainan sartu ziren, 2006ko udaberrian. Arrakasta handia izan zuenez, beste kanpaina bat egin zen, 2006ko udazkenean.

Horrela, 200 familiak (600 pertsona inguruk) parte hartu zuten etxeko konpostaren kanpainaren aurreneko urtean.

> 2007. urtea

2007ko udaberrian hasi zen urte horretako kanpaina, eta 231 familiak izena eman zuten. Aipatu kanpaina Iruñerriko Mankomunitateko Etxeko Konpostaren I. Jardunaldien barruan egin zen (Mendillorriko ur-biltegietan egin zen).

> 2008. urtea

2008ko udaberrian, Iruñerriko Mankomunitateko Etxeko Konpostaren II. Jardunaldiak egin ziren, Mendillorriko ur-biltegietan. 4 jardunaldian zehar, 273 etxeko konpost-ontzi banatu ziren.

Gainera, jardunaldiekin bat eginez, Etxean zein Komunitatean Konposta egitearen aldeko Tokiko Entitateen Estatuko Sarea eratu zen. Ekainaren 13an eratu zen sarea, Atarrabiako Pilategian. Espainia osoko udalerrietako eta toki entitateetako ordezkariak bertaratu ziren.

> 2009. urtea

Udaberrian hasi zen urte horretako kanpaina (Udaberria 09), eta 269 familiak eman zuten izena. Arangurengo Udalak berez egindako ekimenetan –etxeko konposta egiteari buruzkoak– parte hartzen duten Arangurengo bizilagun guztiak sartu dira etxeko konposta egiteko ekimenean parte hartu dutenen 2009ko erregistroetan.

Gainera, nabarmendu behar da konpost komunitarioa egiteko esperientzia pilotu abiatu dela Iruñerriko 6 kontzejutan (Badostain, Egues, Oteitza-Berriobeiti, Labiano, Subitza eta Olatz-Subitza). Esperientzia horren inaugurazio publikoa 2009ko urrian egin zen, eta 2010eko urrira arte luzatu da; orduan, izandako emaitzak baloratuko dira. Esperientzia pilotu horren hasierako helburua da parte hartzen duten kontzejuen herritarren %30ek etxeko konposta edo konpost komunitarioa egitea.

Nabarmendu behar da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bidez txosten oso bat egiten dela, eta hor islatzen dela Iruñerriko Mankomunitatetik garatutako etxeko konpostaren egoera. Hona hemen ikerketatik ateratako datu batzuk:

- Etxeko konposta egiten den etxeetako batez besteko biztanle kopurua 3,6 pertsona dira (INE: 2,9)
- Batez beste, 0,22 kg/egun/pertsona konpost egiten dira.
- Urtean, etxeetako hiri hondakinen 300 t hondakin organiko kudeatzen dira etxeko konposta eginez.

> 2010. urtea

Urtero bezala, 2010eko udaberrian hasi zen urte horretako kanpaina, eta 217 familiak eman zuten izena. Iaz baino zertxobait jende gutxiagok eman zuen izena.


> Etxeko konpostaren balantzea Iruñerrian (2006-2010. urteak)



Konpost onerari saria

Nafarroako Foru Komunitatea osatzen duten mankomunitateetan konpost egitea aski zabaldurik dagoela kontuan hartuz, Konpost Onerari Saria antolatu zen, Hondakinak tratatzeko Partzuergoarekin lankidetzan.

Sarian 6 mankomunitatetako 83 pertsonak eman zuten izena:



Konpost Onerari Saria maiatzean zabaldu zen jendaurrean, Mendillorriko ur-biltegietan, etxeko konpostaren kanpainekin batera.

Ondoko kronogramari jarraikiz garatu zen saria.

2010. urtea	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria
Saria izena ematea	Laginak hartzea			Laginak baloratzea	Sari banaketa
	Laginak analizatea				

Konposta egiteko jardunaldi teknikoak

Etxeko eta Komunitateko Konposta egitearen aldeko Tokiko Entitateen Estatuko Sareko kidea denez, Iruñerriko Mankomunitateak zuzenean parte hartu zuen Etxeko eta Komunitateko Konposta Egiteari buruzko Mintegiaren antolaketan. Kondestablearen Jauregian izan zen ekitaldia, 2010eko urriaren 21 eta 22an. Mintegiaren helburu nagusia izan zen etxean eta komunitatean konposta egitea xede duten proiektuetako arduradunak eta langile teknikoak prestatzea, proiektu horiek abiatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko gaietan.

Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Hondakinak tratatzeko Partzuergoak antolatu zuten, eta Agencia de Residus de Catalunya eta Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioak diruz lagundu zuten.

Jende askok parte hartu zuen: 91 entzulek eta 18 hizlarik. Parte-hartzaile gehienek lana teknikoa zen, eta hamar probintzia desberdinetako udal eta enpresetakoak ziren.

Nazioko administrazioaren esparruari dagokionez, Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioko bi ordezkari egon ziren. Eskualdeko administrazioaren aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Errioxako Autonomi Erkidegoak parte hartu zuten.

Era berean, eremu zabalagoko toki entitate batzuek parte hartu zuten, besteak beste: Iruñerri, Bortziri, Mairaga, Sakana, Nafarroako Erribera Garai, Zangoza eta Izarbeibarkoak (Nafarroakoak guztiak), baita Nafarroako Hondakinak tratatzeko Partzuergoak ere. Asturiasko Hondakinak Kudeatzeko Partzuergoa, Debagoieneko Mankomunitatea (Gipuzkoa), Consell Comarcal de l'Anoia (Bartzelona), Mancomunidad de Concellos do Morrazo (Pontevedra), eta Entitat Metropolitana de Serveis Hidàulics i Tractamente de Residus (Bartzelona).

Bestalde, ondoko udaletako politikariak eta/edo teknikariak egon ziren jardunaldietan: Leganés, Rivas Vaciamadrid eta Navalafuente (Madrilgoak guztiak), Cornellà de Llobregat (Bartzelona), Boadella i Les Escaules (Girona), Elburgo-Burgelu (Araba) eta Aranguren ibarra (Nafarroa).

Konpostaje komunitarioa

2010eko urrian, konpostaje komunitarioaren esperientzia pilotua bukatu zen. Izan ere, 2009ko urrian hasi zen esperientzia, Iruñerriko 6 kontzejutan.

Lortutako emaitzak Kondestablearen Jauregian antolatu zen jardunaldi teknikoan aurkeztu ziren.

Esperientzia pilotuaren urtebetea iraganik, konpostaje komunitarioa sendotu egin da hasierako 5 kontzejutan.

Badostaingo eremua atera da, auzokide batzuk ados ez baitziren batez ere

Ondoko puntuetan agertzen dira esperientziaren ondorio nabarmenenak:

- Etxean eta komunitatean konposta eginez hondakin organikoak sortzeari aurrea hartzea eta hondakinetan dauden gai organikoen onurak aprobetxatzea tresna eraginkorrek dira ingurumeneko hezkuntzan eta ingurumenarekin errespetu handiago duen garapena bultzatzeko jardueran.
- Etxean eta komunitatean konposta egiteak ez du formula bakarra, ezartze eredu batzuk zehazten ahal dira, interesa duen biztanleriaren tipologiaren arabera.
- Herri batean konpostaje komunitarioa ezartzeak ongi zehaztutako jarduera prozedura behar du.
- Interesa duen populazio bakoitza berezia da, zehazki aztertu behar da.

Argiñarizko zabortegia zigilatzea

Argiñarizko zabortegia 1977. urtean hasi zen ustiatzen. 1992an, hau da, Gongorako Hiri Hondakinak Tratatze Zentroa inauguratu zenean, itxi eta zigilatu zen.

Gaur egun, 15 urte zigilatuta eman ondoren mantentze-lanak eginik, gunea erabat lehengoratu dela esan daiteke. Izan ere, kudeaketa lan bakar batzuk egin behar dira, besterik ez: arekak garbitzea, euri-urak isolatzeko; baso-berritzeak ureztatzea eta bertako sastrakak kentzea; libixiatuak hustea udaldian metatzen diren biltze-putzutik.

Urtaroz urtaroko erregistroek adierazten dute lehengoratutako gunea hau egonkortu dela. 2010. urtean zehar hainbat analisi egin ziren, eta horietan lortutako emaitzak erakusten dira ondoko taulan.

	Negua		Udaberria		Uda		Udazkena	
	Erreka	Baltsa	Erreka	Baltsa	Erreka	Baltsa	Erreka	Baltsa
Q (l/s)	---	0,69	---	0,02	---	---	---	---

SST (mg/l)	<14	33	<14	18	---	---	---	---
DQO (mg O2/l)	<50	326	<50	164	---	---	---	---
NT (mg N/l)	2,6	138	<2,1	94,4	---	---	---	---
P (mg P/l)	<1	<1	<1	<1	---	---	---	---

2010. urtean, 4 kontrol bisita egin ziren. Urmaetik hainbat lagin hartu ziren bi aldiz, eta beste bitan errekatik. Arga ibaiko errekararen kontrola udaberrian eta neguan baizik ez zen egin. Lortutako emaitzak bat datoz Uraren Herri Jabariaren Erregelamenduak ezarritako baldintzekin.

2005. urtetik egindako analisisien datuak hartuta, ondoko koadroa egin da, eta karga kutsatzailearen gainbehera antzematen da hor.

Urmaelaren kontrola	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Gehieneko emaria (l/s)	0,23	0,21	0,23	0,30	0,214	0,178
Esekidurazko solidoak (mg/l)	61	61	58	36	28	25
Oxigeno-eskari kimikoa (mg/l)	309	298	276	233	237	245

Gune hori egonkortuta, ia ez da kutsadurarik heltzen errekarara (Aрга ibaian isurtzen da), eta ibai-ibilgura ez da ibaiko bizitzari eragiten ahal dion kutsatzailerik heltzen.

Horri esker, Argara isurtzeko baimena berritzea lortu da, udaldiko lixibiatuak kontrolatzeko aurreko urteetako baldintza berdinetan (uztaila, abuztua eta iraila). Baimena Ebroko Ur Konfederazioak ematen du. Baimena 2013. urtera arte egongo da indarrean.

TRATAMENDU ZENTROETAKO IGORPENAK

Apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuak, E-PRTR Erregelamenduaren igorpenen gaineko informazioa ematea arautzen duenak (EAO, 96 zk., 2007/04/21), ezartzen du beharrezkoa dela industria-komplexu jakin batzuek atmosferara, uretara eta lurzorura igortzen dutenaren gaineko datuak jakinaraztea urte oro. Araudia SCPSA-ko bi zentrotan aplikatzeko da: Gongorako Hiri Hondakinak Tratatzeko Zentroa eta Arazuriko Hondakin Uren Araztegia.

Legediak agindu bezala, 2011ko lehen hiruhilekoan barna, 2010. urteari dagokion E-PRTR adierazpena egingo da, bai Gongorako Hiri Hondakinak Tratatzeko Zentroarena bai Arazuriko Hondakin Uren Araztegiarena.

Igorpenei buruzko erregelamenduzko adierazpenaz gain (instalazioak E-PRTR izenekoaren webgunean erregistratu behar dira, aldeztu aurretik), igorpenen kalkulua azaltzen duen agiria Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentura bidaltzen da). Horrela, departamentuak aipatutako datuak egiaztatu ahalko ditu.

GIZA TALDEA

Pertsonen kudeaketa eta garapena

Iruñerriko Mankomunitateak uste du bere langileak direla erakundearen interes talde garrantzitsuenetako bat. Horregatik, helburu nagusia da ongi orekatutako, trebatutako eta inplikaturako langile taldea izatea, erakundeak duen proiektuaren egungo zein geroko beharrei erantzuteko modukoa.

GIZA TALDEA

Langileei buruzko informazioa

2010eko ekitaldia bukatutakoan, Iruñerriko Mankomunitatean 478 langile zeuden, hau da, langileen kopurua %1,44 hazi da. Gure erakundearen langileak 11 lan zentroan aritzen dira lanean, Iruñerriko Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuek instalazioak eremu geografiko jakin batzuetan kokatzea eskatzen dutelako.

Lan zentroa	Jarduera	Pertsona kopurua					
		2008		2009		2010	
urtea		G	E	G	E	G	E
Bulegoak							
Chinchilla kalea, 7, Iruña Imaz anaiak kalea, 1. Iruña	Zerbitzu zentralak eta instituzionalak	99	69	100	69	98	68
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua							
Navas Tolosa kalea 29, Iruña	Bezeroentzako arreta telefonikoa, aurrez aurrekoa eta idatzizkoa)	5	19	5	20	5	23
Edateko Uren Araztegia (ETAP)							
Urtasun, Egillor eta Tiebas	Eugiko urtegiko, Artetako iturburuko eta Itoitz-Nafarroako ubideko ura tratatzea eta edateko ur bihurtzea	46	6	45	5	46	7
Sare zein instalazioen mantentze-lanen tailerra							
Agustinos industrialdea. Iruñea	Biltegiko ura banatzeko sare eta instalazioen mantentze-lanen zerbitzua.	80	6	81	5	80	4
Hondakin-uren araztegia (EDAR)							
Arazuri	Ur-hondakinak araztea	37	16	36	15	39	15
Hiri hondakinak Tratatze Zentroa (CTRU)							
Gongora	Hiri-hondakinen tratamendua	70	22	71	23	64	20
Garbigunea							
Agustinoen industrialdea + Morea merkataritza zentroa	Etxe-hondakin berezien bilketa	9	1	9	1	8	1
Partziala guztira		345	139	347	138	340	138
Guztira		484	485	478			

Enpresak finko eta mugagabe kontratatze politikari eusten dio bere plan estrategikoen garapen eraginkorrari begira, pertsonak dakarten kudeaketarako gaitasuna eta ezagutza baliatuz. Urtearen bukaeran, langileen %93,57k kontratu finko eta mugagabea zuen. Dena dela, aldi baterako kontratazioa beharrezkoa da zenbait kasutan, aldi baterako jubilazioak eta aurreratuak ordezkatzeak. Gainerako aldi baterako kontratazioak unean uneko beharrei erantzuteko egiten dira, honako hauei, esaterako: absentismoa, proiektu zenbaiten garapena edo lan eskaera handiak. Irizpide hori aintzat hartuta, langileen %1,4k aldi baterako kontratua du.

* 481 langile dira guztira, eta 3 kontaktua bertan behera uzteko egoeran daude.

LANGILE KOPURUAREN OSAERA, KONTRATU-MOLDEARI BEGIRA

urtea	2008		2009		2010	
	G	E	G	E	G	E
Langile finkoak	108	314	114	311	116	309
Aldi baterako langileak	19	32	25	34	22	31
Guztira	127	346	139	345	138	340

Langileen ezaugarriak dagokienez, batez besteko adina 47 urtekoa da, eta batez beste, 16 urteko antzintasuna dute. %71 gizonak dira eta %29 emakumeak. Langileen %16k unibertsitate titulua dauka, eta bere prestakuntza mailari dagokion lanpostuan aritzen da lanean.

LANGILEAK, LANBIDE KATEGORIAREN ARABERA

urtea	2008		2009		2010	
	G	E	G	E	G	E
sexua						
Zuzendariak	11	3	11	4	10	4
Goi mailako tituludunak	33	21	34	22	37	19
Teknikariak	82	16	96	9	76	26
Administrazioak	9	66	8	70	10	69
Profesionalak	114	14	110	14	118	2
Espezialistak	96	19	88	19	89	18
Guztira	345	139	347	138	340	138

Langileen kudeaketa administratiboak bermatzen du enpresaren eta langileen arteko harremanak egokitzea legezko eta ohiko araudiari, besteak beste, gai hauetan: kontratazioa, eskubideen eta betebeharren arteko oreka, lanaren banaketa edo honen ordaina... Legearekin bat datorren kudeaketaren aldeko gehieneko begiruneaz gain, beste xede bat daukagu: erakundearen pertsonen gehieneko gogobetetzea alderdi hauen ezagutzaren zein inplikazioaren bitartez.

ABSENTISMOARI BURUZKO INFORMAZIOA

	2008	2009	2010
Hitzartutako lanaldi guztiaren gaineko portzentajea	8,6	7,10	5,75
Gaixotasunek eta istripuek eragindako portzentajea	5,42	5,61	3,7
Haurdunaldiek eta amatasunak eragindako portzentajea	1,80	0,81	1,07
Lan hitzarmenaren baimenek eragindako portzentajea	0,54	0,51	0,57
Maiztasuna: kasu kopurua, batez besteko langile kopurua kontuan hartuta	4,08	3,59	3,8
Iraupena: ordu kopurua, kasu guztiak kontuan hartuta	31,20	31,53	23,85
Lanaldia	1.592	1.592	1.592

APARTEKO ORDUEI BURUZKO INFORMAZIOA

	2008	2009	2010
Aparteko orduak guztira	957,35	921,65	533,9
Aparteko orduen portzentajea, hitzartutako lanaldia kontuan hartuta	0,60	0,58	0,34
Aparteko orduak, langileen batez bestekoa kontuan hartuta	1,98	1,89	1,17

GIZA TALDEA

Langileen hautaketa eta promozioa

Hautaketa eta promozio prozesuen bitartez langile egokienak erakundeak sortutako lanpostuetan aritzea nahi dugu, gaitasun profesional eta pertsonalaren printzipioak errespetatuz, eta halaber aukera berdintasuna eta kanpo zein barne arauen exigentziak.

Enpresako pertsona guzti-guztiek daukate aukera garapen profesional handiago eta erantzukizun berriak dakartzaten beste lanpostu batzuetan aritzeko, betetzeko lanpostuak enpresak kontratatutako langileei eskaintzen baitzaizkie lehen. Lanpostua barneko jendearekin ez bada betetzen, edo betebeharrak betetzen dituen jenderik ez badago, eskaintza kanpora zabaltzen da.

2010. urtean 13 hautaketa prozesu egin dira, eta haietarik 9 barne deialdiak izan dira eta 3 kanpokoak. Prozesu hauen bidez, 641 hautagai aurkeztuta, denak hartu dira kontuan 15 lanpostu betetzeko.

LANGILEEN HAUTAKETA ETA PROMOZIOAREN ADIERAZLEAK

	2008	2009	2010
Barne promozio prozesuen %, hautaketa prozesu guztien gainean	42,86	53,85	69,23
Promozionatutako langileen %, hautatutako langile guztien gainean	58,33	66,67	66,67
Promozionatutako langileen %, langile multzoaren batez bestekoaren gainean	1,4	1,65	2,1

GIZA TALDEA

Prestakuntza eta garapen profesionala

Langileen prestakuntzari eskaintzen diogun arretak pertsonen ezagutza, gaitasun eta trebetasunaren bereganatzea eta eguneratzea erraztu nahi ditu, enpresak bere egindako estrategiari zein erronkei erantzuteko.

2010eko Prestakuntza Planak 242 prestakuntza ekintza izan ditu, eta bere kostua 142.539 eurokoa izan da. Prestakuntza ekintzak enpresako departamentu eta zentro guztietan egin dira, kolektibo profesional ezberdinen beharrei erantzuten dizkieten edukiak jorratuz. 2010eko Prestakuntza Planerako Hiruko Fundazioak 31.839,71 euroko diru-laguntza eman du.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak antolatutako ikastaroetan parte hartzen segitu dugu, gehienbat ofimatika-prestakuntzarako, hala nola Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak sustatutako ikastaroetan.

2006-08/09 ALDIRAKO HITZARMENA: PRESTAKUNTZA PROGRAMAK

Interes pertsonaleko programa gure 8 langilek baliatu dute, honako arlo hauetan: oinarrizko ikasketa zenbait, unibertsitate ikasketak, profesionalak eta ingeles hizkuntza. Bestalde, 10 pertsonak jaso dituzte euskara ikasteko laguntzak.

DATU NAGUSIAK LANGILEEN PRESTAKUNTZAN

	2008	2009	2010
Prestakuntza ekintzen kopuru osoa	247	248	242
Bertaratze kopurua, guztira.	1.056	1.163	1.098
Bertaratze ordu kopurua, guztira.	9.634	11.480	11.027
Emandako lan orduak, guztira	9.584	11.390	10.937
Prestakuntza ekintzen kostu zuzena	123.550	123.735	142.539
Lan orduen kostua	208.016	283.033	243.082
Kostu osoa (kostu zuzena+lan orduak)	331.566	406.768	385.620

LANGILEEN PRESTAKUNTZAREN ADIERAZLEAK

	2008	2009	2010
Prestakuntza orduak langile eta urte bakoitzeko	19,90	23,53	22,97
Prestakuntzan aritutako langileen %, langile kopuruaren batez bestekoaren gainean	77,43	78,03	80,00
Lan orduen %, bertaratutako ordu guztien gainean	99,48	99,22	99,18
Prestakuntzarako inbertsioaren %, soldata-masaren gainean	1,95	2,54	2,21

Azkenik, praktika profesionalak sustatzeko Nafarroako hezkuntza instituzioekin adostutako hitzarmenen baitan, gurean lanbide heziketako edo unibertsitateko 7 ikasle aritu dira praktika profesionaletan.

GIZA TALDEA

Erakundearen pertsoneri emandako laguntza eta ordainsariak

2006-2008/9 lan-hitzarmenaren indarraldia bukatuta, Iruñerriko Zerbitzuak, SA enpresarentzako eta hango langileentzako lan-hitzarmen berria negoziatzeko prozesua egin da 2010ean.

Soldatei lotutako gaiekin batera, ondokoei buruzko neurri batzuk negoziatu dira: gizarte laguntzak, lanaldia, lizentziak eta baimenak.

2010eko lan-egunak bere horretan utzi ziren, 216; 1.592 ordu/urte guztira.

GIZA TALDEA

Laneko arriskuen prebentzioa

ISTRIPUAK

2010ean baja behar izan zuten 23 istripu gertatu ziren guztira. Horietako bi berriz gaixotzeak izan ziren, aurreko beste batzuen eraginez, eta beste bi "in itinere" gertatu ziren.

Datu hori langile kopuruarekin erkatuta, 32,80ko intzidentzia indizea ateratzen da; izan ere, Iruñerriko Zerbitzuak, SA enpresan urtean izandako 2. emaitzarik onena da, eta Nafarroan sektoreak duen batez bestea baino nabarmen baxuagoa.

Izandako lesioen larritasunari dagokionez, arinak izan dira kasu guztietan. Larritasun indizea (galdutako orduak lan egindako 1000 orduko) 0,23 izan da, enpresaren historikoan dagoen txikienetako bat, alegia.

OSASUNA ZAINTEZA

Urteko osasun azterketara joan diren langileen kopuruak altua izaten jarraitzen du (%86,03), baita Enpresako Osasun Zerbitzutik (Norlabor) jasotako zerbitzu eta arretarekiko gogobetetze mailak ere.

Bestalde, baja luzearen ondoko 13 azterketa egin dira. Horietako 11 sartzeko berriak ziren, eta 26, berriz, langileek eskatutako osasun kontsultak.

GIZA TALDEA

Langileen pertzepzioaren hautematea

Erakundearen ardura da langileen pertzepzioa ezagutzeko, lan inguruan bat egiten duten arlo garrantzitsu guztiei buruzkoa. Horretarako tresna nagusia langileen gogobetetzea ezagutzeko egiten den inkesta da, 1995etik, bi urtez behin egiten dena.

Inkesta honek biltzen ditu langile guztien gogobetetze globalaren maila, hura banatzen den 16 arloen gaineko balorazioa eta haietako bakoitzari ematen dioten garrantzia. Informazioa behin hartuta, honen tratamendu estatistikoa eta analisisa egiten da. Helburua pertsonen garapena zein kudeaketa arloko plan, erabaki eta politikak orientatzea da.

Galdetegia modu anonimo eta boluntarioan egiten da. Azkeneko aldian, 2009. urtean, 225 pertsonak hartu zuten parte, hau da, langileen %48k.

PARTE-HARTZEAREN EBOLUZIOA LANGILEEN GOGOBEETZEZA EZAGUTZEKO INKESTAN (PORTZENTAJEA LANGILE KOPURU OSOARI ERREPARATUTA)

	2001	2003	2005	2007	2008	2009	2010
	78	79	58	54	N/A	48	N/A

Inkesta segmentuetan zatitzen da departamentu, lan zentro, kolektibo profesional, antzinatean eta kontratu mota ezberdinen arabera. Ikuspegi honek ahalbidetzen du emaitzen analisi hobea, bere interpretazioa errazten du eta hobekuntza planak fokalizatzeko aukera ematen du.

Bi galdera daude galdetegiaren aplikazioaren prozesua eta bere baliagarritasuna ebaluatzea ahalbidetzen dutenak. 2009ko edizioan, pertsonen %74k esaten du galdetegia egin eta aplikatu den moduak egia erantzunarazi diola eta %38k uste du hari erantzun izana baliagarria dela.

Azkeneko txostenak argitaratu eta zabaldu egin dira iragarki oholen eta langilearen atariaren bidez.

PERTSONEN KUDEAKETAKO ETA GARAPENKO INDIZEAK

	2007	2008	2009	2010
Langile kopuruaren osaera				
Langile kopurua	473	484	485 (347+138)	478 (304+138)
Langileen batez besteko adina	44	44	44 (46-41)	47 (47-43)
Gizon-emakumeen portzentajea	73,15/26,85	71,28/28,72	71,55/28,45	71/29
Zuzendari kopurua	14	14	15 (11-4)	14 (10+4)
Gizon-emakumeen portzentajea zuzendari lanetan	78,57/21,42	78,57/21,42	73,33/33,33	71,4/28,6
Unibertsitate titulua behar duten lanpostu kopurua	13,11	14,02	13,19	14,6
Lorpenak eta motibazioa				
Betetako kudeaketa-helburuen portzentajea	84,7	90,10	80,8	77
Barne promozioko prozesuen portzentajea, hautaketa prozesu guztiei erreparatuta	65,6	42,86	53,85	69,23
Promozionatutako langileen portzentajea, hautatutako langile guztiei erreparatuta	75	58,33	66,67	66,67
Promozionatutako langileen portzentajea, batez besteko langile kopuruari erreparatuta	7,13	1,4	1,65	2,1
Langileen gogobetetzea ezagutzeko inkestan parte hartutako portzentajea	48	N/A	48	N/A
Absentismo portzentajea	6,67	8,00	7,11	5,75
Txandakatze portzentajea	3,89	2,48	0,82	-1,45
Lanbide gaitasuna				
Prestakuntza ekintzen kopurua	220	247	248	242
Prestakuntza orduak langile eta urte bakoitzeko	19,05	19,9	23,53	22,97
Prestakuntzan aritutako langileen portzentajea, batez besteko langile kopuruari erreparatuta	81,33	77,43	78,03	80,00
Lan orduen portzentajea, prestakuntza ordu guztiei erreparatuta	99,43	99,48	99,22	99,18
Prestakuntzarako inbertsioaren portzentajea, soldata-masari erreparatuta	1,87	1,95	5,54	2,21

Segurtasuna eta lan osasuna

Baja eragin duten istripuen kopurua	26	23	16	20
Eragin adierazlea	56,21	43,36	32,80	39,24
Maiztasun adierazlea	35,36	27,24	20,60	24,65
Larritasun adierazlea	0,97	0,53	0,30	0,23

Pertsonendako arreta

Jardunaldi malgua duten pertsonen portzentajea	54	54	53	50
Gizarte laguntzetan egindako inbertsioaren portzentajea, soldata-kostuari erreparatuta	5,93	9,30	10,92	7,42
Pentsioen kostuaren portzentajea, soldata-kostuari erreparatuta	4,86	7,44	7,91	5,28

Langileen gogobetetzea

Enpresa beste enpresa batzuen batez bestekoarekin alderatuta, honen gaineratik baloratzen duten pertsonen portzentajea	71	N/A	61	N/A
Gogobetetze globalaren portzentajea	58	N/A	57	N/A

URTEKO KONTUAK

Atal honetako dokumentu batzuk PDF formatuan daude. Behar bezala ikusi ahal izateko, Acrobat Reader programa instalatu behar da. Ordenagailuan instalaturik ez baduzu, beheara kargatu doan ondoko esteka honetatik:

[Egitaraua deskargatu](#)

URTEKO KONTUAK

Kontu-ikuskaritza txostena

Urteko kontu bateratuen ikuskaritza txostena behera kargatu, 2009ko abenduaren 31n bukatu zen urteko ekitaldiari dagozkion kontuena

URTEKO KONTUAK

Egoera balantze bateratuak, 2010eko abenduaren 31n (eurotan)

(Egin klik irudian, PDF artxiboa ikusi ahal izateko.)

Iruñerriko mankomunitatea eta mendeko sozietatea egoera balantzeak 2010ko abenduaren 31n (eurotan)

akzioa	memoriaren oinarriak	2010ko ekitaldia
Akzio ez-arrunta		
Ibilgetu ukiezina	7	
— Enakidak		62.025,37
— Aplikazio informatikoak		858.395,02
— Bidean dauden aplikazio informatikoak		27.325,00
Ibilgetu materiala	5	
— Lursailak eta eraikinak		38.460.022,39
— Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu batzuk		83.550.980,28
— Bidean dauden ibilgetua eta aurrerakinak		17.680.916,39
Inbertsioak higozinetan	6	
— Lursailak		372.498,60
Finantza inbertsioak epe luzera		
— Ondare finazkoak		24.040,48
— Zorrenen balio adierazgarriak		4.553.908,94
Akzioak zerga geroratuarengatik		116.298,25
AKTIBOA EZ-ARRUNTA GUZTIRA		145.708.411,72
Akzio arrunta		
Izakinak	8	
— Ura eta merkatarizako beste izakin batzuk		100.630,55
— Beste hornidura batzuk		1.190.002,56
Merkataritza zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	9	
— Bezeroak, salmentarengatik eta zerbitzuak emateagatik		16.159.882,06
— Bezeroak, Taldetako enpresak eta enpresa elkartuak		7.333,68
— Zordun batzuk		215.066,34
— Langileak		3.169,04
— Administrazio publikoekin dauden beste kreditu batzuk		9.376.806,92
Finantza inbertsioak epe laburren	10	
— Beste aktibo finantzario batzuk		37.821,79
Aldizkakoak epe laburren		1.459.882,72
Eskudirua eta beste aktibo likido balioakide batzuk		9.421.750,52
Akzio arrunta guztira		37.972.346,18
AKTIBOA GUZTIRA		183.680.757,90

Erantsitako bezeroen 2010ko urteko kontu bateratuak barnean daude.

ondare garbia eta pasiboa	Memoriaren oinarriak	2010ko ekitaldia
Ondare garbia		
Taldearen fondoak	11	
Kapitala		
— Guztira: fondoak		48.377.164,27
— Erabileren orokorrari emandako ondarea		-8.720.676,50
Erreserbak		
— Erreserba sozietate bateratuetan		12.393.275,70
Ekitaldiaren emaitza bateratua		-344.249,52
Kapitalaren diru laguntzak	12	73.813.905,27
Hainbat ekitalditan banatu beharreko beste diru sarrera batzuk	12	4.040.454,11
ONDARE GARBIA GUZTIRA		129.559.873,33
PASIBO EZ-ARRUNTA		
Hornidurak epe luzera	13	
— Langileendako epe luzerako prestazioek eragindako obligazioak		1.242.060,99
— Beste hornidura batzuk		18.486.852,57
Zorak epe luzera		
— Taldetako enpresekin eta elkartuekin hartutako zorrak epe laburren		3.822.494,16
Akzioak zerga geroratuarengatik	17	281.532,52
PASIBO EZ-ARRUNTA GUZTIRA		23.832.940,24
PASIBO ARRUNTA		
Zorak epe laburren	15	
— Taldetako enpresekin eta elkartuekin hartutako zorrak epe laburren	14	207.255,84
— Beste pasibo finantzario batzuk		10.547.382,10
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk		
— Hornitzaileak	16	3.752.998,36
— Hartzekodun batzuk	17.a	14.369.537,15
— Langileak (ordaintzeko dauden lantzeriak)		41.352,79
Pasiboak zerga aruntarengatik	18	73.521,37
— Administrazio publikoekin hartutako beste zor batzuk	17.b	800.267,32
— Bezeroen aurrerakinak		408.025,39
Aldizkakoak epe laburren		12.647,36
PASIBO ARRUNTA GUZTIRA		30.287.944,33
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		183.680.757,90

URTEKO KONTUAK

Galera eta irabazien kontu bateratuak, 2010eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagozkionak

(Egin klik irudian, PDF artxiboa ikusi ahal izateko.)

iruñerriko mankomunitatea eta mendeko sozietatea
2010ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldien galera eta irabazien kontuak (eurotan)

		<i>2010ko ekitaldia</i>
A) Eragiketa jarraituak		
Negozio-zifraren zenbateko garbia		19.a
Salmentak		30.529.608,63
Zerbitzuak ematea		27.011.644,60
Enpresak bere aktiborako egindako lanak		573.793,12
Hornidurak		
Ur kontsumoa		19.b -1.246.398,20
Merkataritza izakinen eta beste hornikuntza batzuen kontsumoa		19.b -2.804.688,70
Beste enpresa batzuek egindako lanak		-15.460.019,01
Beste ustiatze sarrera batzuk		19.c
Diru sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk		9.614.117,95
Ustiatze laguntzak, ekitaldiaren emaitzan sartuak		7.503.200,00
Salbuespeneko diru-sarrerak		888.523,31
Langileen ordainsariak		19.d
Lansariak, soldatak eta antzekoak		-16.782.563,97
Gizarte kargak		-4.992.758,65
Hornidurak		-1.193.424,91
Beste ustiatze gastu batzuk		19.f
Kanpoko zerbitzuak		-12.602.802,30
Zergak		-1.763,08
Hornidurak galtzea, narmitzea eta aldatzea, merkataritza eragiketak direla eta		-477.071,46
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk		-12.401.794,02
Ezohiko gastuak		-1.271.470,40
Ibilgetuaren amortizazioa		5 eta 7 -15.588.631,47
Ekitaldiaren emaitzari transferitutako diru laguntzak		19.g 8.740.075,98
Hainbat ekitalditan banatu beharreko diru sarrerak		19.g 75.886,83
Narriadura eta emaitza ibilgetua besterentzeagatik		
Emaitzak besterentzeagatik eta beste batzuegatik		-9.481,65
Ustiatzearen emaitza		103.982,60
Finantza sarrerak.		
Balore negoziagarrienak eta beste finantza tresnenak		
Hirugarrenenak		897.519,56
Finantza gastuak		
Hirugarrenenakiko zorregatik		-
Hornidurak eguneratzeagatik		-1.215.832,08
		-1,30
Emaitza finantzarioa		-318.313,82
Emaitza zergen aurretik		-214.331,22
Etekinen gaineko zergak		18 -129.918,30
Ekitaldiaren emaitza, eragiketa jarraituetatik etorria		-344.249,52
Ekitaldiko emaitza		-344.249,52

Erantsitako bustena 2010. urteko kontu bateratuaren barnean dago.

URTEKO KONTUAK

Ondare garbian izandako aldaketan egoera, 2010eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagokiona.

(Egin klik irudian, PDF artxiboa ikusi ahal izateko.)

Iruherriko mankomunitatea eta mendeko sozietatea

ondare garbian izandako aldaketan egoera, 2010ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagokienak

A) Aitorutako diru sarreran eta gastuen egoera, 2010ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagokienak

	Ondareak	2010
Gakera eta irabazien konturaren emaitza		-344.249,52
Ondare garbian zuzenki egotziko diru sarrerak eta gastuak		
— Jasotako diru laguntzak, dohaiztrak eta ondareak	12	8.166.900,86
— Gakera eta irabazi akuzatutako, eta beste egokitze batzuegatik	13	-91.879,19
— Zerga ondorioa		-23.516,19
Ondare garbian zuzenki egotziko diru sarrera eta gastuak guztira		8.051.505,47
Gakera eta irabazien konturaren egindako transferentziak		
— Jasotako diru laguntzak, dohaiztrak eta ondareak	18 g	-8.815.962,88
— Zerga ondorioa		39.178,07
Gakera eta irabazien konturaren egindako transferentziak guztira		-8.776.784,81
Aitorutako diru sarrera eta gastuak guztira		-1.069.528,86

B) Ondare garbian izandako aldaketan egoera osoa, 2010ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagokienak

	Gizonekoak	Erabiltzaileak	Erretiroak	Ekitaldiaren	Ondareak	Ondareak
	emendako ondareak	emendako ondareak	emendako ondareak	emendako ondareak	emendako ondareak	emendako ondareak
Saldo, 2008. urtearen bukaeran	53.348.202,65	-8.817.989,98	5.703.963,01	628.049,87	82.780.906,19	133.652.131,74
— Iniziale aktaketaengatik izandako dokuntzak (2008)						
— Dokuntzak hutsengatik (2008)	-0,06	97.313,48	64.410,94		-53.787,88	107.936,48
Saldo dotuak, 2009. urtearen hasieran	53.348.202,59	-8.720.676,50	5.768.373,95	628.049,87	82.736.118,31	133.760.068,22
— Aitorutako diru sarrerak eta gastuak guztira			1.612.543,95	-487.718,90	-4.248.083,14	-3.123.258,09
— Bazkideekin edo jabeekin egindako operazioak						
— 2008ko ekitaldiaren etenaren banaketa	-1.748.928,03		2.376.977,90	-628.049,87		0,00
Saldo 2009. urtearen bukaeran	51.599.274,56	-8.720.676,50	9.757.895,80	-487.718,90	78.488.035,17	130.636.810,13
— Dokuntzak hutsengatik (2008)			-7.407,94			-7.407,94
Saldo dotuak, 2010. urtearen hasieran	51.599.274,56	-8.720.676,50	9.750.487,86	-487.718,90	78.488.035,17	130.629.402,19
— Aitorutako diru sarrerak eta gastuak guztira			-91.603,55	-344.249,52	-633.675,79	-1.069.528,86
— Bazkideekin edo jabeekin egindako operazioak						
— 2009ko ekitaldiaren etenaren banaketa	-3.222.110,29		2.734.391,39	487.718,90		0,00
Saldo 2010. urtearen bukaeran	48.377.164,27	-8.720.676,50	12.393.275,70	-344.249,52	77.854.359,38	129.559.873,33

URTEKO KONTUAK

Eskudiru-fluxuen egoera, 2010eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiari dagokiona

(Egin klik irudian, PDF artxiboa ikusi ahal izateko.)

iruferriko mankomunitatea eta mendeko sozietatea *2010ko ekitaldietako eskudiruaren fluxuen egoerak*

	Oharak	2010
Ustiatze jardueren eskudiru-fluxuak		
Ekitaldiaren emaitza zergak baino lehen		-214.331,22
Emaitzaren doikuntzak		
Ibilgetuaren amortizazioa	5 eta 7	15.588.631,47
Horriduren aldaketa		477.071,46
Diru laguntzak egozteak	12	-8.815.962,81
Ibilgetuaren besterentzeek eta bajek eragindako emaitzak		9.481,65
Finantza sarrerak		-897.519,56
Finantza gastuak	13	1.215.832,08
Beste diru sarrera eta gastu batzuk		1.067.559,88
Kapital arruntean izandako aldaketak		
Izakinak		-2.035,17
Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk		-5.300.566,10
Beste aktibo arrunt batzuk		-33.655,83
Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk		944.149,75
Beste pasibo arrunt batzuk		1.446.698,87
Beste aktibo eta pasibo ez-arrunt batzuk		
Ustiatze jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk		
Interesak kobratzea		264.377,21
Interesak ordaintzea		
Kobrantzak (ordainketak), etekinen gaineko zergarengatik		-124.898,47
Ustiatze jardueretako eskudiruaren fluxuak		5.624.833,21
Inbertsio jardueretako eskudiruaren fluxuak		
Ordainketak inbertsioengatik		
Ibilgetu ukiezina	7	-359.337,82
Ibilgetu materiala	5	-24.284.088,83
Inbertsioak higiezinetan	6	-23.679,21
Kobrantzak desinbertsioengatik		
Ibilgetu materiala		2.200,00
Beste finantza aktibo batzuk		4.317.078,16
Inbertsio jardueren eskudiruaren fluxuak		-22.936.184,34
Finantziario jardueren eskudiruaren fluxuak		
Kobrantzak eta ordainketak ondare tresnengatik		
Jasotako diru laguntzak, dohaintzak eta ondareak	12	8.166.900,85
Kobrantzak eta ordainketak finantza pasiboarengatik		
Jaulkipena		
Taldekako enpresek in eta elkartuekin hartutako zorrak		3.822.494,16
Finantziario jardueren eskudiruaren fluxuak		11.989.395,01
ESKUDIRU BALIOKIDEAREN EDO BALIOKIDEEN HANDITZE/MURRIZTE GARBIA		-5.321.956,12
Eskudirua edo balioakideak ekitaldiaren hasieran		14.743.706,64
Eskudirua edo balioakideak ekitaldiaren bukaeran		9.421.750,52

URTEKO KONTUAK

2010eko ekitaldiko txostena

1. AURREKARI HISTORIKOAK, IZAERA, XEDEAK ETA JARDUERAK

A) Iruñerriko Mankomunitatea (aurrerantzean Mankomunitatea edo Sozietate Menderatzailea), 1982ko uztailaren 2an eratu zen. Iruñerriko Mankomunitatea hartu zuen izena, Nafarroako Udal Administrazioaren Araubidearen babesean (V. kapitulua, 55. artikulua, d) atala). Plangintza Orokorreko Mankomunitate gisa eratu zen, lankidetzaz eginkizunean Nafarroako Foru Diputazioak parte harturik. 1986ko abenduaren 24an egungo izena hartu zuen. Estatutueta eta beren edukietan aldaketa garrantzitsuak egin ziren. Horretarako, lege eta kudeaketa esparru bat sortu zen, toki entitateei behar dituzten udalez gaindiko zerbitzuak ematea ahalbidetzen duena. 1991n estatutuak aldatu ziren berriz. Aldaketaren xede nagusia Nafarroako Toki Administrazioaren gaineko Foru Legea egokitzea izan zen. Azkenik, 2009ko ekitaldian, Estatutuak berriz aldatu ziren, Toki Administrazioaren alorrean izandako lege aldaketetara egokitzeko. Hala ere, aldaketa horren aurkako helegitea aurkeztu zen, izapidetu eta onartu zenean erabilitako prozedura dela eta. Horregatik, 2010ean beste izapidetze bat eman zitzaion, aurrekoaren alegatutako akatsak zuzentzen dituena. Izan ere, izapidetze hori burutu da ekitaldia bukatutakoan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2011ko apirilaren 8koan, behin betiko argitaraturik.

Ondokoa da Mankomunitateren helbidea: Chinchilla jeneralaren k., 7, Iruñea. Hona hemen bere I.F.K.: P-31 12070B.

B) Ondokoak dira Sozietate Menderatzailearen xedeak, bere Estatutuen 5. eta 6. artikuluetan araututakoarekin bat:

1. Edateko ura hornitzea, estolderia, eta hondakin uren saneamendua eta arazketa; baita energia lortu, aprobetxatu, eta saltzea ere.
2. Hiri-hondakin solidoak biltzea, tratatzea eta aprobetxatzea.
3. Bidaiarien garraio publikoa Iruñerrian.

Halaber, Sozietate Menderatzailearen xedea hauxe da: neurria egokia eta beharrezkoa dela ziurtatzen duen txostenaren bidez, unean-unean titulartasuna egokiturik dituen gaietako ekonomia jarduerak egitea.

Bere jarduera esparrua da Mankomunitatean sartutako udalena. Udalak dira, beren ondasun eta baliabideen bitartez, Mankomunitateak hartzen ahal dituen betebeharrak eta zorren bermatzaileak, zuzenbideko beren biztanleen kopuruaren proportzio zuzenean, baldin eta Sozietate Menderatzailearen ondasunak betebeharrak estaltzeko nahikoak ez badira.

1989tik aurrera, sare nagusiko hondakin uren saneamendua araututa dago, 4. h).3. oharra zehazten duenarekin bat.

Taxiaren gaineko 9/2005 Foru Legearen, uztailaren 6koaren, Xedapen Gehigarri Bakarrak xedatzen du Mankomunitatea entitate eskuduna dela antolatze eta kudeatze bateratuan, Iruñerriko Taxi Zerbitzua Batera Emateko Eremuan.

Horrez gainera, bere Estatutuen 6. artikulua xedatzen du Sozietate Menderatzaileak udalaren eskumenak gauzatu ahalko dituela ondoko gaietan, aldez aurretik horien titulartasuna harturik:

1. Hirigintza antolakuntza, kudeaketa, jarduketa, eta araudia; etxebizitzak sustatu eta kudeatu; parkeak eta lorategiak, hiri errepide publikoak zolatu, eta bideak eta landa-bideak zaindu.
2. Ondare historiko artistikoa.
3. Ingurumena babestu.
4. Hornidurak, hiltegiak, feriak, azokak, eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzea.
5. Hilerriak eta hileta zerbitzuak
6. Kaleak garbitzea.
7. Kultur eta kirol jarduerak edo instalazioak, aisialdirako jarduerak, turismoa.

Bere helburuak aitzinatzeko, Sozietate Menderatzailea Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. Mendeko Sozietatearekin aritzen da (aurrerantzean I.Z.S.A. edo Mendeko Sozietatea). 1983ko urtarrilaren 4an eratu zen, eta ondoko izen soziala du: Iruñerriko Urak, S.A. (I.U.S.A.). Egungo izena hartu zuen Batzar Nagusi Orokorrak hala ebatzi baitzuen 1992ko ekainaren 26an egin zen saioan. Asoziazio Menderatzaileak I.U.S.A.-ren kapital sozialaren %100 du (ikus. 3. oharra).

C) 1998ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen "Iruñerriko Mankomunitatea / Iruñerriko zerbitzuak S.A. Harremanetarako Araudia", 1997ko urriaren 23an Mankomunitatearen Batzarrek behin betiko onespena eman ondoren. Araudi berri horrekin bat, Sozietate Menderatzaileak hartu zuen emandako zerbitzuen kudeaketa zuzena eta, horren ondorioz, emandako zerbitzuen erabiltzaile eta onuradunekin izan beharreko harreman juridikoaren titulartasuna. Halaber, horren barnean sartzen da aipatutako zerbitzuak

emateagatik eta kobratzeagatik jasotzen diren diru sarreraren titulartasuna. Horren ondorioz, harreman eta kudeaketa eredu berri honekin, Mankomunitatearen Batzarrak, 1997ko abenduaren 18an bilduta, ebatzi zuen Mendeko Sozietateari atxikitzea -1998ko urtarrilaren 1an gauzatua- kudeaketaren xede diren zerbitzuei lotutako ondare osoa, 25 urtez gutxienez. Hori guztia gauzatzeko eginen den ekarpena izanen da aipatutako ondarea eratzen duten ondasun, eskubide, eta betebeharrak guztiek osatutakoa.

Era berean, Araudi berak ebatzi zuen indarrean sartzetik aurrera Mendeko Sozietateari dagokiola inbertsio berriak egitea, egin beharreko zerbitzuak eskaintzeko beharko direnak, 1998ko urtarrilaren 1ean eraikitzen ari zirenak barne. Toki entitateaenez Mankomunitatea dirulaguntzen titularrak da, indarrean dauden lege eta administrazio ebazpenekin bat. Hainbat erakundek emandako dirulaguntza hauek inbertsioen zati handi bat finantzatzen laguntzen dute. Azpimarratzekoak dira Toki Azpiegituren Planen bitartez jasoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuak eta kudeatuak. Dirulaguntzak beren xederako ezarriak izan daitezten, hau da, inbertsioak gauzatzeko, Mankomunitateak Mendeko Sozietateari transferitzen dizkio aipatutako zenbatekoak.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi zehatza

2010eko abenduaren 31n bukatu den urteko ekitaldiko urteko kontuak prestatu dira Sozietate Menderatzailearen eta Mendeko Sozietatearen kontabilitate erregistroak oinarrituta. Kontu hauek ondokoekin bat aurkezten dira: Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena; abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak xedatutako irizpideak, urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak onartzen dituena; eta kontabilitateari buruz legez eta nahitaez bete behar diren xedapenak. Beraz, ondokoekin irudi zehatza islatzen dute alderdi esanguratsu guztietan: ondarea eta finantza egoera bateratua, eta horren eragiketen emaitza bateratua; eta eskudiru fluxu bateratuak, dagokien ekitaldian izandakoak. Gainera, hainbat birsailkapen hartzen dituzte barne, behar bezala aurkezteko.

Sozietate Menderatzailearen administratzaileen irudiko, sozietatearen Batzarrak 2010eko ekitaldiko kontu bateratuak onartuko ditu, aldaketa nabarmenik egin gabe.

b) Kontabilitate oinarriak

Urteko kontu hauek egiteko aplikatu diren kontabilitate oinarriak eta arauak laburtuta daude txosten honen 4. oharrean. Ondareari, finantza egoerari eta emaitzei eragiten dieten nahitaezko kontabilitate oinarriak aplikatu dira urteko kontuak egiteko.

c) Informazioaren eta egindako kalkuluen erantzukizuna.

Sozietate Menderatzaileko administratzaileak dira urteko kontu hauek jasotzen duten informazioaren erantzuleak.

Erantsitako urteko kontuetan kalkuluak erabili dira noizean behin, bertan erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko xedez. Funtsean, ondokoekin buruzko kalkuluak dira: aktibo material eta ukiezinen balio-bizitza (4.a eta 4.b oharra), eta Gongorako zaborteja eraisteko hornidurak (4.j oharra) eta biometanizazio obrak eraistekoak (4.j oharra).

Kalkulu horiek aztertutako gertakizunei buruzko urteko kontuak formulatzeko datan zegoen informaziorik onenaren arabera egin baziren ere, baliteke kontu horiek aldatzera behartuko gaituzten gertakizunak etorkizunean gertatzea (gorakoa edo beherakoa). Modu prospektiboan egiten litzateke hori, eta kalkuluen aldaketaren ondorioak aitortuko lirateke etorkizuneko galera eta irabazien behar diren kontuetan.

d) Informazioa alderatzea:

Kontabilitate araudiak eskatzen duen bezala, aurreko ekitaldiko zifrak biltzen dituzte ondokoekin, zifrak alderatzeko xedez: 2010eko ekitaldiko balantzeak, galera eta irabazien kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoerak, eskudiru-fluxuen egoerak eta txostenak.

3. BATERATZEKO OINARRIAK

Sozietate Menderatzailearen urteko kontuak eta Mendeko Sozietatearenak bateratu dira integrazio orokorraren metodoaren bidez, jarraian agertzen diren funtsezko oinarriekin bat:

- Mendeko Sozietatean izandako parte-hartzea ezabatu da aipatutako parte-hartzeari egozten ahal zaion berezko fondoen zati proportzionalaren bidez.
- Ondokoekin kendu dira: 2010eko abenduaren 31ko saldoak eta bi sozietate bateratuen artean aipatu datan bukatutako ekitaldian egin diren transakzio esanguratsuak.
- Halaber, ondokoekin kendu dira: 1988ko urtarrilaren 1ean egindako atxikidurari dagozkion saldoak, eta dirulaguntzen zenbatekoaren transferentziari —2000ko abenduaren 31n egina— dagozkionak

4. ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

Honako hauek izan dira 2010eko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldirako bere urteko kontuak egitean taldeak erabili dituen erregistro eta balorazio arau nagusiak, Kontabilitate Plan Orokor Berria xedatutakoekin bat:

a) Ibilgetu ukiezina

Administrazio emakidak, Sozietate Menderatzailean sartzerakoan toki entitateek egindako ekarpenetatik etorriak, integrazio egintzan onartutako balioan aurkezten dira. Geroko emakidak, Sozietate Menderatzaileak zuzenki lortuak, eskurapen prezioan baloratuko dira, edo, bestela, behar den emakida eskuratzeko egindako gastuen zenbateko osoarengatik.

Horiek guztiek amortizatzeko prozesu lineal bati jarraitzen diote, emakida bakoitzarendako hasiera batean zehaztutako emakida-bizitzaren arabera, 1990eko urtarrilaren 1etik aurrera sartutako emakidak izan ezik. Hauei 20 urteko gehieneko muga ezartzen zaie. Balorazioa murriztu ahalko lukete narriadurengatik izandako galerek, horrelakoak gertatuko balira.

Emakida-bizitzaren urteak eta atxikitako administrazio emakidei ezarri zaien eta amortizazio epea honako hauek dira:

	Hasierako emakida-bizitza	Amortizazio epea
Artetako iturburua	30	29
Eugiko urtegia	40	28
Arakil ibaia	10	10
Imaz anaien kaleko aparkalekuko plazak	50	20
Eugiko aprobetxamendu hidroeletrikoa	70	20
Urtasungo aprobetxamendu hidroeletrikoa	70	20

Urei buruzko 29/1985 Legearen, abuztuaren 2koaren, babesean formalizatu da emakida-bizitzak bukatzeko epe berria. Aipatutako arauarekin bat, 2061eko urtarrilaren 1ean finkatu da horien bukaera, aurreko koadroan zehazten diren emakida guztietarako, Imaz anaiak kaleko aparkalekuei dagokiena izan ezik, lege horren esparruan sartzen ez baita. Emakiden bizitzak luzatzeak ez dio inolako aldaketarik ekarri emakiden balorazioari, ezta xedatutako amortizazio epeei ere.

Ibilgetu ukiezinaren gainerakoa aitortzen da, hasiera batez, erosketa kostuarengatik, eta, geroago, bere kostuan baloratzen da, dagokion amortizazio metatuak (bere balio-bizitzaren arabera kalkulatu) eta narriatzeagatik gertatzen ahal zaizkion galerek murriztua. Aplikazio informatikoen amortizazioa linealki egiten da lau urteko aldian, aplikazio bakoitza ustiatzen hasten den unetik kontatzen hasita.

Mugarik gabeko balio-bizitza duten aktibo ukiezinak ez dira amortizatzen, baina narriadura testa urtean behin egiten zaie gutxienez.

Taldeak kontabilitatean aitortzen du narriadura jatorria duten aktibo horien balio erregistratuan gertatzen ahal den edozein galera, eta kontrapartida gisa "Narriadura eta emaitza ibilgetuaren besterentzeengatik"

Narriadura dela eta, ekitaldi honetan ez da aktibo ukiezin horietatik etorritako galera garbirik aitortu.

b) Ibilgetu materiala eta inbertsioak higiezinetan

Ibilgetu materialean sartzen diren elementuak erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera baloratzen dira, beste inori erositako elementuak edo eraikuntza propioari dagozkion elementuak diren kontuan harturik. Bertan, materialen eta eskulanaren kostua gehi zeharkako gastuen koefiziente bat zenbatzen dira.

"Inbertsioak higiezinetan" epigrafeak higieziinei dagozkien aktibo ez-arruntak jasotzen ditu. Errenta, gainbalioak, edo biak lortzeko jabetzak dira horiek. Horiek erregistratzeko eta baloratzeko erabiltzen dira ibilgetu materialerako erabiltzen diren irizpide berberak.

Higiezinetan egiten diren inbertsio horien balorazioa eta ibilgetu materiala murrizten dituzte dagozkien amortizazio metatuak eta narriatzeagatik izan dituzten galerek. Elementu bakoitza erosteagatik ordaindutako prezioa ez ezik, kostuak hartuko lituzke aktiboaren erosteari edo ekoizteari zuzenki egotzi ahalko litzaizkiekeen finantza gastuak ere, eraiki bitartean sortuak, baldin eta urtebetetik gorako aldia beharko balute erabiltzeko moduan egoteko. Ekitaldian ez da kontzeptu horrengatik zenbatekorik ere aktibatuko.

Produktibitatea, gaitasuna, edo eraginkortasuna handitzea edo ondasunen balio-bizitza luzatzea ekartzen duten zabalitze, modernizazio, edo hobetze kostuak kapitalizatzen dira aipatutako ondasunen kostu handiago gisa.

Ekitaldian izandako kontserbatze eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira, gertatzen diren unean. Ibilgetu materialaren amortizazioak egiten dira metodo linealari jarraikiz. Aktiboen kostua ken beren hondar-balioa banatzen da kalkulatzen den balio-bizitzaren urteetan, ondoko xehetasunen arabera:

	Kalkulatutako balio-bizitzaren urteak
Eraikinak	20-25
Instalazio konplexuak	20
Makineria	7
Beste instalazio, tresneria, eta altzari batzuk	7
Beste ibilgetu batzuk	4-5

Ibilgetuari eransten zaizkion elementuen amortizazioa erregistratzen hasten da horiek funtzionatzen hasten diren datatik aurrera.

Taldeko administratzaileen ustez, aktiboen kontabilitate-balioa ez da horien balio berreskuragarria baino handiagoa.

Aktibo bat besterendu edo erretiratu ondoren izaten den irabazia edo galera horrela kalkulatzen da: salmentaren zenbatekoa ken liburuetan aktiboak duen zenbatekoa. Galera eta irabazien kontuan aitortzen da hori.

c) Finantzarioak ez diren aktiboen balioa narriatzeagatik izandako galerak

Narriaduragatik gertatzen ahal diren galeretarako probak ezartzen zaizkie aktiboei, baldin eta gertakariren bat edo egoeran izandako aldaketaren bat direla eta, kontabilitate-balioa ezin dela berreskuratu antzematen bada. Narriaduragatik izandako galera aitortzen da aktiboaren zenbateko berreskuragarriaren gaineko kontabilitate-balioaren soberakinagatik. Zenbateko berreskuragarria da ondoko bi hauetatik handiena: aktiboaren zentuzko balioa ken salmenta-kostuak edo erabiltze-balioa.

Aurreko ekitaldietan aktibo batean aitortutako galerak, narriatzeak sortuak, itzultzen dira beren zenbateko berreskuragarriaren gaineko kalkuluetan aldaketa bat gertatzen bada, eta, horretarako, aktiboaren balioa gehitzen da galera aitortu izan ez balitz liburuetan aktiboak izan zukeen mugarekin.

Aktiboen balioan izandako narriadurarengatik ez da zenbatekorik ere erregistratu ekitaldian.

d) Finantza tresnak

Aldi baterako erositako epe laburrerako moneta-aktiboak erosketaren benetako kostuan erregistratzen dira, edo, FIAMMen kasuan, beren likidazio balioan. Aipatutako kostuaren eta itzulketaren balioaren arteko aldea epetan banatzen da, finantzabideari dagokionez, indarrean dauden aldian zehar.

e) Izakinak

Erosketa prezioaren arabera kontabilizatzen dira. Inbentarioan balioztatzen dira batez besteko prezio ponderatuan, beren merkatu-balioa baino txikiagoa baita.

Izakin zaharkituak eta mugimendu motelekoak murriztu dira gauzatzeko duten baliora.

f) Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Balantzean aitortzen diren unean baloratzen dira beren merkatu-balioan, eta geroago kostu amortizatuan baloratzen dira, benetako interesaren tasa erabiliz.

Hala eta guztiz ere, merkataritza eragiketengatik izaten diren kredituak —urtebete baino gutxiagoko epemuga dutenak, eta kontratuzko interes tasarik ez dutenak— beren balio nominalean balioztatzen dira, bai hasieran aitortzen diren unean, bai geroago, baldin eta fluxuak ez eguneratzeak dakarren ondorioa esanguratsua ez bada.

Irizpide gisa, kaudimen-gabeziarako hornidurak jartzen dira, zehaztutako antzinatasuna duten saldoak estaltzeko, baita hainbat gorabeherengatik kobratzea zail samarra izanen dela aurreikusten diren saldoetarako ere.

g) Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Balantzean aitortzen diren unean baloratzen dira beren merkatu-balioan, eta geroago kostu amortizatuan baloratzen dira, benetako interesaren tasa erabiliz.

Hala eta guztiz ere, merkataritza eragiketengatik izaten diren zorrak —urtebete baino gutxiagoko epemuga dutenak, eta kontratuzko interes tasarik ez dutenak— beren balio nominalean balioztatzen dira, bai hasieran aitortzen diren unean, bai geroago, baldin eta fluxuak ez eguneratzeak dakarren ondorioa esanguratsua ez bada.

h) Dirulaguntzak

Jaso diren dirulaguntzak eta ekitaldi batzuetan banatu beharreko beste diru-sarrera batzuk kontabilizatzeko, ondoko irizpideak erabiltzen dira:

1. Dirulaguntzak

Ematen diren unean balioztatzen dira, emandako zenbatekoan, eta emaitzei egozten zaizkio, aktiboek —aipatutako dirulaguntzek finantzatutakoak— izan duten balio-galeraren proportzioan.

2. Ustiakeari eta funtzionamenduari emandako dirulaguntzak

Emaitzetan abonatzen dira eman ondoren, horretan xedatutako baldintzak bete direla jotzen den unean, horregatik kobratuko direla zentzuzko zalantzarik ez baita. Emaitzei egozten zaizkie, eta aldi bakoitzean, kontabilitateari dagokionez, ziurtatzen da dirulaguntzatik etorritako sarreraren eta diruz lagundutako gastuen arteko korrelazio egokia.

3. Hondakin uren saneamendua kudeatzeagatik jasotako dirulaguntzak

Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduaren gaineko 10/1998 Foru Legeak, abenduaren 29koak, xedatzen du ura hornitzen duten entitateek jasoko dutela saneamendu kanona. Behar den epean, entitate hauek emanen diote kanona Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA) enpresa publikoari, Saneamendu Plana kudeatzeko sortua baita. Horrekin bat, 1997ko abenduaren 31 arte Mankomunitateak, eta data horretatik aurrera, Sozietateak, NILSari eman dizkiote saneamendu kanon gisa bildutako kopuruak, bi aldi horietan entitate hornitzailea baita. Kopuru horiek 1989ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako fakturazioari dagozkio. 2005eko abenduaren 21ean, Mankomunitateak hitzarmen bat sinatu zuen NILSarekin, eta, 2005eko urtarrilaren 1ean efektua izanik, 1989ko urriaren 19ko hitzarmena ordezkatu zuen, 2004ko abenduaren 31 arte indarrean egon zena. Hitzarmen hori dela eta, Sozietate Menderatzaileak, Mendeko Sozietatearen bidez, bere lur eremuan (ikus 1. oharra) ematen jarraitzen du Hondakin Uren Saneamenduaren (sare nagusiko saneamendua) kudeaketa eta ustiapenari lotutako zerbitzuak. Hiru hilean behin dirulaguntza bat jasotzen du NILSATik (ikus 19.c oharra). Horren zenbatekoak konpentsatzen ditu sare nagusiko saneamendua ustiatzeak eragindako kostuak. Halaber, benetan izandako zuzeneko kostuek gehi aipatutako hitzarmenean zeharkako kostu gisa aurrez finkatzen den kopuru batek zehazten dituzte kostuak.

Ustiapen kostuei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa —kontzeptu berarengatik sortutako gastuen zenbateko bera da— emaitzetan abonatzen da sortzen den unean.

i) Saldoak sailkatzea arrunten eta ez-arrunten arabera

Erantsitako egoeraren balantzean, ondoko bietan sailkatzen dira saldoak: ez-arruntak eta arruntak. Arruntetan sartzen dira ustiatze ohiko zikloan barna saltzea, kontsumitzea, ordaintzea edo egitea espero diren saldoak. Sailkapen horri ez dagozkion gainerakoak ez-arruntak dira.

j) Eraisteko hornidurak

Ekitaldiaren itxiera datan, egiten den kalkulerik onenaren egungo balioan baloratzen dira eraisteko hornidurak, unean-unean eskura dagoen informazioarekin bat. Hornidura eguneratzeagatik izaten diren doitzeak finantza gastu gisa erregistratuko dira, sortzen diren ahala.

"HHTZko hustuketa gelak eraisteko hornidurak" izeneko atalak kalkulu bat jasotzen du, Gongorako zaborteia itxi ondoko zigilatze eta mantentze lanak egiteko dauden kostuen egungo balioarena. Hornidura hori kalkulatzeko, egungo ingurunean aplikatu beharreko ingurumen mugak eta betebeharrak sartu dira.

"Biometanizazio obrak eraisteko hornidura" biometanizazio plantan gelditutako obrak eraisteak duen egungo balioari dagokio.

k) Pentsioetarako eta antzeko betebeharretarako hornidurak

Mendeko Sozietateak pentsio plan bat finkatu du prestazio zehaztua duten langileekin, erretiko eta arrisku prestazioak estaltzen dituena, baita alarguntza eta zurtasun prestazioei dagozkienak ere. Gizarte Segurantzaren eta soldataren arabeko arrisku prestazioak, baita erretiro prestazioak ere, aktiboa zelarik langileak jaso zuen azken soldataren portzentaje bat dira, alde zuzen finkatua, langileak enpresan duen antzintasunaren arabera. Erretiro konpromisoarengatik egindako ekarpena dagokie Mendeko Sozietatean bi urte baino gehiagoko antzintasuna duten enpresako langileei. Arrisku prestazioek langile guztiak estaltzen dituzte, kontratatuta egoteagatik. Autoseguru prima baten bidez antolatuta daude, Pentsio Planari ordaindua eta fondoak kudeatua.

Pentsioetarako konpromisoak kanpora ateratzeko nahitaezkotasunari dagokion indarreko araudiarekin bat, 1999ko ekitaldian Mendeko Sozietateak formalizatu zituen pentsioetan hartutako konpromisoak, arestian aipatuak, ondokoen bidez: pentsio plan bat, eta kanpoko pentsio funts individual baten harpidetza. Ildo horretatik, behar diren ekarpenak ordaintzeko hamar urteko epea du. 2000an Oreka berri Lortzeko Plana egin zen. Hartaz, 2000ko ekainaren 30ean langile guztien "pasatutako eskubideei" zegozkien kopuruak traspasatu ziren fondora. Data horretatik aurrera Pentsio Fondoak ("Mendillorriko Ur-biltegia") bere gain hartu zuen onuradun guztiei dagozkien prestazioak ordaintzea. Halaber, berrorkatzeko beste plan bat egin zen 2001ean, indarreko legedira egokitzeko xedez.

2010eko ekitaldia ixtean aktuario independente batek egindako kalkulu aktuarialak egin dira Planaren Oinarri Teknikoak erabiliz, ondoko hipotesiak kontuan harturik: %4ko interesa, EVKM/F90, GRM/F95, eta SS 90 taulak. Era berean, %1,5eko KPI eta soldaten %2ko errebalorizazioa hartu dira kontuan.

Ezintasun iraunkorra aitortuta ez dagoen kasuetarako, eta ezintasuna aldi baterakoa bada, soldata osatzeko konpromisoa jasota dago Mendeko Sozietatearen hitzarmen kolektiboaren 76. artikuluan.

l) Mozkinen gaineko zerga

Sozietate Menderatzaileak ez du Sozietateen gaineko Zergarik ordaindu behar. Hori dela eta, Mendeko Sozietatea da aipatutako zergaren gaineko urteko aitortpena aurkezten duen bakarra.

Ekitaldiko mozkinen gaineko zergaren gastua horrela kalkulatu da: ekitaldiko zerga oinarriaren gaineko karga tasa aplikatuzetik ateratzen den zerga arruntari, eta zergen aldetik onartzen ahal diren kenkariak aplikatu ondoren, gehitzen zaio zerga geroratuengatik aktibo eta pasiboetan dagoen aldaketa.

Zerga geroratuengatik izaten diren aktiboek eta pasiboek ondokoak hartzen dituzte barne: denbora desberdintasunak —aktibo eta pasiboek liburuetan duten zenbatekoen eta beren zerga balioaren arteko desberdintasunak direla eta, ordaindu beharrekoak edo berreskuragarriak izan direla aurreikusten diren zenbatekoak dira—, konpentsatu gabe dauden zerga oinarri negatiboak eta, zergei dagokienez, aplikatu ez diren zerga kenkariengatik dauden kredituak. Zenbateko horiek erregistratzeko, berreskuratzea edo likidatzea espero den karga tasari dagokion denbora desberdintasuna edo kreditua aplikatzen da.

Bestalde, zerga geroratuengatik izaten diren aktiboak, denbora desberdintasunekin identifikatuak, soilik aitortzen dira etorkizunean entitateak horiek kobratu ahal izateko zerga irabazi nahikorik izaten ahal dituen kasuan.

Kontabilitatea ixten den bakoitzean, erregistratutako zerga geroratuak berrikusten dira (aktiboak zein pasiboak), indarrean dirautela egiaztatzeko, eta behar diren zuzenketak egiten zaizkie horiei, egindako analisien emaitzekin bat.

Inbertsioengatik izaten den kenkariari dagokion zerga-onurak murrizten du ekitaldi bakoitzeko Sozietateen gaineko Zergaren zenbatekoa.

m) Euroa ez den beste moneta batzuetan egindako eragiketak

Taldeak ez du eragiketarik egin edo saldorik izan euroa ez den beste moneta batean.

n) Kaleratzeagatik izandako kalte-ordainak

Indarrean dagoen lan araudiari jarraikiz, Taldeak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie nahitaez hainbat baldintzatan lan harremanak eteten dizkien langileei. Ez da ohiz kanpoko kanporatzerik aurreikusten. Beraz, kontzeptu honengatik ez da hornidurarik egin erantsita dauden urteko kontuetan.

o) Diru sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak egozten dira sortzapen irizpidearen arabera, hau da, horiek islatzen duten ondasun eta zerbitzuen korrante erreala sortzen denean, kontuan hartu gabe noiz gertatzen den diru-sarrera eta gastuetatik etorritako moneta edo finantza korrantea.

Diru-sarrerak kalkulatu dira kobratu den edo kobratzeko dagoen kontraprestazioaren zentuzko balioan, eta ondokoak islatzen dituzte: jardueraren ohiko esparruan emandako ondasun eta zerbitzuengatik kobratu behar diren zenbatekoak ken deskontuak, BEZa eta salmentei lotutako beste zerga batzuk.

Zerbitzuak emateari lotutako diru-sarrera arruntak aitortzeko, balantzearen datan prestazioa noraino egin den hartzen da kontuan, baldin eta transakzioaren emaitza fidagarritasunez kalkulatu ahal bada.

Gastuak galera eta irabazien kontuan aitortzen dira aktibo baten murrizketari (edo pasibo baten gehitze bati) lotutako etorkizuneko

ekonomia mozkinak gutxitzen direnean, hori modu fidagarrian neurtzen ahal bada. Horrek dakar aldi berean egiten direla gastu baten erregistroa eta pasiboa gehitzearen edo aktiboa murriztearen erregistroa.

Gastu bat berehala aitortzen da ordainketa batek etorkizunean mozkin ekonomikorik sortzen ez duenean, edo, bestela, aktibo gisa erregistratzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituzenean. Halaber, gastu bat aitortzen da pasibo bat gertatzen denean eta inolako aktiborik erregistratzen ez denean.

Ondoko irizpideak erabiltzen dira Taldeak gauzatzen dituen zerbitzu nagusien emaitzak zehazteko:

Ura saldu eta araztu:

Oro har, kontzeptu honengatik jasotako diru-sarrerak zehazteko oinarri gisa kontagailuen irakurketaren irizpidea erabiltzen da. 25 milimetrotik gorako diametroa duten kontagailuak hilerotik fakturatu dira, eta, gainerakoak, lauhilabetetik behin, bezeroen populazioa taldeka banakatu.

Diru sarreren erregistroan sortzapean irizpidea erabiltzen da. Hortaz, ekitaldi bakoitza ixten denean diru sarreren hornikuntza bat aurreikusten da. Kalkulua egiteko, ondoko eragiketa hartzen da oinarri: egunero kontsumitzen diren ur metro kuboaren kopurua bider metro kuboaren batez besteko prezioa. Halaber, kontuan hartzen da zenbat egun iragan diren azken fakturaziotik, ondoko epigrafean erregistraturik: "Bezeroak, salmentak eta zerbitzuak emateagatik" (ikus. 9. oharra).

Hiri-hondakinak kudeatzea:

Hiri-hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua emateak sortzen dituen diru-sarrerak horrela zehazten dira: alde batetik, hondakin ekoizle handienentzat edukiontzien kopurua oinarri harturik, eta, bestalde, gainerakoentzat ondasun higiezinaren katastro balioen batura, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren zerga erregistroan araututakoarekin bat.

p) Errentamenduak

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentatzailearenak dira errentan hartutako ondasunaren jabetza, eta, berez, ondasunaren gaineko arrisku eta abantaila guztiak.

Errentamendutik eratorritako gastuak linealki kargatzen dira galera eta irabazien kontuan, kontratuaren balio-bizitzaren arabera.

q) Ingurumen izaera duten ondare elementuak

Ingurumen gastu gisa hartzen dira aipatutako jarduerak egiteagatik sortutako zenbatekoak, Taldearen jarduerak ingurumenari eragindako kaltea arintzekoak, baita horren ingurumen konpromisoetatik eratorriak ere. Gertatzen bada, beren zenbatekoa sartzen da galera eta irabazien kontuko epigrafe honetan: "Beste ustiapen gastu batzuk".

Taldearen jardueran iraunkorki erabiliak izan daitezkeen, horren ondarean sartzen diren elementuak —baldin eta beren xede nagusia ingurumen inpaktua gutxitzea eta ingurumena babestea eta hobetzea bada— egoera balantzeko "Ibilgetu material" gisa erregistratzen dira, beren erosketaren prezioan edo ekoizpen kostuan, egokia den bezala. Horien amortizazioa egiten da kostu balioen gainean, metodo linealari jarraikiz kalkulaturako balio-bizitzaren aldietan barna (4.b oharrean zehazten dira).

5. IBILGETU MATERIALA

Ondoko koadroan jasota daude ibilgetu materialaren eta bere amortizazio metatuen kontuetan 2009ko eta 2010eko ekitaldietan izandako kostuaren xehetasuna eta mugimendua:

	Saldoa				Doitzea	Saldoa				Saldoa
	2008.12.31	Gehitzeak	Ateratzeak	Traspasoak		2009.12.31	Gehitzeak	Ateratzeak	Traspasoak	
Balio Gordina										
Lurrak eta eraikinak	75.692.362,50	1.320.371,54		62.879,95	97.313,48	77.172.927,47	5.065.368,76		241.028,26	82.479.324,49
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu batzuk	218.105.419,78	3.406.156,81	637.308,53	9.277.261,01		230.151.529,07	1.976.666,48	310.192,29	6.603.064,21	238.421.067,47
Bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak	9.635.965,58	8.200.542,07	151.435,31	-9.340.140,96		8.344.931,38	17.257.045,33	1.074.967,85	-6.844.092,47	17.682.916,39
Balio Gordina Guztira	303.433.747,86	12.927.070,42	788.743,84		97.313,48	351.669.387,92	24.299.080,57	1.385.160,14		338.583.308,35

Amort. metatua

Eraikinen amort.	37.837.601,36	2.998.952,10		40.836.553,46	3.182.748,64		44.019.302,10
Inst. tekn. amort. eta beste ibilget. batzuk	132.210.387,78	11.647.312,93	621.860,27	143.235.840,44	11.917.765,65	283.518,90	154.870.087,19
Amort. metatua guztira	170.047.989,14	14.646.265,03	621.860,27	184.072.393,90	15.100.514,29	283.518,90	198.889.389,29
Balio garbia	133.385.758,72	-1.719.194,61	166.883,57	97.313,48	131.596.994,02	9.198.566,28	1.101.641,24

"Bidean dagoen ibilgetua" instalazio konplexu espezializatuei dagokie ia osorik. 2009ko eta 2010eko abenduaren 31n saldo hau osatzen duten kontzeptu nagusiak honako hauek dira:

	2010	2009
Bilketa pneumatikoa, Alde Zaharra	11.993.703,45	723.999,44
Biometanizaziotik aprobetxatzen ahal den aktiboa	1.823.092,77	2.916.527,82
Zizur Nagusiko kolektorea	918.887,08	918.887,08
San Andres errota	857.947,41	
Undio hornitzea	334.685,02	332.530,02
Izarbeibar hornitzea	270.468,09	270.054,43
Irure eta Akerreta hornitzea	241.574,13	
Goñibar hornitzea		683.218,98
Mutiloako sareak		374.528,87
Gipuzkoa etorbideko sareak		288.575,96
Galarko ur-andela		240.136,70
Bideratzen ari diren beste obra batzuk, zenbateko gutxiagokoak	1.242.558,44	1.596.472,08
Bidean dauden obrak guztira	17.682.916,39	8.344.931,38

Bestalde, honako hauek dira 2009ko eta 2010eko ekitaldietan abiatu diren obrarik esanguratsuenak:

	2010	2009
Bilketa pneumatikoa (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	11.171.155,95	675.388,44
Salesas eraikineko lurrak	4.501.145,50	
Curia Navarrerriako sareak (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	3.026.059,43	
San Andres errota (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	814.074,45	
Berriozarko kolektorea (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	719.099,42	
Zaborteigiko lurrak bideak (Lurrak eta eraikinak)	372.451,68	1.320.371,54
Jabetzan dauden kontagailuak (ins. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk)	349.480,75	
Zaborra biltzeko ibilgailuak (ins. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk)	315.698,28	972.000,00
Gipuzkoako etorbideko sareak berritzea (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)	275.542,38	
Obren ibilgailuak (ins. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk)	249.777,86	
Zaborrontziak (ins. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk)	241.925,99	883.979,52

Hardwarea (ins. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk)	238.218,24	
Alde Zaharreko sareak 1. etapa (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		1.279.119,75
Eslava kaleko sareak (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		980.311,37
Alde Zaharreko sareak 3. etapa (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		940.396,23
Goñibar hornitza 2. fasea (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		628.680,16
Tailerra handitzeko erreforma (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		587.401,90
Mutiloako sareak berritzea (bidean dagoen ibilgetua eta aurrerakinak)		364.612,43
Hardwarea (ins. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk)		335.468,73
Arazuriko araztegiko makineria (ins. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk)		297.854,05
Beste obra batzuk, zenbateko txikiagoak	2.024.450,64	3.661.486,30
Gehitzeak guztira	24.299.080,57	12.927.070,42

Taldearen politika da aseguru polizak formalizatzea, bere ibilgetu materialen elementuek izaten ahal dituzten arriskuak estaltzeko. Aipatutako arriskuen estalduran ez dago defizitrik.

2010eko abenduaren 31n erabat amortizatu diren elementuak eta erabiltzen ari direnak 78.601.936,13 eurokoak dira.

6.- INBERTSIOAK HIGIEZINETAN

2009ko eta 2010eko ekitaldietan, higiezin inbertsioetako kontuetan eta dagozkien amortizazioetan izandako xehetasuna eta mugimendua honako hauek izan dira:

	Eur
Saldoa, 2008ko abenduaren 31n	315.517,08
Kalte-ordainak, birzatatzeak direla eta	33.302,31
Saldoa, 2009ko abenduaren 31n	348.819,39
Kalte-ordainak, birzatatzeak direla eta	23.679,21
Saldoa, 2010eko abenduaren 31n	372.498,60

7. IBILGETU UKIEZINA

2009ko eta 2010eko ekitaldietan, ibilgetu ukiezinaren kontuetan eta dagozkien amortizazioetan izandako xehetasuna eta mugimendua honako hauek izan dira:

	Saldoa				Saldoa		
	2008.12.31	Gehitzeak	Traspasoak	Doitzea	2009.12.31	Gehitzeak	2010.12.31
Balio Gordina							
Emakidak	3.819.279,43				3.819.279,43		3.819.279,43
Aplikazio informatikoak	1.644.444,08	85.583,48	308.333,88		2.038.361,44	266.286,91	2.304.648,35
Erabiltzen ari diren aplikazio informatikoak	230.909,96	151.045,35	-308.333,88	-2.560,00	71.061,43	93.050,91	164.112,34
Balio Gordina Guztira	5.694.633,47	236.628,83		-2.560,00	5.928.702,30	359.337,82	6.288.040,12

Amort. metatua

Emakiden amortizazioak	3.385.398,63	194.205,69		3.579.604,36	177.649,70	3.757.254,06	
Aplikazio informatikoen amortizazioa	1.196.091,60	208.477,52		-131.996,93	1.272.572,19	310.467,48	1.583.039,67
Amort. metatua guztira	4.581.490,23	402.683,25		-131.996,93	4.852.176,55	488.117,18	5.340.293,73
Balio garbia	1.113.143,24	-166.054,42		129.436,93	1.076.525,75	-128.779,36	947.746,39

"Aplikazio informatikoak" eta "Bidean dauden aplikazio informatikoak" izeneko gehitzeetan 2009ko eta 2010eko ekitaldietan erregistratu diren mugimenduak aplikazio informatikoak garatzeari dagozkio. Ibilgetu inmateriala osatzen duten gainerako epigrafeak beste aplikazio informatiko batzuei eta hainbat emakidari dagozkie.

2010eko abenduaren 31n erabat amortizatu diren elementuak eta erabiltzen ari direnak, guztira, 4.207.927,67 euro dira.

8. IZAKINAK

Honako izakin hauek zeuden 2009ko eta 2010eko abenduaren 31n:

	2010	2009
Eskualdeko Hiri Garraioaren txartelak	25.829,39	48.783,96
Kontagailuak	74.801,16	56.531,87
Hoditeria	101.737,13	103.024,45
Balbulak	216.043,29	208.992,01
Obrarako beste material batzuk	872.222,14	871.265,65
GUZTIRA	1.290.633,11	1.288.597,94

Ekitaldiko kontsumoen xehetasuna 19 b) oharrean dago.

Taldearen politika da aseguru polizak formalizatzea, bere izakinek izaten ahal dituzten arriskuak estaltzeko.

9. ZORDUNAK

Ondoko zordunak zeuden 2009ko eta 2010eko abenduaren 31n:

	2010	2009
Bezeroak, salmentengatik edo zerbitzuak emateagatik	16.159.882,06	14.680.845,62
Bezeroak, Taldeko enpresak eta enpresa elkartuak	7.333,68	8.675,23
Hainbat zordun	215.066,34	112.141,39
Langileria	3.169,04	3.450,81
Administrazio publikoekin dauden beste kreditu batzuk	9.376.806,92	6.133.650,35
GUZTIRA	25.762.258,04	20.938.763,40

"Bezeroak, salmentak egiteagatik eta zerbitzuak emateagatik" atalak 1.585.418,52 euroko zenbatekoa du barne, oraindik jaulki ez diren fakturengatik izandako diru sarrereri dagokiena. Ur kontsumoengatik izandako diru-sarrerak dira gehienbat, 4.o) oharrean azaldutakoarekin bat.

Epigrafe berean ere agertzen da ekitaldiko kaudimen-gabeziendako hornidura, sei hilabetetik gorako antzintasuna duten abonatu-bezeroen zorra kontuan hartzen duena. Hona hemen horren mugimendua:

Euros

Saldoa, 2008ko abenduaren 31n	764.437,99
Ekitaldiko hornidurak	382.804,63
Ekitaldiko berreskuratzek	-183.179,72
Saldoen kitapenak	-88.113,82
Saldoa, 2009ko abenduaren 31n	875.949,08
Ekitaldiko hornidurak	504.634,86
Ekitaldiko berreskuratzek	-27.563,40
Saldoen kitapenak	-148.583,29
Saldoa, 2010eko abenduaren 31n	1.204.437,25

Ondokoak dira administrazio publikoekin izandako saldo zordunak:

	2010	2009
FEDER, dirulaguntzengatik zorduna (12.a oharra)	1.872.208,08	1.872.208,08
NILSA, saneamendua ustiatzeagatik zorduna	1.768.651,69	1.768.145,72
Udalak, ekarpenengatik zordunak (12.a oharra)	2.409.014,81	1.082.172,07
Ogasun publikoa, BEZarengatik zorduna (ikus 1.C oharra)	1.675.439,81	898.033,98
Nafarroako Gobernua, dirulaguntzengatik zorduna (12.a oharra)	1.600.569,58	390.053,08
Nafarroako Gobernua, ekarpenak egiteagatik zorduna	0,03	118.883,42
NILSA, dirulaguntzengatik zorduna (12.a oharra)	50.922,92	4.154,00
GUZTIRA	9.376.806,92	6.133.650,35

10. EPE MOTZERAKO FINANTZA INBERTSIOAK

Ondokoa da kontu horren banakatzea, 2009ko eta 2010eko abenduaren 31n:

	2010	2009
Epe finkorako ezarpenek sorrarazitako interesa	2.823,13	4.764,24
Eratutako fidantzak	34.998,66	32.202,67
TOTAL	37.821,79	36.966,91

11. TALDEAREN FONDOAK

Ondokoa da kontu horren banakatzea, 2009ko eta 2010eko abenduaren 31n:

	2010	2009
Gizarte fondoa	48.377.164,27	51.599.274,56
Erabilera orokorrari emandako ondarea	-8.720.676,50	-8.720.676,50
Erreserba sozietate bateratuetan	12.393.275,70	9.757.895,80
Irabazia / (Galera)	-344.249,52	-487.718,90

a) **Gizarte funtsa**

Honako hauek osatzen dute gizarte fondoak: udal, kontzeju, eta beste entitate batzuek egindako ekarpenek —eskudiruzko entregetan gauzatuak—, ondasun ibilgetuen ekarpenek eta beste kontu-sail zordun eta hartzekodun batzuek, eta aurreko ekitaldietan Mankomunitateak eta Mendeko Sozietateak izandako emaitzek.

b) **Erabilera orokorrari emandako ondarea**

Erabilera orokorrari emandako ondare gisa hartu da Ibai Parkeari lotutako aktiboak ematearen zati bat (zenbatekoa: 8.720.676,50 euro)

c) **Erreserbak sozietate bateratuetan**

2010eko abenduaren 31n, erreserba hauen saldo osoa Mendeko Sozietateak, Iruñerriko Zerbitzuak, SAK emandakoei dagokie.

12. JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

a) **Kapital dirulaguntzak**

Hona hemen epigrafeko saldoen eboluzioa 2009ean eta 2010ean:

	Saldoa			Saldoa			Saldoa	
	2008.12.31	Gehitzeak	Ateratzeak	Doitzeak	2009.12.31	Gehitzeak	Ateratzeak	2010.12.31
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK								
NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA								
Horniduretarako obrak	67.339.272,18	907.056,90	20.154,80		68.226.174,28	792.722,92		69.018.897,20
Saneamendurako obrak	13.764.121,50				13.764.121,50			13.764.121,50
Sare lokaletako obrak	18.000.307,77	2.256.929,67			20.257.237,44	1.359.192,32		21.616.429,76
Hiri-hondakinak	19.721.592,99	330.638,96			20.052.231,95	4.745.135,14		24.797.367,09
Chinchilla jeneralaren kaleko eraikina	678.064,88				678.064,88			678.064,88
Arteta etxea	103.232,26				103.232,26			103.232,26
Ibai Parkea	92.934,73	47.857,63	57.309,89		83.482,47	373.557,25		457.039,72
NILSAREN DIRULAGUNTZA								
Saneamendua	43.260.253,42	842.348,22			44.120.601,64	181.462,11		44.284.063,75
ESTATUAREN DIRULAGUNTZA								
Eugiko minizentrala	312.261,85				312.261,85			312.261,85
Urtasungo minizentrala	92.339,50				92.339,50			92.339,50
DIRULAGUNTZAREN ZERGA ONDORIOA	-56.584,26		-17.109,99	-66.247,88	-105.722,15	-21.647,34	39.103,63	-88.265,86

Dirulaguntzak guztira	163.307.796,82	4.384.831,38	60.354,70	-66.247,88	167.566.025,62	7.430.422,40	39.103,63	175.035.551,65
Emaizara transferitutako dirulaguntzak guztira	-83.838.278,35	-8.705.903,16	-8.957,69		-92.535.223,82	-8.740.076,05		-101.275.299,87
Gordina guztira	79.469.518,47	-4.321.071,78	51.397,01	-66.247,88	75.030.801,80	-1.309.653,65	39.103,63	73.760.251,78

2010eko abenduaren 31n, kobratu gabe zeuden dirulaguntza hauen 3.523.700,58 euro, "Administrazio publikoak" epigrafean erregistraturik, aipatutako datan balantze bateratuaren aktiboarena (ikus. 9. oharra)

b) Hainbat ekitalditan banatzeko beste sarrera batzuk

Honako hauek izan dira 2009ko eta 2010eko ekitaldietako xehetasunak eta mugimenduak:

	Saldoa			Saldoa			Saldoa		
	2008.12.31	Gehitzeak	Ateratzeak	Doitzeak	2009.12.31	Gehitzeak	Ateratzeak	Doitzeak	2010.12.31
Banatu beharreko beste diru-sarrera batzuk	2.639.033,14	227.009,51			2.866.042,65	714.831,11			3.580.873,76
NILSA, banatu beharreko beste diru-sarrera batzuk	3.424.362,20				3.424.362,20				3.424.362,20
Banatu behar. beste diru sar. batzuk, Ipertegiko kolektorea.	1.021.048,89				1.021.048,89				1.021.048,89
Avanza, banatu beharreko beste diru-sarrera batzuk	349.402,20		42.091,00		307.311,20				307.311,20
Banatu beharreko beste diru-sarrera batzuk. Zerga ondorioa	-191.371,31	-14.792,84	-17.631,32	-2.663,78	-191.196,61	-2.144,49	74,44		-193.266,66
Banatu beharreko beste dirulaguntza batzuk guztira	7.242.475,12	212.216,67	24.459,68	-2.663,78	7.427.568,33	712.686,62	74,44	-3.424.362,20	4.715.967,19
Banatu beharreko beste diru-sarrera batzuk, emaitzara transferituak	-3.922.087,40	-60.707,56		12.460,00	-3.970.334,96	-75.886,83		3.424.362,20	-621.859,59
Gordina guztira	3.320.387,72	151.509,11	24.459,68	9.796,22	3.457.233,37	636.799,79	74,44		4.094.107,60

13. HORNIDURAK EPE LUZERA

Epigrafe honetan ondoko mugimenduak izan ziren 2009an eta 2010ean:

	Saldoa 2008.12.31	Finantza eguneratzea	Espero zen mozkina	Superabit aktuariala aitortzea	Saldoa 2009.12.31	Finantza eguneratzea	Espero zen mozkina	Galera aktuarialk aitortzea	Saldoa 2010.12.31
Hornidurak, langileei epe luzerako ordainsariak emateagatik (4.1 eta 12. oharrak)	2.612.712,00	664.693,20	-554.065,01	-1.617.396,14	1.105.944,05	667.380,06	-663.142,31	91.879,19	1.242.060,99
Biometanizazio obrak eraisteko hornidura	521.957,10	5.219,52			527.176,62	15.815,30			542.991,92
Hornidura, HHTZko hustuketa gelak eraisteagatik (23. oharra)	17.248.736,53	172.487,40			17.421.223,93	522.636,72			17.943.860,65
GUZTIRA	20.383.405,63	842.400,12	-554.065,01	-1.617.396,14	19.054.344,60	1.215.832,08	-663.142,31	91.879,19	19.728.913,56

2010ean, "Hornidurak, langileei epe luzerako ordainsariak emateagatik" epigrafean erregistratutako mugimenduek ondokoak jasotzen dituzte: hornidura eguneratzeari dagozkion finantza gastuak (677.380,06 euro), pentsio planari lotutako aktiboetatik espero zen mozkina (-633.142,31 euro) eta defizit aktuariala aitortzea (91.879,19 euro).

2010eko ekitaldian, "Hornidurak, HHTZko hustuketa gelak eraisteagatik" eta "Hornidura, biometanizazioaren obrak eraisteagatik" izeneko ataletan erregistratutako mugimendua kalkulu horien finantza eguneratzeari dagokio.

14. ZORRAK KREDITU ERAKUNDEEKIN

Honako hau da Sozietate Menderatzaileak 2010eko abenduaren 22an jasotako mailegua, baita horrek 2010eko abenduaren 31n zuen egoera ere:

	Saldo osoa	Epe laburrera	Epe luzera
Nafarroako Kutzako mailegua, interes nominal aldatokorra (EURIBOR+%1,95), 15 urteko epera	4.029.750,00	207.255,84 (nota 15)	3.822.494,16

Honako hau da epe luzerako maileguaren banaketa 2010eko abenduaren 31n, epemugekin bat:

Urtemuga	Zenbatekoa
2012	214.723,74
2013	222.460,72
2014	230.476,48
2015	238.781,06
2016 eta hurrengoak	2.916.052,17
Guztira, epe luzera	3.822.494,16

15. ZORRAK EPE LABURRERA

2009ko eta 2010eko abenduaren 31n, ondoko xehetasunak zituzten:

	2010	2009
Eskualdeko Hiri Garraioaren txartelen soberakina	756.225,50	4.236.804,46
Biometanizazioa, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deuseztatzea	1.742.373,97	1.742.373,97
Biometanizazioa, Bruselako dirulaguntza deuseztatzea	1.533.119,00	1.533.119,00
Ibilgetuen hornitzaileak epe laburrera	6.119.857,57	1.194.051,98
Epe laburrera jasotako fidantzak eta gordailuak	318.214,83	465.191,99
Zorrek kreditu-entitateekin (14. oharra)	207.255,84	
Avanza, dirulaguntza	19.355,00	19.355,00
Beste batzuk	58.236,23	15.863,79
GUZTIRA	10.754.637,94	9.206.760,19

16. HORNITZAILEAK

2009 eta 2010eko balantzeko "Hornitzaileak" epigrafea osatzen duten kontu-sail nagusiak honako hauek dira:

	2010	2009
UTE Ros Roca-FCC	1.243.329,84	
Egillorko zentrala, Iberdrolak eskatutako kanonaren aurreikuspena	735.218,69	94.888,99
Logista	490.064,12	
Eugiko urtegiaren kanonerako aurreikuspena	300.000,00	300.000,00
Canal de Navarra, S.A.	248.646,24	249.333,32
Fomento Construcciones y Contratas, S.A.		428.333,32
Beste batzuk	735.739,47	1.100.588,79
GUZTIRA	3.752.998,36	2.173.074,79

Zor hauek guztiek urtebetetik beherako mugaeguna dute, eta bakar bat ere ez dago inolako berme erreal baten mendean.

17. ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK

a) Hartzekodun batzuk

2009ko eta 2010eko abenduaren 31n, ondoko xehetasunak zituzten:

	2010	2009
Fomento de Construcciones y Contratas, S.A.	3.538.169,49	4.588.641,17
NILSA	5.595.296,45	4.899.458,32
Transports Ciutat Comtal, S.A.	1.425.689,66	958.767,31
AZYSA Obras y proyectso, S.L.	457.199,61	
Fundación Traperos de Emaus	360.216,48	238.684,43
Agringes Navarra, S.L.	148.380,34	128.683,58
Obysur, S.L.	166.671,83	88.974,34

Clece, S.A.	113.410,77	
Arte Verde Navarra, S.L.	97.098,20	71.725,44
Lacunza Hermanos, S.L.	85.211,27	
Ofita Navarra S.A.	69.637,55	64.455,56
Obras especiales Navarra, S.A.		573.018,51
La Montañesa, S.A.L.		225.009,61
LKS Ingeniería S. Coop		129.846,69
Servicios Artaza S.L.		117.668,64
Finanzauto S.A.		106.583,24
Vanagua S.A.		86.932,60
CIMA Ingenieros S.L.U.		71.383,50
Beste batzuk	2.312.555,50	2.032.093,73
GUZTIRA	14.369.537,15	14.381.926,67

b) Administrazio publikoak:

2009ko eta 2010eko abenduaren 31n, ondoko kontu-sailek osatzen zuten administrazio publikoen saldo hartzekoduna:

	2010	2009
Gizarte Segurantzarengatik	445.278,69	467.332,50
Jasanarazitako BEZarengatik	374.988,63	404.030,74
GUZTIRA	820.267,32	871.363,24

Zor arruntei dagozkie zenbateko hauek.

18. ZERGA EGOERA- SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ZERGA OINARRIAREKIN EMAITZA BERDINKATZEA

Mendeko Sozietateak Sozietateen gaineko Zerga aitortzen du urtero. Mozkinak –zergen gaineko legediarekin bat zehazturik– zerga oinarriaren gaineko %30eko karga dute. Behin betiko kuotatik hainbat kenkari eta hobari egiten ahal dira.

Hainbat eragiketarendako, zergen gaineko legediak onartzen duen tratamendu desberdina dela eta, kontabilitatearen emaitza eta zerga oinarri fiskala desberdinak dira. Jarraian, ondoko bi alderdi hauen arteko berdinkatzea agertzen da: 2010eko ekitaldiko kontabilitatearen emaitza eta urteko kontuak onartutakoan Mendeko Sozietateak aitortzea aurreikusi duen zerga oinarri fiskala.

	Euro
Ekitaldiko kontabilitatearen emaitza, zergen aurretik	3.157.220,99
Desberdintasun iraunkorrak	641.613,36
Emaitza doitua	3.798.834,35
Denbora desberdintasunak	1.756.874,88
Likidazio oinarria	5.555.709,23

Kuota osoa %30ean	1.666.712,77
%99ko hobaria zerbitzu publikoen kuotaren gainean	1.478.323,01
Aldea	188.389,76
Kenkaria inbertsioengatik	65.936,42
Ordaindu beharreko kuota likidoa	122.453,35
Atxikipenak eta kontura egindako ordainketak	48.931,98
Ogasun Publ. zorduna Soz. gaineko Zergarengatik	73.521,37

Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen 24/1996 Foru Legean, abenduaren 30ekoan, xedatutakoarekin bat, Sozietateak %99ko hobaria du zerbitzu publikoetatik —udalaren eskumenekoak— etorritako errentei dagokien kuota osotik.

2010eko kuota likidoaren eta Sozietateen gaineko Zergarengatik izandako gastuaren arteko berdinkatzea honako hau da:

	Euro
Kuota likidoa	122.453,35
Zerga geroratua	7.437,28
2009ko zerga doitzea	27,67
Sozietateen gaineko Zergaren gastua guztira	129.918,30

Ondokoa da denbora aldean xehetasunak gastuak eta diru-sarrerak aitortzean, kontabilitate eta zerga ondorioetarako. Xehetasun hauetan ere agertzen da behar den zerga ondorio metatua, aurreratua edo geroratua, behin kontuan harturik denbora desberdintasunen zerga ondorioaren gaineko %99ko hobaria. Denbora desberdintasun hauek sortu dira zerbitzu publiko eta minizentral elektrikoetatik etorritako errenten ondorioz. Hona hemen:

	Euro
Aktiboak zerga geroratuarengatik	116.298,25
Pasiboak zergei lotutako denbora desberdintasunengatik	281.532,52

Indarrean dagoen legediari jarraiki, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat hartu, harik eta aurkeztutako aitorpenak agintari fiskalek ikuskatu arte, edo lau urteko preskripzio epea iragan arte. 2010eko abenduaren 31n, Mendeko Sozietateak irekita ditu 2007ko urtarrilaren 1etik (2006ko urtarrilaren 1etik, Sozietateen gaineko Zergarendako) ezarri ahal zaizkion zerga nagusi guztiak, agintari fiskalek ikuska ditzaten. Ikuskapena eginez gero, Mendeko Sozietateko administratzaileen irudiko ez da pasibo garrantzitsu gehiagorik agertuko.

Aurkeztutako Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenekin eta 2009an aurkeztuko den horrekin bat, Mendeko Sozietateak aplikatzen ahal diren kenkariak ditu inbertsioengatik eta pentsio planarengatik, ondoko xehetasunaren arabera:

Euro			
Jatorriaren urtea	Inbertsioak	Pentsio plana	Ondoko urtea arte aplikagarriak
2001	237.599,69	---	2011

2002	319.318,15	56.579,75	2012
2003	473.048,30	68.384,67	2013
2004	825.494,45	59.021,49	2014
2005	423.549,88	53.577,04	2015
2006	3.770.853,05	52.720,14	2016
2007	334.648,87	51.079,79	2017
2008	732.194,32	50.484,31	2018
2009	1.277.991,71	51.446,97	2019
2010 (aurreikusia)	882.193,36	53.489,40	2020
	9.276.891,78	496.783,56	

Mendeko Sozietateak, zerbitzu publikoen kuotaren gaineko %99ko hoberia izateagatik zerga erregimen berezia duela kontuan harturik, erabaki du aipaturako zerga kredituak ez aktibatzea, beren konpentsazioaldian ziur aplikatuko diren zehazterik ez baitago.

Mendeko Sozietateak konpromisoa du inbertsioengatik izandako zerga arintzeari lotzen zaizkion aktibo finkoak bost urtez mantentzeko.

19. DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

a) "Negozio-kopuruaren zenbateko garbia" epigrafeak, 2009ko eta 2010eko ekitaldietako galera eta irabazien kontu bateratukoak, ondoko xehetasunak ditu:

	2010	2009
Hornidura zerbitzuak	18.018.288,88	18.142.935,82
Saneamendu zerbitzuak	6.002.504,78	5.813.165,15
Kontratazio eta lotura eskubideak	930.257,59	1.152.975,19
Kontagailuen alokairua	95,89	70,75
Zaborrak biltzeko zerbitzuen fakturazioa	25.056.620,00	22.863.890,22
Beste inori materialak eta zerbitzuak saltzea	20.144,12	22.566,52
Konpontze lanak eta instalazio berriak partikularrei	317.826,90	231.950,07
Diru-sarrerak, zabortegien ustiapena eta material berreskuragarria dela-eta	4.158.513,36	3.911.790,78
Lohietatik etorritako diru-sarrerak	328.891,54	349.639,66
Aprobetxamendu elektrikoa	2.528.327,44	2.514.763,52
Edalontzietatik etorritako diru-sarrerak	4.252,93	3.597,26
Taxien tasak	55.710,00	39.302,10
Beste tasa batzuk	119.819,80	22,20
GUZTIRA	57.541.253,23	55.046.669,24

b) 2009ko eta 2010eko ekitaldietako "Ur kontsumoa" eta "Merkataritza izakinen kontsumoa eta beste hornidura batzuk" epigrafeetan ondoko kontzeptuak jaso dira:

	2010	2009
Ur kontsumoa		

Ebroko Konfederazio Hidrografikoari erositako ura	296.777,13	125.006,74
Nafarroako Ubideari erositako ura	949.621,07	935.910,80
Merkataritza izakinen kontsumoa eta beste hornidura batzuk		
Merkataritza izakinen erosketak	38.652,68	10.430,15
Erreaktibo kimikoak erostea	743.145,00	677.323,06
Obretarako materialak erostea	484.816,85	543.187,77
Energiaren erosketak ekoizpen prozesurako	1.183.424,80	1.240.819,29
Beste hornidura batzuk erostea	324.892,54	323.480,44
Eskualdeko Hiri Garraioaren txartelak erostea	31.792,00	58.916,40
Izakinen aldaketa	-2.035,17	-174.025,90
GUZTIRA	4.051.086,90	3.741.048,75

c) Ondoko kontu-sailek osatzen dute 2009ko eta 2010eko ekitaldietako "Ustiatzetik etorritako beste diru-sarrera batzuk" epigrafea (4.h.3 oharra):

	2010	2009
Eskualdeko Hiri Garraioa, ekarpenak	8.549.051,99	6.148.736,58
Ibai Parkea, ekarpenak	377.843,66	592.055,04
NILSaren transferentzia, sare nagusiko saneamendua ustiatu eta kudeatzeagatik	7.446.014,82	7.344.638,87
Diru-sarrera bereziak	888.523,31	
Beste diru-sarrerak batzuk	57.185,18	381.922,18
Beste dirulaguntza batzuk	642.222,30	737.930,13
GUZTIRA	18.005.841,26	15.205.282,80

d) "Langileen ordainsariak" atalaren 2009ko eta 2010eko ekitaldietako kontuak honela banakatu dira:

	2010	2009
Langileen lansariak	15.435.542,87	15.612.312,89
Langileen antzinatasuna	649.459,62	631.132,33
Aparteko orduak	19.427,35	31.027,44
Plusak	639.631,12	697.079,90
Langileen garraioa	4.603,11	5.961,20
Kalte-ordainak	33.899,90	30.000,00
Lansariak, soldatak, eta antzekoak guztira	16.782.563,97	17.007.513,76
Lan-kontratuko langileen Gizarte Segurantza	4.626.907,85	4.924.284,26
Administrazioen organoendako ordainsariak (20. oharra)	102.611,57	153.772,50
Beste gizarte gastu batzuk	263.239,23	312.565,89
Gizarte kargak guztira	4.992.758,65	5.438.443,79
Pentsio fondorako hornidura	1.193.424,91	1.346.980,61

"Pentsio funtserako zuzkidura" atalak jasotzen du 2009ko eta 2010eko ekitaldietan Mendeko Sozietateak egin zuen ekarpena.

e) Hona hemen enplegatuen kopurua 2009ko eta 2010eko ekitaldien bukaeran, lan-kategorien arabera banatuta. Urteko batez bestekoaren antzekoa da:

LAN KATEGORIA	2010			2009		
	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak
Iruñerriko Zerbitzuak SA						
Administraria	76	67	9	77	68	9
Zuzendari-kudeatzailea	1	1		1	1	
Obra arduradun nagusia	1		1	1		1
Espezialista	103	18	85	111	20	91
Arduradunorde gaitua	7		7	7		7
Bulego teknikoko ingeniari teknikoa	2		2	3		3
Kontabilitateko burua	1		1	1		1
Saileko burua	1		1	1		1
Saileko burua	1		1	1		1
Plantako burua	1		1	1		1
Instalazio berrietako eta mantentze zerbitzuko burua	1		1	1		1
Ofizial profesionala	115	2	113	114	2	112
Kimikaria				1		1
Bulegoko buruordea	2	1	1	2	1	1
T.G.M. antzekoa	17	5	12	19	5	14
Teknikaria	63	11	52	63	10	53
Teknikari espezialista	44	18	26	42	16	26
Goi-mailako tituluduna 1. mailakoa edo antzekoa	6		6	6		6
Goi-mailako tituluduna 2. mailakoa edo antzekoa	36	15	21	33	15	18
Iruñerriko Mankomunitatea						
Burutza kabinetea	2	2		2	2	
Kontu-hartzailea	1		1	1		1
Mankomunitateburua	1		1	1		1
Goi-mailako tituluduna 1. mailakoa edo antzekoa	2	1	1	2	1	1
Goi-mailako tituluduna 2. mailakoa edo antzekoa	2	2		2	2	
GUZTIRA	486	143	343	493	143	35

f) 2009ko eta 2010eko ekitaldietako "Beste ustiapen gastu batzuk" epigrafean, ondoko kontzeptuak jaso dira:

	2010	2009
Kanpoko zerbitzuak:		
Ikerketa eta garapenerako gastuak	18.001,91	38.623,35
Errentamenduak eta kanonak	514.939,09	520.638,22
Konpontze, kontserbatze, eta berriztatze lanak	5.000.308,36	4.951.275,94
Profesional independenteek emandako zerbitzuak	1.232.707,84	1.270.087,45
Garraioak	656.027,43	562.876,09
Aseguru primak	694.359,88	769.011,36
Banku zerbitzuak eta antzekoak	60.053,75	67.320,87
Publizitatea, propaganda, eta harreman publikoak	1.603.842,51	1.686.267,85
Hornidurak	439.250,77	391.478,88
Beste zerbitzu batzuk	2.383.250,77	2.443.718,90
Zergak	1.763,08	188,61
Hornidurak galtzea, narriatzea eta aldatzea, merkataritza eragiketengatik (9. oharra)		
Ekitaldiko hornidurak	504.634,86	382.804,63
Ekitaldiko berreskuratzeak	-27.563,40	-183.179,72
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk:		
Garraio publikoaren transferentziak	11.546.635,19	8.422.304,73
Ibai Parkearen kostuak	60.180,67	97.064,10
Iberdrolaren kanona	640.329,70	462.419,56
Beste batzuentzako kalte-ordainak	154.648,46	34.313,58
Ohiz kanpoko gastuak	1.271.470,40	165.211,88
GUZTIRA	26.754.901,26	22.082.426,28

"Errentamenduak eta kanonak" epigrafeak 306.719,03 euro jasotzen ditu, ondokoak alokatzeari dagozkionak: bulegoetarako hiru egoitza, aparkalekuak, bi ibilgailu eta eskorga bat.

2010eko abenduaren 31n, Mendeko Sozietateak errentatzaileekin kontratatu ditu errentamendu operatiboari dagozkion gutxieneko kuotak, jarraian ageri direnak, indarrean dauden egungo kontratuekin bat. Ez dira kontuan hartu ez gastu arrunten eragina, ez KPlarengatik etorkizunean izanen diren gehitzeak, ez eta kontratu bidez hitzartutako errenten etorkizuneko eguneratzeak ere:

	2010	2009
Etorkizuneko gutxieneko ordainketen zenbatekoa, deuseztatu ezin diren errentamendu operatiboengatik		
Urtebetera arte	136.542,88	87.426,18
Urtebete eta bost urte bitartean	72.683,21	103.106,09

g) 2009ko eta 2010eko ekitaldietako "Ibilgetu ez-finantzarioaren dirulaguntzak egozte eta beste batzuk" atalean sartutako epigrafeek ondoko xehetasunak dituzte:

	2010	2009
Dirulaguntzak, erabiltzeko utzitako ibilgetuarengatik (12.a) oharra)	8.740.075,98	8.705.903,07

Beste diru-sarrera batzuk, hainbat ekitalditan banatu beharrekoak (12.b) oharra)	75.886,83	60.707,56
GUZTIRA	8.815.962,81	8.766.610,63

20. ADMINISTRAZIO ORGANOEI BURUZKO INFORMAZIOA

Mankomunitateko eta Mendeko Sozietateko administrazio organoetako kideek 2010eko ekitaldian hainbat ordainsari jaso dituzte, saioetan benetan egoteagatik ematen den ordainketa gisa (Batzarrak eta Administrazio Kontseiluak, edo Sozietatearen Menderatzailearen edo Mendekoaren ohiz kanpoko bilerak) (19.d oharra). Horrez gainera, Sozietate Menderatzailean ordainsariak daude, soldata gisa.

	2010	2009
Mankomunitatea		
Dietak	65.993,22	107.845,78
Kabineteko langileen soldatak	65.504,09	69.604,5
Goi-kargudunen soldatak	58.039,20	60.879,98
GUZTIRA	189.536,51	238.330,26

Taldeak aseguru poliza bat kontratatu du, Administrazio Kontseiluko kide guztien erantzukizun zibila estaltzen duena, beren eginkizunek sortzen ahal dituzten erantzukizunei —Kapital Sozietate Legean jasoak— aurre egiteko. Gainera, administrazio organoetako kide hauek bizi eta istripu aseguru bat dute. Hori dela eta, 8.206,67 euro ordaindu dira 2010ean.

Administrazio Organoko egungo edo lehengo kideekin Taldeak ez du beste inolako betebeharririk hartu (pentsioak, etab). 2010ean kide hauei ez zaie inolako aurrerakinik edo mailegurik eman.

Administrazio organoei dagokie Taldeko goi-zuzendaritza.

21.- KONTINGENTZIAK

2010eko abenduaren 31n, gauzatze fasean zegoen 114/2008 apelazio-errekurtsoaren epaia, Administrazioarekiko 72/2006 auzi-errekurtsoa ebatzi zuen epaiaren aurka eman zena. "La Montañesa Veolia Transporte, S.L.U." enpresak jarri zuen errekurtso hura, 2006ko ekainaren 14an Iruñerriko Mankomunitateko Batzarrak hartutako erabakien aurka. Hain zuzen ere, erabaki horiek ez zituzten bi eskaera aintzat hartu, alde batetik, Eskualdeko Hiri Garraioaren zerbitzuaren emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzearena eta, bestetik, bidaiarien kopuruari buruzko konpromisoa berrikustearena. 2009ko urtarrilaren 26ko epai horretan, epaimahaiak aintzat hartu zuen "La Montañesa Veolia Transporte, S.L.U." enpresaren eskaeren zati bat. Halaber, epaia gauzatzen den faserako atzeratu zuen zenbatekoa finkatzeko erabakia. Eskatzaileak gauzatze-eskaera egina du horretan, eta 3.603.698,63 euro eskatzen dira ordaindu beharreko kalte-ordainarengatik (2.756.244,99 euro nagusiari dagozkio, eta 847.453,64 euro, berriz, berandutzako interesei). Mankomunitateko legezko ordezkariak kalte-ordain horren aurka dagoela adierazi du; horren ondorioz, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak aditu-froga judiziala egitea proposatu du. Hori dela eta, gaur egun ez da jakiten epaimahaiaren epaiak Iruñerriko Mankomunitateari ekarriko dizkion pasibo gehigarrien zenbateko zehatza zein den. Gainera, ez dago epai horren aurka egiterik. Errekurtso horiekin bat, kontzesiodunak gora jotzeko errekurtsoa jarri du Nafarroako Administrazio Epaitegian 2004, 2005 eta 2006ko ekitaldietako behin betiko likidazioei dagozkien ebazpenen aurka (epaitegiak ez zituen onartu, 4271 Ebazpena, 2008ko abuztuaren 8koa, emanik). Hain zuzen ere, oraindano ez da jakin ez-onartze horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri den. Halaber, ebatzi gabe dagoen 2007koaren eta 2009koaren aurka ere gora jotzeko errekurtsoa jarri du —horiek ere ez zituen onartu epaitegiak 2011ko martxoaren 1eko 2077 ebazpenaren bitartez..

Egundaino, ez da oraindik behin betiko konpentsazioa likidatu, 2010eko ekitaldian jarraian aritu zen enpresa kontzesiodunak bidaiarien garraio publikoaren zerbitzuak emateagatik. Hala ere, emakidaren pleguek eta kontratuek jasotako ebazpenei jarraikiz, 1.425.689,66 eurotan kalkulatu dira kontzeptu horien aurka diren ordainketa gehigarriak (17 a oharra).

Sozietatearen ibilgetuan erregistratuta dago oraindik Hiri Hondakinen Zakikatze Organikoaren tratamendurako instalazioak eraikitzeke egin zen obraren inbertsioaren zati bat, 1.823.092,77 eurotan balioztatua. Sozietateak ikusi du aprobetxatzen ahal dela saneamendurako egin beharko diren etorkizuneko inbertsioen esparruan. Ildo beretik, behar diren izapideak egiten ari dira aipatutako inbertsioak aprobetxatu ahalko direla ziurtatzeko.

22.- ITXI ONDOKO GERTAERAK

21. oharrean azaltzen dira errekurso eta erreklamazio batzuk. Gaur egun, ez dago jakiterik horien ondorioz Iruñerriko Mankomunitateak izanen dituen pasibo gehigarrien zenbateko zehatza. Aipatutako errekurso eta erreklamazio hauek izan ezik, 2010eko ekitaldiaren itxiera datatik ez da ondokoei nabarmen eragiten ahal dien inolako gertaerarik izan: 2010eko ekitaldiko Urteko Kontu Bateratuak, bere zerbitzuak ematea edo gizarte xedea betetzea, eta 2010eko abenduaren 31n bere ondasun eta eskubide, zor eta betebeharren egoera edo balioa.

23.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Taldearen jardueren zerrendan (1. oharrean egina) antzematen ahal den bezala, jarduera anitzen berehalako helburua da ingurumen inpaktua gutxitzea, jarduketa berberak eragindakoa izan ezik, Iruñerriko esparruan gauzatutakoek sortu dutena ere. Horrela, nolabaiteko lotura antzeman liteke Taldearen ia gastu eta inbertsio guztien eta ingurumena babesteko jardueraren artean.

Taldeak 17.943.860,65 euroko hornidura bat zuzkitu du, Gongorako zaborteja itxi, zigilatu, eta bertan landatzeagatik (ikus. 13. oharra).

24. BESTELAKO INFORMAZIOA

Mankomunitatearen urteko kontu bateratuen auditoretza egin duen enpresak eta horrekin loturaren bat duten beste enpresa batzuek —Finantza Sistema Berritzeko Neurrien gaineko Legearen hamalagarren xedapen gehigarriak aipatutako loturaren bat— ebatzi dute Sozietate Menderatzaileari zerbitzu-sari eta gastu gisa 21.146,45 euro fakturatzea, 2010eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldian Taldeari emandako ikuskaritza zerbitzu profesional guztiengatik.

Aipatutako zenbatekoak 2010eko ekitaldiari dagozkion zerbitzu-sari guztiak hartzen ditu barne, beren fakturazioaren unea edozein izanik ere.

25. BESTE BATZUEKIN HITZARTUTAKO BERMEAK ETA BESTE PASIBO KONTINGENTE BATZUK

Mendeko Sozietateak hainbat abal aurkeztu ditu erakunde publiko eta sozietate batzuen aurrean, ondoko xehetasunetan azalduak:

	2010	2009
Canal de Navarra, S.A.	250.000,00	250.000,00
Beste batzuk	127.583,92	121.283,92
GUZTIRA	377.583,92	371.283,92

26. HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA-ATZERAPENEI BURUZKO INFORMAZIOA. HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. UZTAILAREN 5EKO 15/2010 LEGEAREN "INFORMAZIO BEHARRA".

Honako hau da "Hornitzaileak" eta "Zenbait hartzekodun" epigrafeetan ordaindu gabe dagoen saldoa, 2010eko abenduaren 31tik ordaintzeko dagoen legezko epea gainditu duena: 99.007,12 euro

URTEKO KONTUAK

Kudeaketa txostena

1. NEGOZIOEN BILAKAERA ETA SOZIJATEAREN EGOERA

Administrazio Kontseiluak, eta, ondorioz, Urteko Kudeaketa Planak 2009-2012 aldirako ebatzi zuten Plan Estrategikoak xedatutakoa gauzatzera bideratuta egon da Mendeko Sozietatearen kudeaketa 2010eko ekitaldian.

2010ean eskatutako zerbitzuak emateari dagokionez, esaten ahal da aurreikusitako helburuak behar bezala bete direla. Ondokoak dira gure jardueren nagusien garapenak izan dituen ezaugarriak:

- **Uraren ziklo integrala:** lazkoaren aldean, uraren ekoizpena %2,8 murriztu da, baita dagokion fakturazioa ere. Emandako uraren kalitateari dagokionez, adierazle guztiek (kloro kontzentrazioa, uhertasuna eta bakteriozia kalitatea) berresten dute emandako urak kalitate maila handia duela eta, indarrean dagoen legedia dela eta, urte honetarako aurreikusita dauden helburuak bete direla. Saneamenduari eta arazteari dagokionez, berriz, adierazle bilakaerak (uretan esekita dauden solidoak kanporatzea eta oxigeno-eskari biokimikoa kentzea) erakusten digu arazte maila handia izaten jarraitzen dela eta urte honetarako aurreikusita zeuden helburuak bete direla.
- **Hiri-hondakinak:** Hondakinen sorrera %1,60 murriztu da aldi honetan, aurreko urtean hasitako beherazko joerari jarraituta –orduan %2,18 murriztu zen–. Aurtengo hondakinen osaketa aztertzeko analisiek erakusten dute papera izan dela gehien murriztu den osagarria. Nahiz eta paper-kartoi kopurua ia %6,02 gutxitu den (19.673 T. 2010ean, eta 20.934 T. 2009an), material horren berreskuratze portzentajea kasik %70 batean dago, aurreko urteekin bat eta EBK finkatutako helburuaren gainetik (%60). Bilketa espezifikoko edo material bakar batekoak murriztu dira, %2,82 (40.420 tona aurten, eta 41.594 tona iaz), eta beira eta egurra soilik izan dira gehiago bildu direnak. Sortutako hondakinen murrizketarekin bat, berreskuratutako materialen kopurua murriztu da iaz berreskuratutako tonekin alderatuta (%2,36); datu horien barne daude lantegian berreskuratutako eta material bakarreko bilketetan berreskuratutako materialak.
- **Eskualdeko Hiri Garraioa:** 2010ean zehar, guztira, 36.590.045 bidaiari garraiatu ziren (behin behineko zifra, egiaztatu behar dena oraindik); beraz, aurreko urtearekin alderatuta, %0,91 behera egin du kopurua; dena dela, beherapena %0,35ekoa izan dela esan daiteke greba orokorra izandako bi egunak eta TCC enpresa kontzesiodunaren langileen bi greba-egunak kontatzen badira. Berrikuntza nagusi gisa, Zizur Nagusiko Ardoi urbanizaziora doan zerbitzua sortu da; horretarako, 15 eta 18 lineak aldatu dira, eta 24. linea sortu da. Ordaintzeko moduari dagokionez, 2010ean bukatu da kontakturik gabeko txartelaren bidez ordaintzeko sistema ezartzeko prozesua. Ustiatzerako Laguntza eta Informazio Sistema ezartzeari dagokionez, apirilean proba-funtzionamendua abiatu zen. Azkenik, Iruñerriko Hiri Garraioaren 2011-2012 plana onartu da.
- **Eskualdeko Taxi Zerbitzua:** 2011. urterako tarifa berriak onetsi dira, baimena eman da taxi zerbitzua eskaintzen duten ibilgailuetan publizitatea jartzeko. Era berean, sektoreko profesionalekin aztertu da mugikortasun urriko erabiltzaileendako laguntzen kudeaketa hobetzeko aukera (bono-taxia).
- **Energia sortzea:** Energia elektrikoaren ekoizpenak harreman zuzena du aldi izandako prezipitazioekin. 2010ean handitu da, 2009. urtearekin eta azken urteotako batez bestekoarekin alderatuz gero. Salbuespena da 2008ko ekitaldia; izan ere, ekitaldi bikaina izan zen zentzu horretan, beste ekitaldi batzuetako energia elektrikoaren sorrera –jatorri hidraulikokoa– nabarmen handitu baitzen. Zehatz-mehatz, 2010ean, jatorri hidraulikoa duen energia elektrikoaren ekoizpena %4,62 igo da aurreko urtekoaren aldean. Eugin %3,67 hazi da, Egillorren %5,49, eta Urtsanen, aldiz, %5,45 murriztu da, Tiebasko araztegia abian jarri zenetik horretan tratatutako bolumena murriztu baita, eta proportzioan, bere ekoizpen elektriko ere bai. Biogaseko zentraleri dagokienez, Arazurik %6,65 handitu du bere ekoizpena, eta Gongorak %11,41 handitu du berea, talde sortzailearen etengabeko funtzionamenduaren ondorioz. Ekitaldiko emaitza ekonomikoari dagokienez, Taldearen galera eta irabazien kontuak 344 m€-ko (mila euro) saldo negatiboa izan du 2010ean. Emaitza honek islatzen du Iruñerriko Mankomunitatearen galera eta irabazien kontuek eskaintzen dituzten emaitzen saldo gehitua, 3.372 m€, negatiboa; eta ozietatearena, 3.027 m€, positiboa. Bi entitateen jarduerak, eta, zehatzago, bakoitzak emandako zerbitzuen finantzabide sistemen berezitasunak kontuan harturik, hona hemen bi entitatei dagozkien emaitzen azterketak.

> Iruñerriko Zerbitzuak SA

Ekitaldiko emaitza ekonomikoari dagokienez, sozietatearen galeren eta irabazien kontuak 3.027 m€-ko (mila euro) saldo positiboa izan du 2010ean.

Sozietatearen izaera eta helburuak kontuan harturik, emaitza ekonomikoak azaltzen ahal dira aurrekontu desbideraketetan oinarriturik. Bestalde, hasierako aurrekontu-aurreikuspenek bideratzen dute bere ekonomia jarduerak. Aurreikuspen horiek — zuhurtasun irizpideei jarraiki eginak— ekonomia-kontabilitate orekaren helburua dute abiapuntu (galera eta irabazien kontuaren "zero" emaitza). Hartaz, honako hauek izaten ahal dira ekitaldiaren garapen ekonomikoaren alderdirik esanguratsuenak eta emaitzaren arrazoi nagusiak:

- Diru-sarreraren eta diru-laguntzen aldizkakotzeen efektua kenduta –atal espezifikoa dute horiek txosten honetan–, ustiatzetik etortziko diru sarrerek izan dute, oro har, 346 m€-tik gorako errealizazio bat, hasieran aurreikusitako baino %0,5 gehiago. Nabarmentzekoa da "Salmentak" ataleko saldo positiboa –1.313 m€– eta "Ekitaldiaren emaitzan sartutako ustiatzeko diru-laguntzak" ataleko saldo negatiboa –659 m€–.
- Ustiatze gastuetan, amortizazioen efektua alde batera utzita, 3.642 m€-ko aurrekia izan dute globalki hartuta, %6, hasierako aurreikuspenen gainetik. Positiboak izan diren desbideratzeen artean, nabarmentzekoak dira honako atal hauenak: "Kanpo zerbitzuak" (1.995 m€), "Soldata, ordainsariak eta parekatuak" eta "Gizarte kargak" (1.424 m€), eta "Beste enpresa batzuek egindako lanak" (1.189 m€) Desbideratze negatibo gisa, nabarmentzekoa da "Ohiz kanpoko gastuak" atalekoa –1.271 m€–.
- Ibilgetuaren amortizazio teknikoengatik sortutako gastuak hasieran aurreikusitako baino 815 m€ gehiago izan dira azken emaitzan, behin kenduta diru laguntzen aldizkakotze-kontuetan izandako alderantzizko ondorioa.
- Emaitza finantzarioek apenas lagundu dute azken emaitza positiboa sortzen, 15 m€-ko desbideratze negatiboa ekarri dutelako.

Ondorioz, esaten ahal da zerbitzuen ekonomia egitura eta kudeaketa irizpideak mantendu direla, besteak beste, zuhurtsun printzipioa aurrekontuak egiterakoan, betiere zerbitzuen nahikotasun ekonomikoa bermatze aldera. Hartara, ekitaldiko emaitzen kontuetan agertzen diren jarduerak behar bezala estaltzen dituzte zerbitzuen eta sozietatearen funtzionamendurako gastuak. Bestalde, aipatutako kontuek aurrezki gordina sortzeaz gainera (12 milioi euro ingurukoa 2010ean), gaur egun finantza kargarik jasaten ez duenez, etorkizuneko proiektuak eta inbertsioak finantzatzeko askatasun handia dago.

> Iruñerriko Mankomunitatea

Esan den bezala, Mankomunitatearen galera eta irabazien kontuak 3.372 m€-ko saldo negatiboa izan du.

Lehenik eta behin, esan behar da Mankomunitatearen administrazio izaerak, baita egiten dituen jarduerenak ere, aurrekontu irizpideen nagusitasuna –zentzu administratiboan– ekartzen duela ondorioz irizpide ekonomikoen gainean, bere oreka zehazteari eta aztertzeari dagokienez, eta horrek desberdintasunak sortzen dituela fluxuei egotzen zaien denboran. Izan ere, esan behar da ekitaldian Mankomunitateak gauzatu dituen eragiketak –diru-sarrerak zein gastuak– hasieran onartutako aurrekontuetako aurreikuspenekin bat etorrita ere, Mankomunitatearen galera eta irabazien kontuetan 4.469 m€-ko saldo negatiboa izan zela. Hau ezin izan zatekeen interpretatu beren jardueren galera gordin gisa, ez eta bere zerbitzuen finantza egituraren desoreka gisa ere (zeinua edozein izanda ere). Aitzitik, ekonomia irizpideak ezartzerakoan diru-sarrerak eta gastuak aitortzeko irizpideetan izandako denbora-desfaseei egotzi beharko litzaieke Horregatik, adierazitako 3.372 m€-ko saldo negatiboa, egitan, 1.097 m€-ko desbideratze positiboa da hasieran aurreikusitakoarekin alderatuta.

Dena dela, desbideratze positibo horren zati handiena aurrekontuetatik kanpo sortu da, eta ohiz kanpoko izaera du. Izan ere, 889€-ko diru-sarrera Eskualdeko Hiri Garraioko moneta-txartel zaharretan zeuden saldoak preskribitzearen ondorioz sortu da, 2009ko abenduaren 31tik aurrera ez baitziren operatiboa izan, eta itzultzeko epean ez baitziren eskatu –2010eko abenduaren 10ean bukatu zen–. Alderantziko zentzuan, beste gastu bat dago, hori ere aurrekontuetatik kanpoko, aurreikusten denez kobratzeko zail samarrak izan diren gastuek sortuta –207 m€–.

Gainerako desbideratzeak saldo garbi positiboa izaten jarraitzen du, eta, praktikoki, bat egiten du aurrekontu-emaitza doituarekin. Aurreko paragrafoan azaldutako eragiketetan bezalaxe, desbideratze positibo horren sorburua da ia esklusiboki Eskualdeko Garraioaren kudeaketa jardura, eta, bereziki, kontzesiodunari egindako transferentziak jasotzen dituen gastuen partidaren erreializazio txikiagoa, aurreikuspenetako baino 359 m€ txikiagoa, nahiz eta 2010eko ekitaldiko behin betiko likidazioa dela eta aurreikuspena sartuta egina izan (oraindik ez dira egin). Eskualdeko Garraioa kudeatzeko Ondasunak eta Zerbitzuak Ordaintzearen kapituluaren gastuen atalak ere agertzen du, bere osotasunean, 96 m€-ko erreializazio txikiagoa, aipatutako desbideratze positiboa sendotzen duena; hori, aldi berean, partzialki gutxitzen da hasierako aurreikuspenei dagokienez izandako diru-sarreraren erreializazio txikiago batzuegatik (23 m€ saldo garbi bezala).

Hala ere, azpimarratu behar da Eskualdeko Hiri Garraioaren kudeaketa finantzatzeko jarri diren mekanismoengatik —jardura honetan sartzen diren Foru Komunitatearen eta udalen ekarpenak, Garraio Planean finkatuak, gehienbat— Mankomunitatearen jardura dela helburu zehatza duten funts batzuen administrazio huts batek egin lezakeena baino zertxobait gehiago. Hori dela eta, Mankomunitateak lortu duen emaitza ez da berez entitatearen jardueren soberakin gordin bat. Halaber, ezin da interpretatu bere zerbitzuen finantza egituraren desoreka gisa –edozein zeinutakoa–. Aitzitik, izan ditzakeen emaitzak konpentsatuko dituzte nahitaz aipatutako erakundeek etorkizunean egingen dituzten ekarpenek, handiagoak edo txikiagoak izanda ere.

Labur esanda, berriz esan behar da Iruñerriko Mankomunitateak egiten dituen jarduerak eta hauek finantzatzeko formulek zailtzen dutela diru sarreraren aitopeneraren eta gastuen aitopeneraren arteko denbora desoreka hutsei ez dagozkien emaitza esanguratsuak agertzea.

2. EKITALDIA ITXI ONDOREN GERTATUTAKO GERTAERA GARRANTZITSUAK

Txostenaren 21. oharrean azaltzen dira errekurso eta erreklamazio batzuk. Gaur egun, ez dago jakiterik horien ondorioz Iruñerriko Mankomunitateak izan diren pasibo gehigarrien zenbateko zehatza. Aipatutako errekurso eta erreklamazio hauek izan ezik, 2010eko ekitaldiaren itxiera datatik ez da ondokoei nabarmen eragiten ahal zaien inolako gertaerarik izan: 2010eko ekitaldiko Urteko Kontu Bateratuak, zerbitzuak ematea edo gizarte xedea betetzea, eta 2010eko abenduaren 31n bere ondasun eta eskubide, zor eta betebeharrak zituzten egoera edo balioa.

3. AURREIKUS DAITEKEEN BILAKAERA

Ekitaldi honetako alderdirik nabarmenenek –txosten honen hasieran azaltzen dira– oso argi adierazten dituzte Talde honen jardura bideratzen duten ildo nagusiak: teknologia aurreratua duten azpiegitura eraginkorrak, agindutako zerbitzuen kudeaketa eta ustiapena etengabe hobetzea, eta zerbitzu publiko berrien kudeaketa hartzeko gaitasuna. Hori dela eta, esaten ahal da aurrez ikusten ahal den Talde honen bilakaerak honako ezaugarri hauek izan direla:

- Erabilitako kudeaketa formulen egokitasuna, baita zerbitzuen oinarriko helburuak betetzeko duten gaitasuna ere.
- Egungo beharrak estaltzen ahal dituzten azpiegitura materialak izatea. Azpiegitura hauek kalitatekoak, ongi zainduak, eta nahiko berriak izateaz gainera, instalazio berriak etengabe garatzen ari direnez, egungo estaldura mailak behar den aldian bermatzen ahal dira, baldin eta erakartze berrien gaineko aurreikuspenak betetzen badira.
- Zerbitzu berriak kudeatzeko eta emateko gaitasuna, ondokoetarako maila altua eskainiz: gaur egun dagoen egitura aprobetxatzeko eta integrazteko, eta zehazki behar den egitura garatzeko.
- Geografia esparru handiagoa hartzea, datozen ekitaldietan gertatzen ahal den joera baita. Zabaltze honen gaineko ikerketak egiten dira etengabe beharrak zehazteko, eta eskumena duten erakundeekin kontaktuak eta elkarrizketak izaten dira horretarako.

Labur esanda, Taldearen bilakaera, aurreikusten ahal dena, gaur egungo kudeaketa formulak eta emandako zerbitzuak mantentzera eta garatzera bideratuta dago.

4.- JARDUERAK IKERKUNTZA ETA GARAPENAREN ARLOETAN

Gure oinarriko zerbitzuak kudeatzeaz gain, izaera berritzaileko hainbat proiektu garatu dira, gure zerbitzuen ematearen emaitzak hobetuko dituztenak.

Ondorengo hauek nabarmendu ditzakegu:

- **Plastikoa berreskuratze sistemaren hobekuntza sailkatzeko plantan**
Hiri Hondakinak Tratatzeo Gongorako Zentroan sailkatutako ontzi eta bilgarrietatik datorren plastikoa automatikoki xurgatzeko sistema bat garatu da. Horiek duten eragina ebaluatu da, eta nabarmen hobetu da hondakin horren berreskuratze-indizea.
- **Sorgailu handien materia organikoa berreskuratze potentziala baloratzea**

- Iruñerriko sorgailu handien materia organikoaren multzoari buruzko ebaluazioa egin da. 353 gune identifikatu dira, eta, eguneko, 12/14 T sortzen direlako aurreikuspena egin da (5.000 T/urte). Aurreikusi da desegokien portzentajea %10ekoa dela, gutxi gorabehera; datu hori garrantzitsua da prozesuko planta diseinatzeke.
- **Konpostaje komunitarioaren esperientzia pilotua**
2009-2010 aldian, konpostaje komunitarioaren esperientzia egin da Iruñerriko sei kontzejutan. Emaitzak lortu dira, eta horietatik abiatuta, hondakinei buruzko prebentzio programazio bat diseinatu da beste eskualde-nukleotan hedatzeko.
- **Araztegiko lohien ezaugarriak – kutsakorrek, organikoak, irauten dutenak, gainerakorrek (SOSTAQUA proiektua/ 10. lana)**
LABAQUA enpresa lider da proiektu horretan, eta horretan parte hartu dugu Arazuriko araztegian sortutako lohien ezaugarriak ezagutzeko, bai bertan dauden kutsagarri organikoak dagokionez, bai Arazuriko lur-sail esperimentaleko nekazaritza-lurretan aplikatu ondoren izandako eraginari dagokionez. Emaitzek erakusten dute kutsagarri gutxi daudela, eta lurrek ongi degradatzen dituztela mikrokutsagarri horiek, baita aplikazio intentsiboetan ere.
- **Lohiak laborantza estentsiboetan aplikatzearen ingurumen-eraginari buruzko saiakerak (Arazuriko araztegiko lur-sail esperimentala)**
Nekazaritza Kudeaketako Institutua enpresa publikoarekin elkarlanean, araztegiko lurretan probak egiteko dagoen lur-sail horretan 19. urtean egindako ikerketaren emaitzak lortu dira. Nekazaritza eta Ingurumen arloei buruzko ikerketak egiten dira oraindik (metal astunen metaketa lur-zoruetan eta fruituetan). Aurreikusita dago aurten zenbait artikuluko tekniko argitaratzea.
- **Ongarriak lohien aplikazio estentsiboetan suen eraginkortasunari buruzko probak (Nafarroako Erdialdea)**
Araztegiko lohiek nekazaritzako laborantza estentsiboetan aplikatzeari buruzko probak bukatu dira; Ledea lur-sail esperimentalean egin da, Nekazaritza Kudeaketako Institutua enpresa publikoarekin elkarlanean. Irunberriko Kooperatiban izandako dibulgazio-bilkuretan eman dugu horien berri.
- **Ustiatzerako Laguntza eta Informazio Sistema ezartzea (SAEI)**
Ustiatzerako Laguntza eta Informazio Sistema ezartzea bukatu da; horrek garraio sareko 70 garelutan ematen du informazioa, denbora errealean. Ondorengo proiektu batean aurreikusita dago sistema hori ezartzea oinarri gisa beste informazio kanal batzuk sortzeko.
- **Kontakturik gabe ordaintzeko sistema ezartzea**
Kontakturik gabe ordaintzeko sistema ezarri da, ordaintzeko sistema bakar gisa. Aldaketa horietatik abiatuta, txartela kargatzeko modu berriak jartzeko lanean ari gara orain (webgunea, geralekuak...), baita ordaintzeko modua kudeatzeko sistema zentral bat ezartzeko lanean ere.
- **Administrazio digitala ezartzea**
Administrazio digitala ezartzeko proiektuko lanekin jarraitzen ari gara; horren bidez, ematen ditugun zerbitzuei buruzko tramiteetara gure bezeroek duten sarbide elektronikoa errazten ari gara.
- **Bidaiaari kopurua zenbatzeko proba pilotua**
Bidaiaari kopurua garelku bakoitzean zenbatzeko proba pilotua egin dugu; horretarako, kontaktu-txarteletan UHF antena bat jarriko da, baita sentsoreak autobusetik ateratzeko ateetan ere.
- **Abonudunak kudeatzeko sistema ezartzea**
Zenbait aplikazio informatiko ezartzen ari dira abonudunak kudeatzeko: Internet bidez sartzeko kontratuak kontsultatzeko, faktura elektronikoa, jakinarazpenak mezu elektroniko-SMS bidez eta fakturak on-line ordaintzeko sistema.
- **Eraikin zentralaren eta ekoizpen-zentroen arteko komunikazio sistema hobetzea**
Aldi batez probak egin ondoren, kalitate- eta gaitasun-sistema bat ezarri da gure eraikin nagusiaren eta ekoizpen-zentroen arteko komunikazioa hobetzeko.
- **Erosketak egiteko prozedurarako ezarpen informatikoa (APPROVE)**
Behin betiko ezarri da hornitzaileen fakturak onartzeko prozedura bat; horretarako, dokumentu-kudeaketako prozedura automatizatu bat ezarri da, paperik gabea.

5.- ARRISKUAK ETA ZIURTASUN EZAK

Taldeak bere negozioak garatzeari eragiten ahal dioten arriskuak eta ziurgabetasunak zein diren badakienez, detektatzeko eta kontrolatzeko behar diren mekanismoak jarri ditu.

6.- FINANTZA BALIABIDEAK

Taldeak ez du finantza baliabiderik kontratatu.